

**Mikhail Bulgakov**

# **Txakur-bihotza**

**euskaratzailea: Jose Morales**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Jose Morales.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 2001

Jatorrizkoaren data: 1925

Mikhail Bulgakov euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=248>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1305>

# HITZAURREA

Mikhail Afanasievitx Bulgakov 1891n jaio zen, Kiev hirian, eta 1940an hil zen, Moskun, gaitz larri batek jota. Medikuntza ikasi zuen Kieveko Unibertsitatean. Ikasketak amaitutakoan, Kieveko eta zenbait herri txikitako ospitaleetan lan egin zuen, lau urtez. Bitarte horretan, antzerkilarik eta egunkarietarako kontakizun laburrak idazten hasi zen. 1921ean, medikuntza utzi, Moskun kokatu, eta idaztetik bizitzea erabaki zuen. Ez zitzaion erraza gertatuko, ordea.

Izan ere, Bulgakov ez zegoen ados erregimen sobietarrarekin, eta zorrotz salatzen zituen iraultza osteko gizartean atzematen zituen akats guztiak. Gogolek bere garaiko Errusiaren alderdi txarrak kritikatzeko erabili zuen literatur tresna bera aukeratu zuen Bulgakovek sobietarren okerak salatzeko: satira. Hasieran, Leninek bultzaturiko Politika Ekonomiko Berriaren garaian, zentsura ez zen oso gogorra, eta sistemarekin bat ez zetozen idazleek eta, oro har, artistek eragozpen handirik gabe azaltzen ahal zituzten beren

iritziak. Giro nolabait lasai eta aske hartan, Bulgakoven antzerki-lanek sekulako arrakasta izan zuten. Baina horrek ez zuen luze iraun: 1924an, Lenin hildakoan, Stalinek hartu zuen agintea, eta gupidarik gabe jo zuen erregimen sobietarrera otzan-otzan makurtzen ez ziren guztien aurka. Orduz geroztik, polizia politikoak estu zelatatu zuen Bulgakov, etxea arakatu zioten, bere egunkaria eta eskuizkribuak kendu zizkioten, haren obrak antzeztea debekatu zuten, literaturaren zein antzerkigintzaren arloko ezein lanpostutan jardutea eragotzi zioten. Hitz batean, bakartu, baztertu eta gogor jazarri zuten. Bulgakoven liburu asko bera hil eta hogeita bost urte geroago argitaratu ziren lehen aldiz.

Bulgakovi zeharo etsigarria eta amorragarria zitzaion zentsuraren jazarpena, eta Sobiet Bata-sunetik alde egitea beste ametsik ez zuen. Hala ere, bere egoeraren latzak ez zuen kikildu eta, hil arte, gogotik saiatu zen nahi zuen bezala idazten eta pentsatzen zituen gauzak esaten. Idazle gisa estimu handitan zeukaten hainbat intelektualek behin eta berriro eskatu zioten «obra komunista» bat idazteko eta gobernuari

gutun bat bidaltzeko, damu zela esanez, ordu arte bere idazlanetan agerturiko iritzi guztiei uko egingez eta aurrerantzean eredu zko idazle komunista izango zela eta Sobiet Batasunaren aldeko intelektual zintzo gisa jardungo zuela adieraziz. Jazarpenetik, miseriatik eta, azken batean, heriotzatik salbatuko zukeen horrek. Halatan, 1928ko martxoaren 28an gutun bat idatzi zion SESBeko gobernuari. Lagunen aholkuen berri eman zuen gutun hartan, baina esan zuen ez ziela jaramonik egingo, jokabide hori, sinesgaitza izateaz gain, zurikeria litzatekeelako eta, gainera, bera ez zelako gai liburu komunista bat idazteko. Besteak beste, hau zioen gutun ospetsu horretan: «Prentsako artikuluak azterturik, idazten eman ditudan azken hamar urteotan, nire obren 301 aipamen aurkitu ditut. Haietatik, 3 aldekoak izan dira, eta 298 kontrakoak eta iraingarriak. (...) Horrek erakusten duenez, nire idazle-bizitza osoan, SESBeko prentsa guztiak eta nire obra kontrolatzeaz arduratzen diren erakunde guztiek aho batez eta ohi ez bezalako amorruez adierazi dute Bulgakoven obrek ez dutela lekurik SESBen. Eta nik diot SESBeko

prentsak arrazoi osoa duela. Gutun honen abiapuntu gisa, *Uharte urrekara* nire panfletoa aipatu nahi dut. Salbuespenik gabe, kritikari guztiek esan dute obra hori 'kaskarra, erdipurdikoa, txarra, erabateko ezdeuskeria eta iraultzaren kontrako libelo hutsa' dela. (...) Alemaniako prentsak, aldiz, *Uharte urrekara* 'SESBen adierazpenaskatasunaren alde egin den lehen aldarrikapena' dela dio, eta zuzen dago. Aitortzen dut. Idazlea naizen aldetik, nire eginbeharra da prentsaaskatasuna aldezte eta zentsuraren aurka borrokatzea, zentsura bera zein zentsura erabiltzen duen agintea edozein delarik ere. Askatasun horren miresle sutsua naiz, eta, nire ustez, idazleren bat saiatuko balitz frogatzen haren beharrik ez duela, urik behar ez duela aldarrikatzen duen arrainaren antzekoa litzateke idazle hori». Azkenik, bere herrian iraultzaren kontrako idazle kaltegarritzat zeukatenez, lehenbailehen SESBetik alde egiteko agin ziezaion eskatu zion gobernuari gutun horretan, edo, bestela, lanposturen bat eman ziezaioten antzerkiaren munduan, zuzendari gisa, aktore gisa, figurante gisa edo, gutxienez, tramoari gisa.

1930eko apirilaren 14an Maiakovskik bere buruaz beste egin zuen. Maiakovski lurperatu eta biharamunean, Stalinek telefonoz deitu zion Bulgakovi. Elkarrizketa labur batean, Bulgakov-ek, atzerrira bidaltzeko eskabidea bertan behe- ra uztearen truke, lanpostu bat lortu zuen Mos- kun: Antzoki Artistikoaren zuzendari-laguntzai- lea.

Hauek dira Mikhail Bulgakov-ek idatzi dituen antzerki-lan nagusiak:

*Turbindarren egunak* drama (1926). Iraultza boltxebikearen ondoren Ukrainan piztu zen gerra zibil izugarrian giroturik, tsarraren armadan ofi- zial izaniko noble batzuek eta haien ahaideek iraultza sobietarra ulertzeko eta gizarte berrira egokitzeko dituzten arazoak dira dramaren mamia.

*Zoikaren etxebizitza* komedia satirikoa (1926), funtzionarioen kontrakoa eta Politika Ekonomiko Berriaren garaiko bizitza klandestino- ari buruzkoa.

*Uharte urrekara* komedia, zentsurari buruzko satira zorrotza, askoren ustez haren antzerki- lanik onena eta landuena (1928).

Estreinatu ziren egunaz geroztik, hiru obra horiek etengabe eta berebiziko arrakastaz antzeztu zituzten Moskuko antzoki nagusietan, harik eta 1929ean Stalinek hirurak debekatu zituen arte.

*Ihesa* drama (1928), iraultzan galtzaile atera ziren eta atzerrira ihes egin behar izan zutenen patu tragikoari buruzkoa. 1957 urtea arte ezin izan zen antzeztu Sobiet Batasunean.

*Molière* (1931), artearen eta agintearen arteko harremanei buruzko komedia. 1936an estreinatu zen, arrakasta handiz, baina zentsurak berehala kendu zuen antzokietatik.

Antzerki-lanez gain, Bulgakovek eleberriak ere idatzi zituen. Zalantzarik gabe, *Maisua eta Margarita* du obra nagusia. Askoren ustez, XX. mendean errusieraz idatzi den libururik onena da. 1928 urtetik hil zen arte, Bulgakovek burubelarri jardun zuen eleberri hori ontzen, baina 1965 urtea arte debekaturik egon zen Sobiet Batasunean. Horrez gain, hauek dira Bulgakoven narratiba-lan nagusiak: *Diavoliada* ipuin-bilduma (1924); *Guardia zuria* eleberria (1924); *Sendagile gazte baten oroitzapenak* eleberri autobiogra-



fikoa (1925) eta *Antzerti-eleberria* antzerkiaren munduari buruzko satira (1930-1936) (1965ean argitaratu zuten lehen aldiz Sobiet Batasunean).

*Txakur-bihotza* eleberri laburra 1925ean idatzi zuen Bulgakovek. Preobrajenski endokrinologoak Sharik izeneko kale-txakur dohakabe bat jasotzen du eta bere etxera eramaten du, berekin zenbait esperimentu egiteko asmoz. Esperimentuok, ordea, ustekabeko ondorioak ekarriko dituzte eta buruhauste ugari sortuko dizkiete Preobrajenski profesoreari eta haren laguntzaile leial Bormental doktoreari. Hori guztia 1924ko abenduan eta 1925eko urtarrilean gertatzen da, Politika Ekonomiko Berriaren garaia amaitzear dagoela. Eleberria Urriko Iraultza Sozialistak Errusiako gizartean eragin zuen aldaketa bortitzari buruzko satira zorrotza da. 1926an, Stalinen polizia politikoak Bulgakoven etxea arakatu zuen eta, besteak beste, *Txakur-bihotzaren* eskuizkribua eraman zuen. Eleberria 1969an argitaratu zen lehen aldiz errusieraz, baina ez Moskun, Parisen baizik.

**Jose Morales Belda**

Auuuu-au-au-auu! O, begira iezadazue, hil zorian nago. Elur-erauntsia uluka ari da atarian nire hileta jotzen, eta ni intzirika ari naiz berarekin batera. Nireak egin du, nireak egin du. Txano zikineko gizatxar batek, Ekonomia Nazionalaren Sobiet Zentraleko enplegatuen mantenu normalerako jantokiko sukaldariak, ur irakina bota eta ezkerreko saihetsa kiskali dit. Hori gizon zitala, eta proletarioa gainera! Jainkoa, ene Jainkoa, hau mina! Hezurretaraino sartu zait ur irakina. Intziri eta intziri ari naiz orain, intziriek lagunduko balidate bezala.

Zer kalte egin diot nik, ordea? Ekonomia Nazionalaren Sobieta pikutara joango al da ni zakarrontziak arakutzen ibiltzeagatik? Tripazorro arraioa! Begira iezaiozue edonoiz haren aurpegiari: luze baino zabalagoa du. Mutur kobre-koloroko lapur ustela halakoa! Ai, gizajendea, giza-jendea! Eguerdian ur irakina egin dit opari babo horrek, eta dagoeneko ilundu du, gutxi gorabehera arratsaldeko laurak izango dira, Pretxisten-

ka kaleko suhiltzaile-etxetik datorren tipula-usainak adierazten duenez. Suhiltzaileek morokila afaldu ohi dute, badakizue. Baina hori azkene-koa da, hori eta onddoak. Bestetik, Pretxisten-kan ditudan txakur lagun batzuek esan didate-nez, Neglinaia kaleko «Bar» jatetxean zera ipin-zen dute egunero bazkaritarako, onddoak saltsa minean, 3 errublo eta 75 kopek platerkada. Hori, zaleentzat; eskalapoiak miazkatzearen parekoa da... Auuuu...

Min izugarria dut saihetsean, eta ezin argiago ikusten dut nire etorkizuna: bihar zauriak agertu-ko dira, eta, galdetzen dut, nola sendatuko ditut? Udan, joan-etorri azkar bat egin nezake Sokolni-ki parkera —han badira belartxo berezi batzuk, oso onak eta, bide batez, nahi adina hestebete-mutur jan dohainik, eta herritarrek nonahi uzten dituzten paper koipetsuak miazkatu. Eta parkeko plazatxo biribilean atso-agure erretxinik ez badago ilargiaren argitan *Aida maitea* bihotza erdiratzeko moduan abesten, ezin hobeto. Orain, ordea, nora joango naiz? Zuei ez dizuete atzeal-dean ostikorik eman? Bai. Eta ez duzue saihets-hezurretan adreilukadarik hartu? Askotxo. Nik

dena igaro dut, etsi onean daramat nire zoria, eta orain negarrez banago, min fisikoagatik eta hotzagatik baino ez da, oraindik ez baitut kementa galdu... Txakurrok eraman handikoak gara.

Baina hona hemen nire gorputza itxuragabeturik, jipoiturik, jendeak dagoeneko aski iraindurik. Txarrena da ur irakinak ilea jan didala, eta orain, zera, ezkerreko saihetsak ez du inolako babesik. Oso erraz harrapa dezaket biriketako gaitza, eta harrapatzen badut, herritarrok, gosez hilko naiz. Biriketakoak jota dagoenak etxesarrera nagusiko eskaileraren azpian etzanik egon behar du, eta, halatan, nor ibiliko da zakarrontzietan janari bila txakur bakarti eta etzan honentzat? Hotzak goitik beheraino hartuko dizkit birikak, arrastaka ibiliko naiz sabelaren gainean, ahuldu egingo naiz, eta *intelligentsiako* edozein argi-iturrik makilaka hilko nau. Eta kalezain plakadunen batek hanketatik heldu eta zalgurdi batera jaurtiko nau...

Proletario guztien artean, kalezainak zaborre-riarik higuingarriena dira. Giza hondakinak, kategoriarik behekoena. Sukaldarien artean, aldiz, denetarik dago. Horra hor, esaterako, Vlas zena,

Prexistenkakoa. Zenbati salbatu zien bizia! Izan ere, gaixoaldietan, mokadu bat lortzea da garrantzizkoena. Eta, hara, txakur zaharrek diotenez, Vlasek hezurak botatzen zizkien, eta hezur bakoitzak bi ontza haragi edukitzen zuen. Zeruko erreinua merezi du, itzal handiko gizon guztiz prestua izan baitzen, Tolstoi kondeen sukaldari jauna, eta ez Mantenu Normalaren Sobietekoa. Han mantenu normaltzat prestatzen dutenak gainditu egiten du txakur baten adimena. Sukaldari doilor horiek zer eta kirats nazkagarriko okela gazitua botatzen diote aza-zopari, eta enplegatu gizagaixoak ez dira ezertaz konturatzeko. Lasterka iritsi, mauka-mauka jan eta zurrupaka edaten dute.

Horko andereño mekanografo hori IX. kategoriakoa da eta berrogeita bost errublo irabazten ditu. Hori bai, maitaleak zeta-antzeko hari finezko galtzerdiak oparituko dizkio. Baina zenbat adar-jotze jasan beharko dituen hari fin horren kontura! Eta gizonak ez du ohiko eran maitatzen, ez, maitamodu frantsesera behartzen du. Gure artean esanik, frantses horiek txerri hutsak dira. Baina bapo jaten dute, eta ardo bel-

tzarekin beti. Bai... Andereño mekanografoa hona etortzen da, 45 errublorekin ez baitago «Bar» jatetxera joaterik. Zinematograforako ere ez dauka, eta zinematografoa da emakumezkoek bizitzan duten kontsolamendu bakarra. Dardar egiten du, bekokia zimurtzen du, baina jaten du... Egin kontu!, 40 kopek bi jakirengatik, baina bi jaki horiek hamabost ere ez dute balio, beste 25 kopekak ekonomi administratzaileak lapurtzen ditu. Gainera, hori al da berak behar duen mantenua? Gaitzen bat du eskuineko birikaren goiko muturrean, eta emakumezkoen gaixotasun bat maitamodu frantsesaren ondorioz, lanean dirua kendu diote soldatatik, jantokian janari ustela eman diote, eta hor dago, hor dago... Etxe-atarira doa lasterka, maitalearen galtzerdiak jantzirik. Hotz dauzka oinak, haizea sabeleraino sartzen zaio, ilea nirearen antzekoa baitu, eta praka arinak daramatza, farfailezko itxura hutsa. Maitalearentzako piltzarrak. Eta saia dadila flanelazkoak janzten!, maitalea hor hasiko zaio garrasika: Ez haiz batere dotorea! Gogaiturik nagon nire Matrionaz, nahikoa jasan ditinat jadanik flanelazko galtzak, orain nire

ordua iritsi dun. Orain sailburua naun, eta hemendik aurrera lapurtzen dudan guztia emakumezkoen gorputzerako izango dun, karramarrotarako, Abrau Durso-tarako. Gose handiak igaro nitinan gazte-denboran, aski dinat horrenbestez, eta, gainera, ez zegon hil ondoko bizitzarik.

Errukia ematen dit, errukia! Baina are erruki handiagoa ematen dit neure buruak. Ez naiz hala mintzo nirekoikeriagatik, oi ez!, haren egoera eta nirea zeharo desberdinak direlako baizik. Berak, gutxienez, etxeko epeltasuna du, baina nik, nik... Nora joango naiz ni? Auuuu!...

— To, to! Sharik, aizak, Sharik... Zergatik ari haiz negar-intzirika, errukarri hori? Nork eman dik min? Ai...

Elur-erauntsi lehorrak, sorgin gaizto baten antzera, burrunba egin zuen atean eta erratzarekin astindu zituen andereñoaren belarriak. Belaunetaraino harrotu zion gonatxoa, agerian utzi zizkion galtzerdi kremakoloreak eta farfai-lezko oihal-zerrenda estu txarto garbitu bat, hitzak ito eta elurrez estali zuen txakurra.

Ene Jainkoa... Hau eguraldia... Ai... Eta sabeleko mina dinat. Okela gazituagatik dun, okela gazituagatik! Noiz amaituko da hau guztia?

Burua makurturik, erasoari ekin zion andereñoak, nekez igaro zuen ataria, eta, behin kalean, aldaroka abiatu zen haizearen mende, aldaroka eta itzulika; gero, elurrezko torlojua balitz bezala jirabiraka hasi, eta han desagertu zen.

Txakurra atariaren azpiko hutsartean gelditu zen, eta, saihetseko zauriez oinazeturik, horma hotzaren kontra estutu zen, arnasestuka, eta irmoki erabaki zuen ez zela gehiago handik mugituko, atari-azpi horretan emango zuela azken hatsa. Etsipena hartu zuen. Hain zeukan mindurik eta atsekabeturik gogoa, hain sentitzen zen bakarrik eta izaturik, ezen babalarru txikien antzeko txakur-malko txikiak isurtzen baitzituen begietatik, eta hantxe lehortzen zitzaizkion. Saihets kiskalian nahas-mahas ageri ziren ile-multzo izoztu batzuk, eta erreduren gorriune gaitz-iragarleak ikusten ziren haien artean. Zein ergela sukaldaria, zein inozoa, zein ankerra! «Sharik», halaxe deitu dio andereñoak... Zer «Sharik» eta zer arraio, ordea! «Sharik»



hitzak lodia esan nahi du, mardula, adimen labur-  
rrekoa, morokil-jale aseezina, familia onekoa,  
eta bera txima-jarioa da, luzanga, argala, balda-  
rra eta arlotea, etxerik gabeko kale-txakur ziztri-  
na. Dena dela, eskerrik asko hitz on horrengatik.

Ate-danbatekoa entzun zen kalearen beste  
aldeko denda ondo argiztatu batean, eta herritar  
bat irten zen. Ez tobaritx bat, baizik eta, hain  
zuzen ere, herritar bat, eta, segur aski, jaun bat.  
Bai, hurbilago eta nabariago: jaun bat. Longaine-  
tik igarri diodala uste duzue? Zentzugabekeria  
handiagorik! Orain proletario askok ere janzen  
dute longaina. Bai, egia da beroki guztiek ez  
dutela horrelako leporik, hori esan beharrik ere  
ez dago, baina urrundik edonor nahas daiteke.  
Begietatik antzeman diot, begiek ez dute inor  
nahasten, ez hurbiletik eta ez urrundik. Begiak  
gauza adierazkorra dira. Barometro moduko bat.  
Dena ikusten da begietan: nork duen sekulako  
lehortea ariman, nork eman ahal dizun besterik  
gabe ostiko eder bat saihets-hezurretan, nor den  
guztien beldur. Atsegina izaten da azken morroi  
horiei orkatilan kosk egitea. Har ezak hau, beldur

haiz eta! Beldur haizenez, merezi duk... Grrrrr...  
Uau, uau, uau...

Jaunak urrats sendoz zeharkatu zuen kalea elur-ekaitzaren zirimolaren erdian, eta atariaren azpiko hutsarterantz joan zen. Bai, bai, argi eta garbi antzematen zaio. Honek sekula ez du okela gazitu ustelik jango, eta non edo non hori ematen badiote, sekulako iskanbila sortuko du, egunkarietara idatziko du: niri, Filip Filipovitx-i, gehiegizko jana eman didate, nire osasunaren kalterako.

Hor dator, gero eta hurbilago dago. Oparojaten du eta ez du lapurretarik egiten, ez da ostikoka hasiko, eta ez da inoren beldur, beti ase delako ez da inoren beldur. Lan intelektuala egiten du, mutur zorrotzeko kokots-bizar frantsesa du, eta bibote ileurdina, leuna eta dotorea, aitoren seme frantsesek bezala, baina usain txarra hedatzen du elur-erauntsian, ospitale-kiratsa. Eta zigarroarena.

Zer deabrutarako joan da Tsentrokhoz-en kooperatibara? Hemen da... Zeren bila dabil? Auuuu... Zer erosi ote du dendatxo kaxkar horretan? Okhotni-ko saltokiak ez dira aski beraren-

tzat, ala? Zer da hori, gero?! Hes-te-be-te-a. Jauna, hestebete horiek zerez egiten dituzten jakingo bazenu, hurbildu ere ez zinateke egingo denda horretara. Emadazu niri.

Txakurra, geratzen zitzaizkion indar apurrak bildu, eta, ero legez, herrestan joan zen atari-azpitik espaloira. Elur-erauntsiak, buru gainean fusilaren danbaden antzeko zarata ateraz, airean altxatzen zituen oihalezko iragarki bateko letra erraldoiak: «Badago gazteterik?».

Horixe badagoela. Usainak, ospitale-kiratsari nagusitu zaion usain horrek, berakatz eta pipe-rrekin nahasiriko behor-okela xehatuaren usain zoragarri horrek gaztetu egin nau, sabel gainetik altxarazi nau, bere jario beroaz estutu du nire urdail dagoeneko bi egunez hutsa. Sumatzen dut, badakit, larruzko berokiaren eskuineko sakelan dauka hestebetea. Nire gainean dago. Oi, nire jaun eta jabea! Begira iezadazu. Hil zorian nago. Esklaboa da gure arima, makurra gure zoria!

Txakurrak herrestan egin zuen aurrera, suge baten antzera, sabelaren gainean, negar-malkotan. Begira zer egin didan sukaldariak. Dena

dela, ez didazu inola ere emango. Oi, oso ondo ezagutzen dut jende aberatsa! Zertarako behar duzu, ordea? Zertarako nahi duzu zaldiki ustel hori? Mosselprom-en beste inon ez duzu horrelako pozirik lortuko. Gainera, gaur gosaldu egin duzu, zuk, gizonezkoen sexu-guruinei esker mundu osoan ospetsu zaren horrek. Auuuu... Zer gertatzen ari da mundu honetan? Inondik ere, oraindik ez zait iritsi hiltzeko ordua, eta etsipena benetako bekatua da. Eskuak miazkatuko dizkiot, besterik ezin dut egin.

Jaun misterioetsua txakurraren gainera makurtu zen, begiak dir-dir beren uztai urrezkoetan, eta bilgo zuri luzanga bat atera zuen eskuinteko sakelatik. Eskularru gaztainkara argiak erantzi gabe, papera zabaldu —bisutsak airean eramane zuen berehala eta puska bat hartu zuen «Krakoviako berezia» zeritzon hestebete hartatik. Eta txakurrari bota zion hestebete-puska. Oi, zein gizon eskuzabala! Auu!

— Fiu, fiu! —deitu zion txistuka jaunak, eta ahots zorrotzez gaineratu—: Hartu! Sharik! Sharik!

Berriz ere Sharik. Bataiatu egin naute. Tira, nahi duzun bezala deitu. Merezi duzu, nirekin hain jokabide ohiz kanpokoia izateagatik.

Txakurrak berehalaxe kendu zion azala hestebeteari; ahuen eginez hortzak erantsi Krakoviakoari, eta begien itxi-ireki batean jan zuen. Hestebetea eta elurra eztarrian trabaturik, negar egiterainoko itolarria sumatu zuen, lokarria ere irensteko zorian egon baitzen, gosearen gosez. Gehiago, gehiago miazkatuko dizut eskua. Prakak musukatuko dizkizut, nire ongilea!

— Nahikoa duk oraingoz... —Jaunak zakar eta etenka hitz egiten zuen, aginduak ematen ari balitz bezala. Sharikenganantz makurtu, arreta handiz begitera so egin, eta, ustekabean, gozo eta samur laztandu zion sabela, eskularrua erantzi gabe.

— Horra! —esan zuen, oso doinu adierazko-  
rez lepokorik ez, ederto, hi haiz nik behar dudana. Hator nirekin. —Hatzak klaskatu zituen Fiu, fiu!

Zurekin joan? Munduko azken muturreraino ere. Jo nazazu feltrozko bota horiekin, ez dut txintik aterako.

Kaleko argiak pizturik zeuden Pretxistenka osoan. Saihetseko mina jasanezina zen, baina noizean behin ahaztu egiten zitzaion Shariki, pentsamendu bakarra baitzerabilen buruan: kaleko anabasan nola ez galdu begien bistatik larruzko berokiz jantziriko ikuskari miragarri hura eta nola erakutsi bere maitasuna eta leialtasuna. Eta zazpi bat aldiz erakutsi zizkion Pretxistenkatik Obukhov kalezulorainoko tartean. Botak musukatu zizkion Miortvi kalezuloko kantoian; bidea irekitzeko egiten zituen orro lazgarriek hain izu handia eragin zioten dama bati, ezen espaloiko izkina-harrian eseririk geratu baitzen; pare bat aldiz intziri egin zuen, berarenganako errukia iraunarazteko.

Bat-batean, bere burua siberiar arrazakotzat zeukan kale-katu zital handiusteko bat irten zen etxe bateko isurbidetik, eta, elur-erauntsia gorabehera, usain egin zion Krakoviakoari. Shariki odola ur bihurtu zitzaion pentsatze hutsarekin beharbada atari-azpietako txakur zaurituak jasotzen zituen aberats bitxiak berekin eramango zuela lapur hura ere eta, horrenbestez, erdi bana egin beharko zutela Mosselpromen produktua.

Halatan, hain amorru biziz karraskatu zituen hortzak, ezen katua bigarren solairuraino igo baitzen isurbidean gora, ziztu bizian, ureztatze-hodizulatu batek jotzen duenaren antzeko txistuhotsa ateraz. Grrrrrr-au-au! Ospa hemendik! Mosselpormek ez dauka nahikoa janaririk Prexistenkan alderrai ibiltzen diren arlote guztiak elikatzeko.

Jaunak estimatu egin zuen txakurraren leialtasuna, eta, suhiltzaile-etxearen parean, tronpa baten soinu atsegina hedatzen zuen leiho baten alboan, bigarren hestebete-puska bat eman zion saritzat, aurrekoa baino txikixeagoa, hogeigramo ingurukoa.

Bai xelebrea gizona! Nolako ahaleginak egingen dituen ni erakartzeko! Ez kezkatu! Ez dut inora alde egingo. Zure atzetik joango naiz agintzen didazun lekura.

— Fiu, fiu! Hona!

Obukhovera? Nola ez! Oso ondo ezagutzen dut kalezulo hori.

— Fiu, fiu! Horra? Atsegin hand... A, ez, ezta pentsatu ere! Ez. Hemen atezaina dute. Eta munduan ez dago hori baino jende okerragorik.

Kalezainak baino askoz ere arriskutsuagoak dira. Jende-modu guztiz gorrotagarria. Katuak baino nazkagarriagoak. Borrero galoidunak.

— Ez izan beldur, hator!

— Osasuna, Filip Filipovitx.

— Osasuna, Fiodor.

Handikia da, alajaina! Ene Jainkoa, noren esku jarri nau nire txakur-patuak? Nor da atezainaren beraren aurrean kaleko txakurrak etxebizitza-kooperatiba batean sartu ahal dituen gizon hau? Begira gizatxar horri: txintik ere ez du atera, zirkinik ere ez du egin! Egia esan, goibel dauzka begiak, baina, oro har, axolagabe ageri da urrezko galoiekiko kapela-hegalaren azpian. Ezer berezirik gertatu ez balitz bezala. Begirune handia dio, jaunok, begirune handia benetan! Ondo da, ni berarekin nator eta beraren atzetik noa. Zer?, amorrua ematen dizu? Hor konpon! Kosk egingo nizuke oraintxe bertan proletarioin maskurtsu horretan. Zuek atezainok egin dizkidazuen gaiztakeria guztiengatik. Zenbat aldiz apurtu didazue muturra erratzarekin, e?

— Hator, hator.



Ulertzen dut, ulertzen dut, ez kezkatu, mese-  
dez. Zu nora, ni hara. Erakutsi bidea, ni ez naiz  
atzean geratuko, saihetsean min izugarria dudan  
arren.

Eskaileratik beheko alderantz:

— Ez dago niretzako gutunik, Fiodor?

Behetik eskailerarantz, begirunez:

— Bat ere ez, Filip Filipovitx. —Hitz-estalika  
eta ahopean gero, ordurako Filip Filipovitx bizka-  
rrez zeukala baina bizilagunak ekarri dituzte  
hirugarren etxebizitzara.

Txakurren babesle itzaltsua ziplo jiratu zen  
eskaileran, eta, barandaren gainetik makurturik,  
ikaraz galdetu zuen:

— Benetan?

Begiak biribil-biribil zabaldu, eta bibotea  
gorantz jaso zitzaion, kea balitz bezala.

Atezainak, han behean burua altxatu, esku-  
ahurrak ezpainen albo banatan jarri, eta berretsi  
zuen:

— Bai horixe, lau lagun guztira.

— Jainko maitea! Imajinatzen dut zer geratu-  
ko den orain etxebizitza horretan. Tira, eta zer  
moduzkoak dira?

— Arruntak.

— Eta Fiodor Pavlovitx?

— Ateorde eta adreilu bila joan da. Holtzak egingo dituzte.

— Deabrua! Hau da hau!

— Etxebizitza guztietara ekarriko dituzte bizi-lagunak, Filip Filipovitx, zurera izan ezik. Batzarrak egin dute oraintxe, etxeko bizilagunen batzorde berria hautatu dute, eta lehengoa kalera bota.

— Hamaika ikusteko jaioak gara! Ai, ai, ai... Fiu, fiu.

Banoa, ahalik eta azkarren. Mesedez, kontuan hartu saihetseko zauriek min handia ematen didatela. Uztazu bota miazkatzen.

Atezainaren galoiak agerritik kendu ziren behean. Marmolezko eskailera-buruan ur-hodietako berotasuna nabaritzen hasi zen; beste itzulbira bat egin, eta horra solairu nagusia.

## II

Irakurtzen ikastea ez da inola ere beharrezkoa okelaren usaina urrundik ere berez aditzen denean. Hala ere, Moskun bizi bazara eta buruan argi apur bat baduzu, nahitaez ikasten duzu irakurtzen, inolako ikastarorik egin gabe gainera. Moskuko berrogei mila txakurretatik, zeharo ergelak diren banaka batzuk soilik ez dira gai letrekin «hestebete» hitza osatzeko.

Sharik koloreen arabera hasi zen ikasten. Lau hilabete egin bezain laster, ohol berde-urdin batzuk eseki zituzten Mosku osoan, idazkun honekin: «MSPO — Harategia». Berriro diogu hori guztia alferrik dela, okelaren usaina berez aditzen baita. Dena dela, egun batean, huts egin zuen Sharikek: gasolina-motor baten keak usaimena itzali zion, eta, kolore urdin bizia gidaritzat harturik, harategian sartu ordez, tresna elektrikoan denda batean sartu zen, Golubizner anaiegan, Miasnitskaia kalean. Han, kable elektrikoa dastatu zuen txakurrak, eta kotxezainen zartailua baino gordinagoa gertatuko zitzaion. Une

gogoangarri hura hartu behar dugu Shariken ikaskuntzaren hasieratzat. Berriro espaloian, Sharik berehala hasi zen ulertzen «urdina»k ez duela beti «okela» esan nahi, eta, min biziaren eraginez intzirika eta buztana atzeko hanken artean estuturik, ondo gogoan gorde zuen nola, harategi guztietan, ezkerretik hasita lehena ikur hanka-zabal bat egoten den, gorrixka edo urrekara, lera baten itxurakoa.

Harrezkero, emaitza hobeak izan zituen. Mokhovaia kaleko kantoiko Glavriba-n «A» letra ikasi zuen, baita «B» ere, geroxeago —izan ere, errazago zitzaion «riba» hitzaren amaieratik hurbiltzea, hitzaren hasieran polizia bat egon ohi zen eta.

Moskuko kale-kantoiak apaintzen zituzten axuleiuzko laukitxoek «g-a-z-t-a» esan nahi zuten, beti eta salbuespenik gabe. Txitxkin izenaren hasierako ikur beltza samovarraren giltzaren antzekoa zen, eta gogora ekartzen zituen dendaren ugazaba izan zena, Holandako gazta gorri piloak, txakurrei gorroto dieten dendari bihozgabeak, lurrean barreiaturiko zerrautsa eta backstein gazta kirastun nazkagarria.

Akordeoia jotzen bazuten —aukeran hobe zen hori *Aida maitea* baino eta saltxitxa-usaina bazegoen, kartel zurietako lehen letrak ikaragarri ondo antolatzen ziren «debek...» hitza eratze-ko, zeinak adierazten baitzuen «debekaturik dago hitz gordinak esatea eta eskupekoak ematea». Batzuetan, liskar handiak pizten ziren leku horietan, gizajendea ukabilez jotzen zuten muturrean, gutxitan, hori bai; txakurrak, ordea, beti jotzen zituzten, aho-zapiarekin zein botarekin.

Leihoan zintzilik urdaiazpiko zaharrak eta hegalean mandarinak bazeuden... guau, gau... ga... gastronomia. Halako likido txar batez beteriko botila ilunak ikusten baziren... a-erre-ar-de-o-do-ardo... garai batean Eliseiev anaiena izaniko ardotegia.

Jaun ezezagunak bere atzetik eramane zuten txakurra solairu nagusiraino, bere etxebizitza aberatseko ateraino bertaraino, eta txirrina jo zuten. Txakurrak berehala jaso zituen begiak beira kizkur arrosakoloreko ate zabalaren alboan esekirik zegoen txartel beltz handiko letra urrekaretarantz. Aise bereizi zituen lehen hiru letrak: «Pe-erre-o. Pro». Baina haien ondoan sabel

bikoitzeko txerrikeria bat zegoen, eta antzik ere ez zion hartu haren esanahiari. «Proletarioa, beharbada?», pentsatu zuen Sharikek, harriturik... «Ez, hori ezinezkoa duk.» Sudurra gorantz jaso, berriz ere larruzko berokiari usain egin, eta ziurtasunez pentsatu zuen: «Ez, hemen ez zegok proletario usainik. Hitz zientifikoa duk, batek zekik zer esan nahi duen».

Beira arrosakoloreaz bestaldean argi ustekabeko eta alai bat piztu zen bat-batean, eta are gehiago nabarmendu zuen txartelaren beltza. Atea alderik alde zabaldu zen batere zaratarik egin gabe, eta mantaltxo zuriz eta farfailezko txanoz jantziriko emakume gazte polit bat agertu zen txakurraren eta haren jabearen aurrean. Jainkozko berotasun bat jabetu zen bietako lehenaz, eta emakumearen gonak usain gozoa hedatu zuen, mugetarenaren antzekoa.

«Hau bai, hau ulertzen diat», pentsatu zuen txakurrak.

— Mesedez, Sharik jauna —esan zion jaunak ironiaz, sartzeko gonbita eginez, eta Sharikek aurreraegin zuen, buztanari eraginez.

Harrera-gela dotorea denetariko gauzez mukuru beterik zegoen. Oso deigarria gertatzen zen lurreraino bertaraino iristen zen ispilu bat, zeinak berehala islatu baitzuen Sharik higtatu eta hondatu baten irudia, eta, horrekin batera, orein baten adar ikaragarriak han goian, ezin konta ahal beroki eta eskalapoiak, eta argi-tulipa opalokara bat sabaiaren azpian.

— Baina non aurkitu duzu hau, Filip Filipovitx? —galdetu zuen emakumeak, irribarrez, azeri-laruzko eta orban urdinxkekiko beroki arre-belzkara astuna erantzten laguntzen zion bitartean Jainkoarren! Hori hazteria duena!

— Txorakeriak esaten ari zara. Non du hazteriarik? —galdetu zuen jaunak, zorrotz eta zakar.

Berokia erantzitakoan, oihal ingelesezko traje beltz batez jantzirik agertu zen, eta urrezko kate batek dir-dir egin zion sabelaren parean, alaitsu eta motel.

— Egon geldi apur batean, ez mugitu, fiu... Ez mugitzeko, kokolo hori! Ea! Hau ez da hazteria... Baina hago geldi, mila deabru!... Jum! A, a! Hau erredura da. Zein gizatxarrek erre hau ur irakinaz? E? Egon geldi, baina!...

«Sukaldari batek, sukaldari zital batek», erantzun zuen txakurrak, begiak kexati, eta intziri egin zuen.

— Zina —agindu zuen jaunak eraman ezazu oraintxe bertan azterketa-gelara eta ekar ezazu nire mantala.

Emakumeak txistu egin zuen, hatzak klaskatu zituen, eta txakurra, une batez zalantzan egon, eta haren atzetik joan zen. Korridore estu eta argi ahuleko batean aurrera joan ziren biak; ate bernizatu bat igaro, amaierara iritsi, ezkerretara jo, eta gelatxo ilun batean sartu ziren. Gelatxoa bertatik gertatu zitzaion desatsegina txakurrari, hango usain gaitz-iragarlea zela eta. Klik sor bat entzun, eta iluntasuna egun itsugarri bihurtu zen, inguru guztia argitsu, distiratsu eta zuri agertu baitzen bat-batean.

«A, ez... —esan zuen txakurrak bere artean, intzirika barkatu, baina ez dut amore emango! Orain ulertu diat, deabruak eraman ditzala haiek eta haien hestebetea! Txakurrentzako klinika batera ekarri naitek amarruz. Orain errizino-olioa edanaraziko zidatek eta saihets guztia ebakiko



zidatek labanarekin, noiz eta orain, ukitu ere ezin denean!»

— E, ez, nora hoa?! —egin zuen oihu Zina esaten zioten hark.

Txakurrak izkintxo egin zion; uzkurtu, ustekabean jauzi egin, eta hain gogor jo zuen atea saihets onarekin, ezen danbatekoak burrunba egin baitzuen etxebizitza osoan. Gero, atzeraka erori, sokatxoak dantza eraginiko zibaren antzerira jirabiraka hasi, eta ontzi zuri bat bota zuen lurrera, eta ontziko kotoi-puskak hegan barreiatu ziren inguru guztian. Biraka ibili zen bitartean, hormak, tresna distiratsuz beteriko armairuak, mantal zuria eta emakumearen aurpegi itxuragabetua hegan eta jauzika aritu ziren haren inguruan.

— Nora hoa, deabru txima-jario hori? —egin zuen oihu Zinak, sutsuki Demonio madarikatua!

«Non dago zerbitzarien eskailera?...», pentsatu zuen txakurrak. Abiada hartu eta, bola bat eginik, beirate baten kontra jauzi egin zuen itsumustuan, hura alboko atea izango zelako ustean. Beira-puskatxo mordo bat indarrez barreiatu zen, zarataka eta txistuka; flasko zapal

bat lurrera erori, eta barruan zeukan zikinkeria gorrixkak zorua zikindu eta kirats nazkagarria hedatu zuen berehala. Benetako atea alderik alde ireki zen.

— Geldi, as-astakilo hori —egin zuen garrasi jaunak, mantalaren mahuka bat bakarrik jantzirik zeukala eta txakurrari hanketatik helduz Zina, eutsi lepotik piztitxar honi!

— Ja... Jainkoarren, hau txakurra!

Are zabalago ireki zen atea, eta mantalez jantziriko beste gizonezko bat sartu zen, oldarrean. Beira hautsiak zapalduz, txakurrarenganantz joan beharrean, armairura jo zuen, ireki, eta usain gozoegi eta okagarri batez bete zen gela osoa. Gero, irmo eseri zen txakurraren sabelaren gainean, eta txakurrak gogoz egin zion hozka botako lokarrietatik goraxeago. Gizonak garrasi egin zuen, baina ez zen kikildu. Isurkari higuingarriak arnasa eten zion txakurrari, eta zorabiatu egin zitzaion burua; gero, hankak ahuldu, eta nora ezean joan zen, okerka eta zabuka. «Eskerrik asko, aski duk —pentsatu zuen, erdi lo, beira zorrotzen gainean etzaten zen bitartean Agur, Mosku! Ez ditiat berriro iku-

siko Txitxkin eta proletarioak eta Krakoviako hestebetea. Paradisura noak, nire etsi onagatik. Borrero maiteok, zergatik egiten didazue hau?»

Eta, hori esanik, saihetsaren gainera abaildu eta bertan akabatu zen.

\* \* \*

Berpiztu zenean, zorabio arin bat zuen buruan eta goragale txikiak sabelean, baina saihetsa gozo-gozo mutu zegoen, saihetsik ez balu bezala. Txakurrak erdi ireki zuen bere eskuin begi iluna eta haren ertzetik ikusi zuen saihetsak eta sabela lotailuz estu bildurik zeuzkala. «Azkenean, hondatu egin naitek putakume horiek —pentsatu zuen lausoki baina, hori bai, trebetasun handiz egin dutela aitortu behar.»

— «Sevillatik Granadara... gau iluneko isiltasunean» —hasi zen abesten haren gainean ahots laxo eta zakar bat.

Harritu egin zen txakurra, zabal-zabal ireki zituen begiak eta bi urratsera gizonezko baten zangoa ikusi zuen aulki zuri batean. Galtza eta galtzazpia belauneraino jasorik zeuden, eta

berna biluzi horixka odollehorez eta iodoz zikin-  
durik ageri zen.

«Ene Jainkoa! —pentsatu zuen txakurrak horrek esan nahi dik hozka egin diodala. Nik egina duk hori. Jipoi ederra emango zidatek orain!»

— «Durundi egiten dute serenatek, durundi ezpata-ukaldiek!» Zergatik egin diok hozka dok-toreari, arlote horrek? E? Zergatik puskatu duk beira? E?

— Uuuu —hasi zen intzirika txakurra, errukarri.

— Ederki, heure senera etorri haiz, gera hadi hor etzanik, inozo hori.

— Baina nola lortu duzu, Filip Filipovitx, hain txakur urduria honaino ekartzea? —galdetu zuen gizonezko baten ahots atseginak, eta artilezko galtzazpia behera jaitsi zen. Tabako-usaina aditu zen, eta flaskoek tintin egin zuten armairuan.

— Laztanekin. Izaki bizidunak tratatzeko dagoen modu bakarrarekin. Izuaren bidez ez dago ezer lortzerik animaliangandik, haien bila-kaera-maila edozein dela ere. Egiatzatu egin dut hori, egiatzatu egiten dut eta egiatzatu egingo

dut. Haiek arrazoirik gabe uste dute izuak lagundu egingo diela. Bada, ez, ez, ez die lagunduko, zuria, gorria zein gaztainkara izanik ere! Izuak erabat geldiarazten du nerbio-sistema. Zina! Krakoviako hestebetea erosi diot alproja honi, errublo bat eta berrogei kopek. Mesedez, goragaleak joaten zaizkionean, emaiozu jaten.

Beira-puskek karraska egin zuten erratzaren azpian, eta emakume-ahots batek limurkeriaz esan zuen:

— Krakoviakoa! Jainkoaren izenean, hogeit hamar kopeken haragi-hondakinak erosi behar zenizkion. Krakoviako hestebetea hobe nik jaten badut.

— Etzazula dastatu ere egin! Pozoi hutsa da giza urdailarentzat. Neska heldua zara, eta edozein txerrikeria hartzen duzu ahoan, haur txikiak bezala. Kontuz, gero! Jakinaren gainean jartzen zaitut: ez ni ez Bormental doktorea ez gara zutaz arduratuko urdailetik gaixotzen zarenean... «Beste emakume bat hemen zure berdina izan daitekeela uste duten horiek...»

Bitartean, txirrin-hots ahul etenak entzuten ziren etxebizitza osoan, eta han urrun, harrera-

gelan, ahotsak aditzen ziren etengabe. Telefonoak behin eta berriro jotzen zuen. Zina desagertu egin zen.

Filip Filipovitxek, zigarretaren mutxikina ontzi batera bota, mantalaren botoiak lotu, hormako ispilutxoaren aurrean bere bibote leuna txukundu, eta txakurrari deitu zion:

— Fiu, fiu. Ea, lasai, lasai. Goazen pazienteengana.

Txakurra zutik jarri zen bere hanka koloken gainean, aldaroka eta dardaraka ibili zen apur batean, baina berehala suspertu eta Filip Filipovitxen mantal-barren kulunkarien atzetik joan zen. Berriro igaro zuen txakurrak korridore estua, baina orain ikusi zuen leiho biribil batek dir-dir argiztaturik zegoela goitik. Ate bernizatu ireki zenean, langelan sartu zen Filip Filipovitxekin batera, eta hango altzarien apainak liluraturik utzi zuen txakurra. Dena zen distira han: distira bizia sabai modelatuaren azpian, distira bizia mahai gainean, distira bizia hormetan eta armairuko beiratean. Argitasunak langelako gauza ugariak biltzen zituen, guztien artean hontz izu-

garri handi bat nabarmentzen zela, horman adar batean jarririk.

— Etzan hadi —agindu zion Filip Filipovitxek.

Gelaren beste aldeko ate zizelkatua ireki, eta hozkatua sartu zen. Oso eder eta gazte ageri zen orain langelako argitasun bizian, bere kokots-bizar zorrotzarekin. Filip Filipovitxi orri bat eman, eta esan zuen:

— Lehengo hura...

Hori esanik, isilik joan zen, eta Filip Filipovitx, mantal-barrenak zabaldurik, idazmahai erraldoi baten aurrean eseri zen eta aire izugarri serio eta arduratsua hartu zuen bat-batean.

«Ez, hau ez duk klinika bat, beste nonbaitera ekarri naitek —pentsatu zuen txakurrak, nahasirik, eta tapiz dotore batean etzan zen larruzko diban astunaren alboan eta gero argituko diagu hontzarena.»

Emeki ireki zen atea, eta gelan sartu zenak hain harridura handia eragin zion txakurrari, ezen zaunka egin baitzuen, herabetasun handiz baina.

— Ixo! Hara, hara, ez duzu lehengo antzik batere, adiskidea.

Sartu berriak begirune eta aztoramendu handiz agurtu zuen Filip Filipovitx, buru-makurtua eginez.

— Ji, ji! Magoa eta aztia zara, profesorea — esan zuen, gogoia nahasirik.

— Erantz itzazu galtzak, adiskidea —agindu zion Filip Filipovitxek, eta zutik jarri zen.

«Jesukristoren izenean —pentsatu zuen txakurrak hau elementua!»

Elementuaren buruko ileak berde-berdeak ziren, eta tabako-kolore herdoilkara hartzen zuten garondoan; haren aurpegia zimurrez jositik zegoen, baina zurigorria zen, haur jaioberriena bezala. Ezkerreko zangoa ez zitzaion tolestean, herrestan eraman behar zuen tapizaren gainean; eskuinekoa, aldiz, jauzika ibiltzen zen, txo-txongilo baten zurezko hanka balitz bezala. Begi-itxurako harribitxi bat nabarmentzen zitzaion jaka ezinago dotorearen papar-hegal batean.

Txakurrari goragale guztiak joan zitzaizkion bat-batean, ikusminaren ikusminaz.

— Guau, guau!... —egin zuen zaunka, leunkiro.



— Ixilik egon hadi! Eta zer moduz loa, adiskidea?

— Je, je! Bakarrik gaude, profesorea? Ezin azalduzkoa da —ekin zion bisitariak, aztoraturik *Parole d'honneur*, 25 urtean behin ere ez zait horrelakorik gertatu —gizon xelebrea galtzetako botoiak askatzen hasi zen sinetsiezadazu, profesorea, neska biluzi saldoak ikusten ditut gauero. Guztiz liluraturik nago. Aztia zara, gero!

— Jum! —egin zuen Filip Filipovitxek, kezkatu-antzean, bisitariaren begi-ninia aztertzen zuen bitartean.

Hark, azkenean, botoiak menderatu eta galtza marradunak erantzi zituen. Sekula ikusi ez bezalako galtzazpi harrigarriak agertu ziren haien azpian. Kremakoloreak ziren, zetazko katu beltzak zeuzkaten brodaturik eta perfume-usaina zerien.

Txakurrak ezin izan zuen jasan katuen ikuskitzuna, eta hain modu izugarrian hasi zen zaunkakak, ezen gizon xelebrea jauzi txiki bat egin baitzuen.

— Ai!

— Astinaldi ederra emango diat! Ez beldurrik izan, ez du hozka egiten.

«Ez dut hozka egiten?», harritu zen txakurra.

Galtzetako sakelatik gutunazal txiki bat erori zen tapizaren gainera. Adats ugaria bildu gabe zeukan emakume eder baten irudia ageri zen gutunazalean. Gizon xebreak jauzi txiki bat egin zuen; makurtu, gutunazala jaso, eta gorri-gorri jarri zen.

— Dena dela, kontuz ibili —ohartarazi zion Filip Filipovitxek, bekokia zimurturik eta hatzarekin mehatxu eginez kontuz ibili, gero! Ez gehiegikeriarik egin!

— Ez dut gehi... —hasi zen gizon xeblea, zezelka eta urduri, arropak eranzten jarraitzen zuen bitartean saio moduan soilik egin dut, profesore maitea.

— Ondo da. Eta? Nolako emaitzak? —galdetu zuen, zorrotz, Filip Filipovitxek.

Gizon xebreak eskuari eragin zion, estasian liluraturik.

— Horrelakorik deus ez 25 urtean, profesorea, Jainkoaz zin egiten dizut. Azkenekoa 1899an izan zen, Parisen, rue de la Paixen.

— Eta zergatik berdatu zara?

Aurpegia goibeldu zitzaion bisitariari.

— Jirkost madarikatua! Ezin duzu imajinatu ere egin, profesorea, gizatxar horiek zer eman didaten tindagaiaren orde. Begira, begira —murduskatu zuen gizon xebreak, begiekin ispi-lua bilatuz Muturra apurtzea merezi dute! —gaineratu zuen amorru bizian Zer egingo dut orain, profesorea? —galdetu zuen, negar-doinuz.

— Mmm, bada, larru-arras moztu ilea.

— Baina, profesorea, zuri-zuria haziko zait berriro —kexatu zen bisitaria Gainera, piura horrekin ezingo nintzateke lanean agertu, eta badira hiru egun bulegoa zapaltzen ez dudala. Ai, profesorea, ilea ere gaztetzeko modua aurkituko bazenu!

— Aldian aldikoa, aldian aldikoa, lagun maitea —murmurikatu zuen Filip Filipovitxek.

Makurtu, eta pazientearen sabel biluzia aztertu zuen, begiak dirdirka.

— Ederki, ederki, behar bezala dago dena. Egia esan, neronek ere ez nuen hain emaitza onik espero. «Odola ugari, abestiak ugari»... Jantz zaitez, nire lagun maitea!

— «Emakume guztietan ederrenarena naiz ni...» —lagun egin zion pazienteak, zartaginaren zirti-zarta gogorarazten zuen ahots dardaratsu batez, eta, pozarren, janzten hasi zen. Janzkiak ondo antolatzen zituen bitartean, jauzi txikiak eginez eta perfume-usaina hedatuz, billete-sorta bat eman zion Filip Filipovitxi eta samurtasunez estutu zizkion bi eskuak.

— Bi astean ez duzu zertan etorririk —esan zion Filip Filipovitxek baina, mesedez, zentzuz jokatu.

— Profesorea! —esan zuen haren ahotsak ateaz bestaldetik, pozez zorutzen egon zaitez guztiz lasai —barretxo gozoa egin eta han desagertu zen.

Txirrinaren hots sorrak durundi egin zuen etxebizitzan; ate bernizatua ireki, hozkatua sartu, Filip Filipovitxi orritxo bat eman, eta esan zion:

— Urteak ez daude zuzen. 54-55 hor nonbait ditu. Bihotz-taupaden hotsa motel samarra da.

Hura desagertu, eta dama fris-fraskari batek ordeztu zuen. Kapela ozartasunez okerturik zeraman eta iduneko distiratsua zeukan lepo

zimet zimurtsuan. Poltsabeltz ikaragarriak zeuzkan begien azpian zintzilik, eta masailak panpinen ohi duten kolore gorrimin horretakoak zituen. Izugarri urduri zegoen.

— Andrea! Zenbat urte dituzu? —galdetu zion Filip Filipovitxek, oso zakar.

Izuturik, dama zurbil jarri zen geruza gorriminaren azpian.

— Nik, profesorea, zin egiten dizut... nolako drama dudan jakingo bazenu!

— Zenbat urte dituzu, andrea? —errepikatu zuen Filip Filipovitxek, are zakarrago.

— Nire ohoreaz zin egiten dizut... Zera, berrogeita bost...

— Andrea! —egin zuen garrasi Filip Filipovitxek zain daukat jendea. Ez berandutu, mesedez! Zu ez zara bakarra!

Bortizki puztu zen damaren bularra.

— Zuri bakarrik kontatuko dizut, zientzialari ospetsua zara eta. Baina, zinez diotsut, hain da izuga...

— Zenbat urte dituzu? —galdetu zuen Filip Filipovitxek, amorru biziz eta garrasika, eta betaurrekoek dir-dir egin zioten.

— Berrogeita hamaika! —erantzun zuen damak, beldurrez dardaraka.

— Erantz itzazu barruko galtzak, andrea —esan zuen Filip Filipovitsek, arindurik, eta bazter batean zegoen urkabe zuri bat seinalatu zion.

— Zin egiten dizut, profesorea —zioen damak marmar lasterrean, hatz dardaratiz gerrian halako botoi batzuk askatzen zituen bitartean Moritz hori... Aitortzen dizut, aitortzan bezala aitortzen dizut...

— «Sevillatik Granadara...» —hasi zen abesten Filip Filipovitx, laxoki, eta marmolezko konketaren pedala zapaldu zuen. Uraren hotsa entzun zen.

— Jainkoaz zin egiten dizut! —zioen damak, eta masailetan egiazko orbanak azaleratzen ari zitzaizkion alegiazkoen artean Badakit hau nire azken grinaldia dela. Baina hain da zitala bera! Oi, profesorea! Iruzur egiten du karta-jokoan, Mosku osoak daki hori. Neska jostunik zirtzilena ere ez du huts egiten. Izan ere, hain da deabruzki gaztea.

Marmarra eten gabe, damak farfailazko janzki zimurtu bat atera zuen gona zaratatsuaren azpitik.

Txakurrari erabat gandutu zitzaizkion begiak, eta azpikoz gora irauli zitzaion dena buruan.

«Zoazte deabruetara! —pentsatu zuen lausoki, burua hanken ganean jarririk eta lotsak logaleturik Eta ez nauk saiatuko hemen zer arraio gertatzen ari den ulertzen; saiaturik ere, ez nitek ezer ulertuko!»

Hots batek ernatu zuen, eta ikusi zuen Filip Filipovitxek halako hoditxo distiratsu batzuk bota zituela azpil batera.

Dama orbantsuak, eskuak bularraren kontra estutuz, itxaropentsu begiratzen zion Filip Filipovitxi. Hark serio zimurtu zuen bekokia, eta, mahaiaren aurrean eseririk, zerbait idazten hasi zen.

— Tximino baten obulutegiak jarriko dizkizut, andrea —jakinarazi zion, zorrotz begiratzen ziola.

— Ai, profesorea, ez da izango! Tximino bate-nak?

— Bai —erantzun zuen Filip Filipovitxek, tinko.

— Noiz egingo didazu ebakuntza? —galdetu zuen damak, zurbil eta ahots ahulez.

— «Sevillatik Granadara...» Mmmm... astelehenean. Goizetik egon behar duzu klinikan. Nire laguntzaileak prestatuko zaitu.

— Ai, ez dut klinikan nahi! Ezin liteke zure etxean, profesorea?

— Begira, etxean kasu larri-larrietan soilik egiten ditut ebakuntzak. Oso garesti aterako zaizu, 500 errublo.

— Ados nago, profesorea!

Berriz entzun zen uraren hotsa, kapela luma-duna airean higitu zen; gero, platera baino soilagoa zen buru ilegabe bat agertu zen eta Filip Filipovitx besarkatu zuen. Txakurra erdi lo zegoen, joanak zituen ordurako goragaleak, berotasunaz eta saihetseko minik ezaz gozitzen ari zen, zurrunga ere egin zuen eta amets atsegin baten zati bat ikustea lortu zuen: isatseko luma-sorta oso bat erauzi zion hontzari... Gero, ahots hunkitu batek orro egin zuen haren buruaren gainean.



— Ezagunegia naiz Moskun, profesorea. Zer egin dezaket?

— Jauna! —egin zuen oihu Filip Filipovitxek, haserre horrela ezin da! Menderatu egin behar duzu zeure burua. Zenbat urte ditu neskak?

— Hamalau, profesorea... Uler ezazu, albistea zabaltzen bada, nireak egin du. Zeregin batzuetarako atzerrira joateko mandatua jaso behar dut egunotan.

— Baina ni ez naiz legelaria, adiskidea... Tira, bi urte itxaron eta ezkon zaitez berarekin.

— Ezkundurik nago, profesorea.

— Ai ene, jaunak, jaunak!

Ateak irekitzen ziren, aurpegiak aldatzen ziren, tresnek hots egiten zuten armairuan, eta Filip Filipovitxek lan egiten zuen, atsedetik gabe.

«Hau etxezulo zantarra —pentsatzen zuen txakurrak baina zein ondo egoten den! Zer arraiotarako behar nau, ordea? Bizirik utziko nau? Bai gizon bitxia! Begi-keinu bat egin, eta besterik gabe bereganatuko likek edonor liluratzeko moduko txakur paregabe bat! Tira, agian, ni ere txakur polita nauk. Argi zegok zori ona

izan dudala! Baina hontz zikin hori... Lotsagabea halakoa!»

Txakurra arratsalde beranduan iratzarri zen erabat, txirrin-hotsak amaitu zirenean eta, hain zuzen ere, atea bisitari berezi batzuei sartzen utzi zien une berean. Lau ziren. Gazteak denak eta oso xume jantziak denak.

«Zer nahi dute hauek?», pentsatu zuen txakurrak, harriturik. Askoz etsaitasun handiagoz hartu zituen bisitariak Filip Filipovitxek. Zutik zegoen idazmahaiaren alboan, eta gudalburuak arerioei bezala begiratzen zien sartu berriei. Behin eta berriro puzten zitzaizkion bere aztore-sudurreko zuloak. Sartu berriak batera eta bestera zebiltzan tapizaren gainean.

— Profesorea —ekin zion haietako batek, zeinari gutxienez lau arshin garai zen adats guztiz ugari eta kizkur bat nabarmentzen baitzitzaion buruan zera dela eta etorri gara zurera...

— Jaunok, zuen aldetik ez da batere zuhurra eguraldi honekin eskalapoirik gabe ibiltzea — eten zion Filip Filipovitxek, aholkulari lehenik, hotza harrapatuko duzue, eta bigarrenik, tapizak

zikindu dizkidazue zapatekin, eta nire tapiz guztiak Pertiakoak dira.

Isilik geratu zen adats luzeduna, eta tinko begiratu zioten laurak Filip Filipovitxi, txunditurik. Isiluneak zenbait segundo iraun zuen, eta mahai gainean zegoen zurezko plater margotu bat hatzekin atabalatzean Filip Filipovitxek atera zuen zaratak soilik hautsi zuen.

— Lehenengo eta behin, gu ez gara jaunak — esan zuen, azkenean, lauretan gazteenak, zeinak mertxika-itxura baitzuen.

— Lehenengo eta behin —moztu zion hari ere Filip Filipovitxek zu gizona ala emakumezkoa zara?

Isilik geratu ziren berriz ere laurak, eta ahoa ireki zuten. Oraingoan, adats luzekoa izan zen bere senera bihurtzen lehena.

— Zer axola du horrek, tobaritxa? —galdetu zuen, harro.

— Emakumezkoa naiz —aitortu zuen mertxika-itxurako gazteak, zeinak larruzko jaka bat baitzeukan jantzirik, eta gorri-gorri jarri zen. Haren ondotik, batek daki zergatik, sartu berrietako beste batek ere kolore gorri bizia hartu

zuen. Ilehoria zen eta larruzko txano kaukasoar garai bat zeraman buruan.

— Orduan, zu kapela jantzirik geratu ahal zara; baina zuri, jaun agurgarria, mesedez eskatzen dizut buru-estalkia kentzeko —esan zuen Filip Filipovitxek seriotasun handiz.

— Ni ez naiz inondik inora ere jaun agurgarria —esan zuen, zakar, ilehoriak, txano kaukasoarra kentzen zuen bitartean.

— Gu zurera etorri gara... —hasi zen berriro adats luzeko beltzarana.

— Lehenengo eta behin, nor da gu hori?

— Gu etxe honetako administrazio-batzorde berria gara —esan zuen beltzaranak, barnean eutsiriko amorruz Ni Shvonder naiz, emakume hau Viazemskaia da, hori Pestrukhin tobaritxa eta hori Jarovkin. Eta gu...

— Zuek zarete Fiodor Pavlovitx Sablinen etxebizitzan kokatu direnak?

— Bai, gu gara —erantzun zuen Shvonderrek.

— Jainko maitea, akabo Kalabukhov etxea! —egin zuen oihu Filip Filipovitxek, etsia harturik, eta espantuz elkartu zituen eskuak.

— Zergatik egiten duzu barre, profesorea? —  
sutu zen Shvonder.

— Barre? Nik ez dut barrerik egiten! Etsi-etsirik nago —egin zuen garrasi Filip Filipovitxek zer gertatuko da orain lurrun-berogailuarekin?

— Guri adarra jotzen ari zara, Preobrajenski profesorea?

— Zertarako etorri zarete niregana? Hitz egin ezazue ahalik eta arinen, bazkaltzera joan behar dut eta.

— Etxeko zuzendaritza-batzordea gara —esan zuen Shvonderrek, gorrotoz etxe honetako biztanleen biltzar nagusiaren ondotik etorri gara zuregana, biltzarrean etxeko gelen banaketa ukitu dugu...

— Nork ukitu du nor? —egin zuen oihu Filip Filipovitxek Mesedez, saia zaitetz zure ideiak argiago azaltzen.

— Gela-banaketaren arazoa aztertu dugu.

— Aski da! Ulertu dut! Dakizuenez, joan den abuztuaren 12ko aginduak gela-banaketa orotatik zein bizilagun gehiago hartzetik salbuetsi du nire etxebizitza.

— Bai, badakigu —erantzun zuen Shvondere-  
rrek baina biltzar nagusiak, zure arazoa aztertu-  
rik, oro har etxebizitza handiegia duzula ondo-  
rriotatu du. Guztiz handiegia. Bakarrik bizi zara  
zazpi gelatan.

— Bakarrik bizi eta lan egiten dut zazpi gela-  
tan —erantzun zuen Filip Filipovitxek eta zortzi-  
garren bat nahi nuke. Ezinbestekoa dut, liburute-  
girako.

Mutu gelditu zen laukotea.

— Zortzigarren bat! E, je, je —esan zuen ile-  
horiak, buru-estalkia erantzirik hau da hau!

— Hau gehiegizkoa da! —egin zuen oihu bere  
burua emakumezkotzat aurkeztu zuen gazteak.

— Harrera-gela daukat, eta kontuan izan libu-  
rutegi ere badela, jangela, nire langela, 3. Azter-  
keta-gela, 4. Operazio-gela, 5. Nire logela, 6, eta  
neskamearen gela, 7. Guztira, ez da nahikoa...  
Baina, dena dela, horrek ez du garrantzirik. Nire  
etxebizitza salbuetsirik dago, eta amaitu da  
elkarrizketa. Joan naiteke bazkaltzera?

— Barka iezadazu —esan zuen laugarrenak,  
zeinak kakalardo sendo baten antza baitzuen.

— Barka iezadazu —eten zion Shvonderrek hain zuzen ere, jangelaz eta azterketa-gelaz hitz egitera etorri gara. Biltzar nagusiak eskatzen dizu jangelari uko egiteko, onez onean, langileon diziplinak agintzen duen bezala. Moskun inork ez du jangelarik.

— Ezta Isadora Duncanek ere —gaineratu zuen emakumeak, ozenki.

Zer edo zer gertatu zitzaion Filip Filipovitxi, zerbaiten eraginez haren aurpegiak kolore gorrixka hartu zuen, eta ez zuen txintik ere atera, hurrena zer jazoko zain.

— Eta uko egin behar diozu azterketa-gelari ere —jarraitu zuen Shvonderrek langela ederki asko erabil daiteke azterketa-gela gisa.

— Bai —esan zuen Filip Filipovitxek, halako ahots bitxi batez eta non jango dut?

— Logelan —erantzun zuten laurek batera.

Filip Filipovitxen gorritasunak tonu doi bat grisaxka hartu zuen.

— Logelan jan —ekin zion Filip Filipovitxek, ahotsa ito samarturik azterketa-gelan irakurri, harrera-gelan jantzi, ebakuntzak neskamearen gelan egin, eta pazienteak jangelan aztertu. Oso

litekeena da Isadora Duncanek hala egitea. Beharbada, berak jangelan jaten du, eta bainu-gelan zatikatzen ditu untxiak. Beharbada. Baina ni ez naiz Isadora Duncan! —egin zuen garrasi bat-batean, eta gorritasuna horitasun bihurtu zitzaion Nik jangelan jango dut, operazio-gelan egingo ditut ebakuntzak! Jakinaraz iezaiozue hori biltzar nagusiari, eta apaltasun handiz eskatzen dizuet zeuen zereginetara itzultzeko, eta niri utzi jaten jende normal guztiak jaten duen lekuan, hau da, jangelan, eta ez harrera-gelan edo umeen gelan.

— Orduan, profesorea, egoskorkeria tematsu hori ikusirik —esan zuen Shvonderrek, ernegaturik zure kontrako kexa bat jarriko dugu goi-mailako instantzietan.

— A, bai? —esan zuen Filip Filipovitxek hori egingo duzue? —eta haren ahotsak doinu susmagarriro adeitsua hartu zuen itxaron apur batean, arren.

«Hau gizona hau! —pentsatu zuen txakurrak, gogoia beroturik Nire berdin-berdina. Oi, ederrak emango zizkiek orain, ederrak emango zizkiek! Oraindik ez zekiat nola, baina ederrak emango



zizkiek. Ekin gogor! Oraintxe bertan helduko nio-  
kek hanka-luze horri belaunpeko gihar-zainetik,  
bota baino gorago... grrr, grrr, grrr...»

Filip Filipovitxek, kolpe gogor bat emanik,  
telefonoaren mintzagailua hartu eta honela esan  
zuen:

— Mesedez... bai... eskerrik asko... Piotr Alek-  
sandrovitxekin hitz egin nahi dut, mesedez.  
Preobrajenski profesorea. Piotr Aleksandrovitx?  
Pozten naiz zu aurkitzeaz. Eskerrik asko, osasu-  
nez ondo. Piotr Aleksandrovitx, ez dugu egingo  
zure ebakuntza. Zer? Guztiz ezinezkoa da. Gai-  
nerako ebakuntza guztiak bezalaxe. Hona arra-  
zoia: Moskun lan egiteari utziko diot, Moskun eta  
Errusia osoan... Lau gazte etorri berri zaizkit  
etxera, haietako bat emakumezkoa da, gizon-  
jantzian, eta bik errebolberrak dauzkate, eta  
izua sartu didate hemenxe bertan, nire etxebizi-  
tzaren zati bat indarrez kentzeko asmoz.

— Baina, baina, profesorea... —hasi zen  
Shvonder, aurpegiera mudatzen zitzaiola.

— Barkatu... Ezin dizut errepikatu esan dida-  
ten guztia. Ni ez naiz zentzugabekerien zale.  
Aski da esatea nire azterketa-gelari uko egitea

proposatu didatela, edo, beste hitz batzuekin esanik, zure ebakuntza orain arte untxiak zatikatzeko erabiltzen nuen lekuan egitea beste aukerarik ez didatela uzten. Ezinezkoa zait egoera horretan lan egitea, eta, gainera, ez dut horretarako baimenik. Horregatik, nire lanbidea bertan behera utzi, etxebizitza itxi, eta Sotxira joango naiz. Shvonderri eman ahal diot giltza. Egin ditzala berak ebakuntzak!

Harri eta zur zeuden laurak. Botetako elurra urtzen ari zitzaien.

— Zer egingo diogu!... Niretzat ere ez da batere atsegina... Nola? O, ez, Piotr Aleksandrovitx! O, ez. Ezin dut gehiago jasan egoera hau. Agortu da nire pazientzia guztia. Abuztuaz geroztik, bigarren aldia da hau gertatzen zaidala. Nola? Mmmm... Nahi duzun bezala. Hala biz. Baina baldintza batekin bakarrik: berdin dit nork, noiz eta nola egiten duen, baina agiri horrek nire etxebizitzako atera hurbiltzea ere galarazi behar die Shvonderri eta beste edonori. Behin betiko agiria izan behar du. Eraginkorra. Benetakoa! Blindatua. Nire izena aipatu ere egin ez dezaten. Bai horixe! Desagertu naiz haientzat. Bai, bai.

Mesedez. Nork? A... Ondo, hori besterik da. A... Ondo da. Oraintxe bertan emango diot mintzagailua. Mesedez —esan zion, ahots maltzurrez, Filip Filipovitxek Shvonderri orain zurekin hitz egingo dute.

— Baina, profesorea —esan zuen Shvonderrek, noiz gorrituz, noiz zurbilduz aldrebestu egin dituzu gure hitzak.

— Mesedez eskatzen dizut horrelako esapiderik ez erabiltzeko.

Shvonderrek, harriturik mintzagailua hartu, eta esan zuen:

— Bai, esan. Bai... Etxeko batzordeko lehen-dakaria... Baina guk araudiak agintzen duen bezala jokatu dugu... Bai, profesorearen kasua guztiz berezia da... Badakigu haren lanen berri... Bost gela uzteko asmoa genuen... Bai, ondo da... Hala bada... Ondo...

Zeharo gorriturik, mintzagailua eseki eta atzera jiratu zen.

«Nola apaldu duen! Hau bai gizona! —pentsatu zuen txakurrak, liluraturik Hitz magikoak al dakizki? Bueno, orain jo ahal nauzue, nahi

duzuen bezala, baina nik ez diat hemendik alde egingo.»

Beste hirurak, aho zabalik, Shvonder apalduari begira zeuden.

— Hau iraingarria da —esan zuen Shvonderrek, herabetasunez.

— Eztabaidatzeko aukerarik egon balitz —hasi zen emakumea, sutan eta gorriturik Piotr Aleksandrovitxi frogatuko nion...

— Barkamena eskatzen dizuet. Nahi duzue oraintxe bertan hasi eztabaida hori? —galdetu zuen Filip Filipovitxek, gizalegez.

Begiak txinpartaka hasi zitzaizkion emakumeari.

— Ulertzen dut zure ironia, profesorea, oraintxe joango gara... Baina nik, etxeko kultur batzordeko lehendakaria naizen aldetik...

— Lehendakari an-dre-a —zuzendu zion Filip Filipovitxek.

— Proposatuta nahi dizut —eta aldizkari deigarri eta elurrak hezetu batzuk atera zituen kolkoetik emakumeak aldizkari batzuk erostea Alemaniako hurrei laguntzeko. Berrogeita hamar kopek balio du bakoitzak.

— Ez, ez dizut erosiko —erantzun zuen Filip Filipovitxek, labur, begi-ertzetik aldizkariei begira.

Harridura erabatekoa agertu zen aurpegi guztietan, eta emakumeak halako kolore morexka bat hartu zuen.

— Zergatik ez?

— Ez dut nahi.

— Ez dituzu erruki Alemaniako haurrak?

— Erruki ditut.

— Berrogeita hamar kopek aurreztu nahi dituzu?

— Ez.

— Orduan, zergatik?

— Ez dut nahi.

Isildu egin ziren.

— Badakizu, profesorea? —esan zuen neska, asperen sakona eginik European ospe handia ez bazenu eta inolako zalantzarik gabe egunen batean agerian jarriko ditugun pertsona horiek (ilehoriak jakaren ertzetik tira egin zion, baina neska eskutik jaregin zitzaion) hain modu sumingarrian babestuko ez bazintuzte, atxilo hartuko zintuzkegu.

— Zergatik? —galdetu zuen Filip Filipovitxek, jakin-minez.

— Proletarioen etsai zara! —esan zuen emakumeak, harrokeriaz.

— Bai, nik ez ditut gogoko proletarioak —onartu zuen Filip Filipovitxek, tristuraz, eta botoi bat sakatu zuen. Txirrinaren hotsa entzun zen nonbait. Korridoreko atea ireki zen.

— Zina —egin zuen oihu Filip Filipovitxek zerbitzatu bazkaria. Zuen baimenarekin, jaun-andreok!

Isilik irten ziren laurak langelatik, isilik zeharkatu zuten harrera-gela, eta entzun zen nola sarrera nagusiko atea astun eta zaratatsu itxi zen haien atzean.

Txakurra atzeko hanken gainean altxatu zen eta musulmanen otoitzaren antzeko zerbait antzeztu zuen Filip Filipovitxen aurrean.

### III

Ertzinguru beltz zabaleko plater lore paradisutarrez margotuetan izokin-xerra meheak eta aingira marinatuak zeuden. Zurezko erretilu astun batean gazta-zati ebaki berri bat, eta zilarezko ontzi batean, elurrez inguraturik, kabiarra. Plateren artean kopatxo finak eta kristalezko hiru pitxer txiki kolore desberdineko vodkez beteak. Gauza horiek guztiak haritz-zurezko arasa erraldoi baten aldamenean eroso kokaturiko marmolezko mahaitxo txiki batean zeuden, eta arasatik kristalaren zein zilarraren argi-distirak irteten ziren. Gelaren erdian, mahai handi bat, hilobi bat bezalako astuna, zamau zuri batez estalia, eta, zamauaren gainean, jateko bi tresna-sorta, ezpain-zapiak, aita santuaren tiararen antzera tolesturik, eta hiru botilatxo ilun.

Zinak zilarrezko azpil estali bat ekarri zuen, zeinaren barruan marraka ari baitzen zerbait. Hain usain gozoa hedatzen zuen azpilak, ezen txakurrari ahoa ur bihurtu baitzitzaien berehala. «Semiramisen lorategiak!», pentsatu zuen, eta

zoruko parketa jotzen hasi zen buztanarekin, makila balu bezala.

— Ekar itzazu hona —agindu zuen Filip Filipovitxek, harrapari baten goseminez Bormental doktorea, mesedez, utzi bakean kabiarra. Eta, aholku on bat nahi baduzu, ez edan vodka ingelesa, Errusiako arrunta baizik.

Hozkatu lirainak —erantzia zuen mantala eta janzki beltz egoki bat zeukan orain soinean bere sorbalda zabalak uzurtu, gizalegez irribarre egin, eta vodka gardena isuri zuen bere kopara.

— Novoblagoslovenia? —galdetu zuen.

— Jainkoak gorde gaitzala, adiskidea! —erantzun zuen etxeko jaunak Hau alkohola da, Daria Petrovna vodka bikaina egiten du etxean.

— Ez esan hori, Filip Filipovitx, mundu guztia-  
ren ustez, oso ona da vodka hori, 30 gradu ditu.

— Bai, baina, lehenik eta behin, vodka 40 gradu izan behar ditu, ez 30 —eten zion Filip Filipovitxek, aditu baten ganoraz eta, bigarrenik, batek daki zer botatzen dioten. Zuk badakizu zer bururatu ahal zaien horiei?

— Edozer —esan zuen hozkatuak, ziurtasunez.



— Bat nator zurekin —gaineratu zuen Filip Filipovitxek, eta arnasa batean hustu zuen ezarrarian bere koparen edukia ...mmm... Bormental doktorea, mesedez, dasta ezazu oraintxe bertan jakitxo hau, eta esaten badidazu ez dela... zure etsai amorratua izango naiz bizitza osoan. Sevilatik Granadara...

Hori esateaz batera, ogitxo ilun baten antzeko zerbait hartu zuen atzapar-itxurako sardexka zilarrezkoarekin. Hozkatuak ere halaxe egin zuen. Filip Filipovitxen begiak ñirñirka hasi ziren.

— Txarra da hau? —galdetu zuen Filip Filipovitxek, mastekatzen zuen bitartean Txarra? Erantzun ezazu, doktore agurgarria.

— Paregabea da —erantzun zuen hozkatuak, egiazale.

— Bai horixe... Kontuan izan, Ivan Arnoldovitx, boltxebikeek oraindik lepoa moztu ez dieten lurjabeek soilik jaten dituztela zizka-mizka hotzak eta zopa. Bere buruari begirune apur bat dion edonork zizka-mizka beroei ekiten die. Eta Moskuko zizka-mizka bero guztien artean, hau da onena. Garai batean, ezin hobeto prestatzen zuten Azoka Eslaviarrean. Hartu, hartu!

— Txakurra jangelan jatera ohitzen baduzu — entzun zen emakumearen ahotsa gero ez da egongo hemendik ateratzeko modurik.

— Ez du axolarik. Jan zaharra da gaixoa. — Filip Filipovitxek sardexkaren muturrean zeukan zizka-mizka eman zion txakurrari, zeinak zalutasun miragarritz hartu baitzuen, eta gero ur-ontzira jaurti zuen sardexka, zarata handiz.

Gero, karramarro-usaineko lurruna altxatu zen plateretatik; txakurra zamauaren itzalpean eseririk zegoen, bolbora-biltegia zaintzen ari den jagolearen antzera. Filip Filipovitx, ezpain-zapi zurrunaren muturra alkandora-lepoaren azpian sarturik, predikatzen hasi zen:

— Jatea, Ivan Arnoldovitx, ez da txantxetako kontua. Jakin egin behar da jaten, baina hara non jende gehienak inondik inora ere ez dakien jaten. Zer jan ez ezik, noiz eta nola jan ere jakin behar da. — Filip Filipovitxek koilarari eragin zion oso modu adierazkorrean Eta zertaz hitz egin jaten den bitartean. Bai. Zure digestioak arduratzen bazaitu, aintzat hartu nire aholku ona, otorduetan ez hitz egin boltxebismoaz edo medikun-

tzaz. Eta, Jainkoarren, jan aurretik ez irakurri egunkari sobietarrik.

— Jum... Besterik ez dago, ordea.

— Bada, ez irakurri ezer. Hara, 30 behaketa egin ditut nire klinikan. Eta badakizu zein izan den emaitza? Egunkaririk irakurtzen ez duten pazienteak ezin hobeto dabilta osasunez. *Pravda* irakurtzera berariaz behartzen nituenak, ordea, argaldu egiten ziren.

— Jum... —erantzun zuen hozkatuak interesez, zoparen eta ardoaren eraginez gorrixkatzen hasirik.

— Eta ez hori bakarrik. Belauneko erreflexuen moteltzea, jateko gogo urria, gogo-aldarte eroria.

— Mila deabru...

— Halaxe da. Baina zertan ari naiz, gero? Ni neu hasi ez naiz, bada, medikuntzaz hizketan!

Filip Filipovitxek, gorputzari atzera eraginik, txirrina jo zuen, eta Zina azaldu zen ate aurreko errezel gerezikolorean. Txakurrari gaiztakapuska margul eta gizen bat egokitu zitzaion, zeina ez baitzitzaion batere gustatu, eta haren ondo-ondotik roastbeef-xerra odoltsu bat. Hura

irentsi bezain laster, txakurrak bat-batean sumatu zuen logale zela eta ezin zuela janari gehiagorik ikusi. «Hau sentipen bitxia —pentsatu zuen, betazalak astun ixten zitzaizkiola nire begiek ez ditek inolako janaririk ikusi nahi. Eta bai ergelkeria galanta jan ondoren erretzeko ohitura hori.»

Jangela ke urdin gogaikarriz bete zen. Txakurra erdi lo zegoen, burua aurreko hanken gainean jarririk.

— Saint-Julien ardo bikaina da —entzun zuen txakurrak amets artean baina orain ez dago inon lortzerik.

Sabaiak eta tapizek itotako koral sor bat entzun zen nonbait, gelaren goiko aldean eta alboetan.

Filip Filipovitxek txirrina jo zuen, eta Zina etorri zen.

— Zinusha, zer esan nahi du horrek?

— Biltzar nagusia egin dute berriro ere, Filip Filipovitx —erantzun zuen Zinak.

— Berriro ere! —egin zuen oihu Filip Filipovitxek, atsekabeturik Oraingoan bai, akabo da Kalabukhov etxea, harenak egin du. Hemendik alde egin beharra dago, baina nora?, hori da ara-

zoa. Betikoa gertatuko da orain. Hasieran abes-  
tiak arratsaldero, gero kakalekuetako hodiak  
izoztuko dira, hurrena lurrun-berogailuaren gal-  
dara lehertuko da eta abar. Ez du erremediorik  
Kalabukhov etxeak.

— Nahigabeak jota dago Filip Filipovitx —  
ohartarazi zuen, irribarrez, Zinak, eta plater pila  
bat eraman zuen aldean.

— Nolatan ez naiz, bada, nahigabeak jota  
egongo? —egin zuen garrasi Filip Filipovitxek  
gogoan izan nolakoa zen lehen etxe hau!

— Ilunegi ikusten duzu dena, Filip Filipovitx —  
erantzun zuen hozkatu lirainak orain zeharo  
aldatu dira gauzak.

— Zuk ondo ezagutzen nauzu, adiskidea! Ez  
da hala? Ni gertaerazalea naiz, behaketazalea  
naiz. Hipotesi funsgabeen etsaia naiz. Eta hori  
oso ondo dakite ez bakarrik Errusian, baita Euro-  
pan ere. Zer edo zer esaten badut, gertaera jakin  
bat hartzen dut oinarritzat, eta hortik ateratzen  
ditut ondorioak. Eta hemen duzu gertaera jakin  
bat: gure etxeko beroki-kakoak eta eskalapoi  
gordetegia.

— Interesgarria da hori...

«Eskalapoiak, zozokeria handiagorik! Zoriona ez zegok eskalapoietan —pentsatu zuen txakur-rak baina, guztiarekin ere, ezagun dik izen handiko gizona dela.»

— Ondo baderitzozu, har dezagun adibideztat eskalapoien gordetegia. 1903 urteaz geroztik bizi naiz etxe honetan. Bada, 1917ko martxoa arte, denbora horretan guztian behin ere ez da gertatu, eta arkatz gorriz azpimarratzen dut *behin ere ez*, gure etxeko bebarrutik eskalapoi pare bat ere desagertzea, eta atea irekirik egoten zen ia beti. Kontuan izan 12 etxebizitza dau dela hemen, haietako bat nire klinika. 1917ko martxoko egun batean, eskalapoi guztiak desagertu ziren, besteak beste nire pare bi, hiru makila, berokia eta atezainaren samovarra. Eta orduz geroztik ez dago gehiago eskalapoi-gordetegirik. Adiskidea! Eta lurrun-berogailua aipatu ere ez dizut egingo. Aipatu ere ez. Nonbait, behin iraultza soziala eginik, ez dago zertan pizturik. Baina nik zera galdetzen dut: istorio hau guztia abiatu zenean, zergatik hasi ziren denak eskalapoiekin eta feltrozko bota zikinekin ibiltzen marmolezko eskaileretan gora eta behera?

Zergatik gorde behar dira orain eskalapoiak giltzapean? Eta zergatik jarri behar da soldadu bat zaindari inork lapur ez ditzan? Zergatik kendu dute eskailera nagusiko tapiza? Debekatu al du Karl Marxek eskaileretan tapizak edukitzea? Non edo non esan al du Karl Marxek Pretxistenka kaleko Kalabukhov etxeko 2. ataria oholez itxi behar dela eta zerbitzarien patiotik itzulingurua eginez sartu behar dela? Nork behar du hori? Zergatik proletarioek ez dituzte eskalapoiak behean uzten, zergatik zikintzen dute marmola?

— Baina, Filip Filipovitx, proletarioek ez dute eskalapoirik —adierazi zion hozkatuak.

— Ez zera! —erantzun zuen Filip Filipovitxek, trumoi-ahotsez, eta ardoz bete zuen edalontzia Mmm... ez ditut gomendatzen likoreak bazkaldu ondoren: digestioa astuntzen dute eta kalte egi-ten diote gibelari... Ez zera! Badute eskalapoirik, eta, gainera, eskalapoi horiek... nireak dira! Hain zuzen ere, 1917 urteko udaberrian desagertu ziren eskalapoi haiek berak dira. Nor izan zen lapurra, horixe jakin nahi nuke. Ni? Ezinezkoa da. Sablin burgesa? —Filip Filipovitxek sabai aldera jaso zuen hatza Barregarria da hori pentsatze

hutsa. Polozov, azukre-lantegiaren jabea? —Filip Filipovitxek albo batera seinlatu zuen Ez hurrik eman ere! Horko abeslari horiek lapurtu zituzten! Bai horixe! Tira, kontuak kontu, gaitz erdi eskaileran erantziko balituzte! —Filip Filipovitx gorritzen hasi zen Zer arraio dela eta kendu dituzte eskailera-buruetako loreak? Jainkoak oroimena gorde badit, argindarra bi aldiz baka-rrik joan da 20 urtean; zergatik orain hilean behin eteten da, hutsik egin gabe? Bormental doktorea, estatistika gauza ikaragarria da. Zuk, nire azken ikerlana ezagutzen duzunez, inork baino hobeto dakizu hori.

— Nahaspila, Filip Filipovitx.

— Ez —erantzun zuen Filip Filipovitxek, erabateko ziurtasunez ez. Zu zara, Ivan Arnoldovitx maitea, hitz hori erabili beharko ez lukeen lehe-na. Hori irudikeria da, kea, fikzioa. —Filip Filipovitxek guztiz zabaldu zituen bere hatz laburrak, eta dortoka-itxurako bi itzal higitzen hasi ziren zamauaren gainean Zer da zure nahaspila hori? Atso zahar makiladun bat? Beira guztiak hautsi eta lanpara guztiak itzali dituen sorgin bat? Hala-korik ez da munduan, ordea. Zure ustez, zein da



hitz horren esanahi ezkutua? —galdetu zion Filip Filipovitxek, amorru biziz, arasatik hurbil buruz behera esekirik zegoen kartoizko ahate zoritxarreko bati, eta berak erantzun zuen haren ordeztu Hauxe da kontua: ni, arratsaldero, ebakuntzak egin ordeztu, etxean beste lagun batzuekin batera abesten hasiko banintz, nahaspila nagusituko litzateke nire etxebizitzan. Ni, komunera joaten naizenean, eta barkatu hitz hauek erabiltzea, txiza komun-ontziaren alboan egiten hasiko banintz, eta Zinak eta Daria Petrovna ere hala egingo balute, nahaspila jabetuko litzateke komunaz. Beraz, nahaspila ez dago komunetan, buruetan baizik. Hau da, baritono horiek «behera nahaspila!» oihukatzen dutenean, nik barre egiten dut. —Hain bortizki okertu zen Filip Filipovitxen begitartea, ezen hozkatuak ahoa ireki baitzuen Zin egiten dizut, barregura ematen dit! Horrek esan nahi du haietako bakoitzak kokote-ko ederra eman behar diola bere buruari! Ameskeria horiek guztiak uxatu eta estalpeen garbitasunaz arduratzen direnean, hori baita haien zeregina, berez amaituko da nahaspila. Ez dago bi Jainkori zerbitzatzerik! Ezinezkoa da aldi

berean tranbien bideak eskobatzea eta espainiar zarpatsu batzuen patua erabakitzea! Inork ez luke lortuko hori, doktorea, eta are gutxiago aurrerabidean europarrengandik 200 urte atzean gelditu diren eta oraindik beren galtzeta-ko botoiak behar bezala lotzen ikasi ez duten batzuek!

Filip Filipovitx bere onetik irten zen. Behin eta berriro puzten zitzaizkion bere aztore-sudurreko zuloak. Bazkari oparoak indarberriturik, orro egi-ten zuen behialako profeten antzera, eta haren buruak zilarrak bezala distiratzen zuen.

Haren hitzak txakur lokartuaren gainera amil-tzen ziren, lurpeko burrunba sor baten antzera. Ametsetan, une batez agertzen zitzaizkion noiz hontza bere begi horixka ergelekin, noiz sukaldariaren mutur zitala txano zuri zikinaren azpian, noiz Filip Filipovitxen bibote harroa, lanparako argi elektriko biziak argiturik, noiz lera geldo kirrinkari batzuk, eta, bitartean, roastbeef-puska itxuragabea urdailean txegosten zitzaion, zukuetan igeri.

«Dirutza ederra irabaz lezakek mitinetan — amesten zuen, lausoki, txakurrak tratulari bikai-

na duk. Dena dela, dirudienez, diruz josirik zegok bestela ere.»

— Udaltzain bat! —egin zuen oihu Filip Filipovitxek Udaltzain bat!

«Gur, gur, gur!», halako burbuila batzuk lehertu ziren txakurraren burmuinean.

— Udaltzain bat! Hori eta bakarrik hori. Eta ez du batere axolarik aldean zer daraman, plaka ala kepi gorria. Udaltzain bat jarri pertsona bakoitzaren aldamenean, eta gure herritarren kantu-grinak baretzera behartu udaltzainok. Nahaspila esan duzu. Bada, nik zera diotsut, doktorea, abeslari horiek kate motzean lotu arte ezertxo ere ez dela hobera aldatuko ez gure etxean ez eta beste edozein etxetan ere! Beren kontzertu horiek bertan behera uzten dituzten bezain laster, berez eta besterik gabe hobetuko da egoera.

— Iraultzaren kontrako gauzak esaten ari zara, Filip Filipovitx —ohartarazi zion, txantxetan, hozkatuak Jainkoari nahi ez dakiola baten batek zuri entzutea.

— Ez dago inolako arriskurik —erantzun zuen Filip Filipovitxek, sutsuki Kontrairaultzarik ez.

Horra ezin jasan dudan beste hitz bat. Ez dago inola ere jakiterik zer ezkutatzen den haren azpian! Deabruak daki! Horregatik diot: nire hitzetan ez dago iraultzaren kontrako ezer. Zentzutasuna eta bizitzaren eskarmentua besterik ez dago.

Hori esanik, Filip Filipovitxek, ezpain-zapi distiratsu itxuratxartuaren muturra alkandora-lepoaren azpitik atera, eta, zimurturik, edalontzi ardo hustu gabearen alboan utzi zuen. Hozkatuak bertantxe zutitu eta eskerrak eman zizkion: «Merci».

— Egon apurtxo batean, doktorea! —geldiarazi zuen Filip Filipovitxek, galtzetako sakelatik billete-zorroa ateratzeaz batera. Begiak ñarrotu, billete batzuk zenbatu, eta hozkatuari luzatu zizkion, honela zioela Gaur 40 errublo irabazi dituzu, Ivan Arnoldovitx. Hartu, mesedez.

Txakurraren biktimak, gizalegez eskerrak eman, eta, gorrituz, jakako sakelan gorde zuen dirua.

— Gaur arratsaldean ez nauzu behar, Filip Filipovitx? —galdetu zuen.

— Ez, eskerrik asko, adiskidea. Gaur ez dugu ezer egingo. Lehenik, untxia hil egin da, eta bigarrenik, gaur *Aida* dago Bolshoin. Eta aspaldian ez dut entzun. Atsegin zait... Gogoan duzu? Duoa... Tari-ra-ri.

— Nondik ateratzen duzu horretarako astia, Filip Filipovitx? —galdetu zuen sendagileak, begirunez.

— Inorako presarik ez duenak edozertarako du astia —azaldu zion etxeko jaunak, esakuntsu jakina, neure zereginez arduratu beharrean, egun osoa bileraz bilera eta urretxindorraren antzera kantari emango banu, ez nuke ezertarako astirik izango.

Sakelan, errepika-erlojuak nota zerutiar batzuk jo zituen Filip Filipovitxen hatzen azpian.

— Zortziak dira... Bigarren ekitaldira iritsiko naiz... Lana banatzearen aldekoa nauzu. Bolshoin abes dezatela, eta nik ebakuntzak egingo ditut. Hala behar du. Eta inolako nahaspilarik ez... Dena dela, Ivan Arnoldovitx, zu erne egon: gorpu egoki bat agertu bezain laster, mahaitik isurkari fisiologikora zuzenean, eta hona ekarri.

— Ez kezkatu, Filip Filipovitx, anatomia pato-  
logiko sailekoek hala agindu didate.

— Ederto. Guk, bitartean, kaleko neurasteni-  
ko honen bilakaera aztertuko dugu. Ea orbain-  
tzen zaion saihetseko zauria.

«Nitaz arduratzen duk —pentsatu zuen txakur-  
ak oso gizon ona duk. Bazekiat nor den. Magoa duk, txakur-ipuinetako aztia... Ezinezkoa duk hau guztia ametsa izatea. Ala ametsetan nago? —Txakurak dar-dar egin zuen ametsetan Bat-batean esnatuko nauk... eta ezer ere ez. Ez zetaz jantziriko lanpararik, ez berotasunik, ez asetasunik. Berriro ere atari azpiko hutsarte, hotz gogorra, asfalto izoztua, gosea, gizatxak... Jantokia, elurra... Jainkoa, zein latza gertatuko zaidan!...»

Baina ez zen horrelakorik gertatu. Bereziki, atari azpiko hutsarte amesgaitzo baten antzera aienatu zen, eta ez zen berriro itzuli.

Egia esan, nahaspila ez zen hain handia. Hura gorabehera, egunean birritan leiho-hegalaren azpiko hauspo grisak lurrun bero-beroz betetzen ziren, eta beroa bafadaka zabaltzen zen etxebizitza osoan.

Argi eta garbi zegoen: txakurrari sari nagusia egokitu zitzaion txakurren loterian. Egunean bi aldiz gutxienez, Pretxistenkako jakintsuaren alderako esker oneko malkoz betetzen zitzaizkion begiak. Gainera, harrera-gelako armairuen arteko ispilu handiek txakur eder zoriontsu baten irudia islatzen zuten.

«Ederra nauk. Agian, ezkutuko txakur-printze ezezagun bat nauk —oldozten zuen txakurrak, mutur alaiz ispiluetako urruntasunean batera eta bestera zebilen txakur iletzu kafekoloreari begira Ziur asko, nire amonak bekatu egin zian Ternuako txakur batekin. Izan ere, orban zuri bat ikusten diat nire muturrean. Norena dut bestela? Filip Filipivotxek oso gustu ona dik, ez zian berekin eramango edozein kale-txakur.»

Aste betean, kolean goserik igaro zuen azken hilabete eta erdian adina jan zuen txakurrak. Kopuruari dagokionez bakarrik, jakina. Filip Filipovitxen etxeko janariaren kalitateaz hitz egin beharrik ere ez dago. Kontuan hartu gabe Daria Petrovnak 18 kopeken haragi-hondakin mordoa erosten zuela egunero Smolenski merkatuan, aski da aipatzea arratsaldeko 7etan jangelan

egiten zituzten otorduak, zeinetan, Zina xarman-taren protestak gorabehera, txakurra presente egoten baitzen. Otordu horietan Filip Filipovitxek behin betiko irabazi zuen jainko-titulua. Txakurra atzeko hanken gainean zutitzen zen eta kokx egiten zion jakan; txakurrak Filip Filipovitxen txirrin-jotzea ikasi zuen —bi hots ozen eten larde-riatsu eta ziztu bizian joaten zen harrera-gelara, zaunkaka ongi etorria egitera. Azeri-laruzko beroki arre-belzkara jantzirik sartzen zen, milioi-ka elur-bristadaz distiratsu, mandarinen, zigarro-en, perfumeen, limoien, bentzinaren, Kolonia uraren eta oihalaren usaina zeriola, eta haren ahotsak durundi egiten zuen bizitegi osoan, aginte-turuta baten antzera.

— Zergatik apurtu duk hontza, txerri horrek? Traba egiten zian? Galdetu diat ea traba egiten zian! Zergatik hautsi duk Metxnikov profesorea?

— Behin bakarrik bada ere, zigorraz jo behar-ko genuke, Filip Filipovitx —esan zuen Zinak, haserre—; bestela, zeharo gaiztotuko da. Begira zer egin duen zure eskalapoiekin.

— Ezin da inor jo —erantzun zuen Filip Filipovitxek gogoan gorde hori behin betiko. Gogatzea



da gizakiekin zein animaliekin jokatzeko bide bakarra. Okela eman diozu gaur?

— Jainkoarren, etxe osoa jan du. Horrelakorik galdetzea ere, Filip Filipovitz. Harriturik nago, ez dakit nola ez den oraindik lehertu.

— Jan dezala eta on degiola... Zer kalte egin dik hontzak, astakirten hori?

— Uuuu, uuuu! —egin zuen intziri txakurrak, losintxari, eta lurrean etzan zen, hankak zabaldurik.

Gero, oihuka, lepotik heldu eta herrestan eramane zuten harrera-gelatik langelara. Txakurrak ulu egiten zuen, hontzak erakusten zituen, tapi-zari heltzen zion, ipurtaldearen gainean zebilen, zirku bezala. Langelaren erdian, beirazko begiekiko hontza tapizaren gainean zetzan, sabela zarrastaturik, halako zatar gorri naftalina-usaineko batzuk kanpora atarata. Potret bat eroririk eta txiki-txiki eginik zegoen mahai gainean.

— Nahita ez dut jaso, etxekalte honen lana mirestekoa aukera izan dezazun —jakinarazi zion Zinak, atsekabeturik mahai gainera igo da bilau malapartatu hau! Eta isatsetik heldu dio! Konturatu naizerenako, zeharo txikitu du. Sar iezaiozu

muturra hontzaren barruan, Filip Filipovitx, behingoz ikas dezan gauzak ez direla hondatu behar.

Eta ulu-zalaparta ikaragarria hasi zen. Tapi-zari itsatsirik, arrastaka eraman zuten txakurra hontza zegoen lekura, eta barruan sartu zioten muturra. Txakurrak, bitartean, malko mingotsak isurtzen zituen eta honela zioen bere artean: «Jo nazazu, baina ez bidali etxetik».

— Bidal ezazu gaur bertan hontza disekatzai-learenera. Eta hemen dituzu 8 errublo eta 16 kopek tranbiarako, joan Miurrera eta lepoko on bat erosi, kate eta guzti.

Biharamunean, lepoko zabal distiratsu bat jarri zioten txakurrari. Hasieran, ispiluari begiratu zion lehen aldian, atsekabe handia hartu zuen; buztana hanken artean sartu eta bainuge-lara alde egin zuen, bere artean hausnartzen nola hautsiko zuen lepokoa kutxa edo tiradera baten laguntzaz. Baina berehala ohartu zen inozo hutsa zela. Zinak Obukhov kalezuloan paseatzera eraman zuen katez loturik. Txakurra preso baten antzera zihoan, lotsa-lotsa eginik, baina, Pretxistenkatik Kristoren tenplurainoko

bidean, ezin hobeto ulertu zuen zer esan nahi duen lepoko batek bizitzan. Amorruzko bekaizkeria igartzen zen kanean aurkitzen zituen txakur guztien begietan, eta, Miortvi kalezuloko kantoian, buztana mozturik zeukan kale-txakur luzanga batek «aristokraten zaborra» eta «morroi zikina» esan zion zaunkaz. Tranbiaren burdinbidea zeharkatzean, polizia batek atseginenez eta begirunez begiratu zion lepokoari, eta, etxera itzultzean, inoizko gauzarik harrigarriena gertatu zen: Fiodor atezainak bere eskuekin ireki zuen sarrera nagusiko atea eta sartzen utzi zion Shariki, aldi berean Zinari ohartarazten ziola:

— A ze txakur iletua eskuratu duen Filip Filipovitek! Eta izugarri lodi dago.

— Beharko!, sei lagunek beste jaten du eta — argitu zion Zinak, hotzak zurigorriturik eta ederturik.

«Lepokoa agiri-zorroaren berdin-berdina duk», pentsatu zuen txakurrak, zirtolari, eta, ipurtaldea ezker-eskuin kulunkatuz, solairu nagusira jo zuen, handikien antzera.

Behin lepokoaren balio zehatza ezaguturik, txakurrak lehen aldiz bisitatu zuen paradisuko

alderdi nagusia, Daria Petrovna sukaldariaren erresuma alegia, ordu arte zorrotz debekaturik eduki baitzuen hango sarrera. Etxebizitza osoak ez zuen Dariaren erresumaren laurdentxoia ere balio. Egun guztian sugarrak txinpartaka eta zirtaka aritzen ziren sutegi beltzean, zeinak lauza beiraztatuz jantzirik baitzeukan gainaldea. Pindarra zerion labeari. Daria Petrovnaren aurpegia betiereko jasan-behar latz baten eta irrika asegabe baten suak kiskaltzen ageri zen gar-zirimola gorrinen artean, koipez lustretsu eta distiratsu. Moda-modara orrazturik zegoen, ile argiak belarrien gainean bildurik eta saski-itxuran txirikordaturik garondoan, non 22 diamante faltsuk distiratzen baitzuten. Hormetan eltze urrekarak zeuden kakoetan esekirik, sukalde osoa usain gozoz beterik zegoen, borborka eta txistuka lapi-ko estalietan...

— Ospa hemendik! —esan zion Daria Petrovnak, garrasika Ospa hemendik, litxarrero arlote hori! Hi besterik ez nian behar hemen! Astinaldi ederra emango diat bertzunarekin!

— Zer duzu, baina? Zergatik ari zara zaunka? —txakurrak begi samurrez begiratu zion Zerga-

tik deitu didazu litxarrerora? Ez diozu erreparatu lepokoari? —eta saiheska sartu zen atetik, muturra aurreraturik.

Sharik txakurrak halako dohain sekretu bat zuen jendearen bihotza xarmatzeko. Bi egun geroago, saskien zokoaren alboan etzanik zegoen, Daria Petrovnak nola lan egiten zuen begira. Aizto estu zorrotz batez buruak eta hankatxoak mozten ari zitzaien ganga azpibeltz babesgabe batzuei; hori egindakoan, borrero amorratu baten antzera, mamia bereizi zuen hezurretatik, erraiak atera zizkien oiloei, eta zer edo zer bota zuen okela xehatzeko makina barrura. Sharik, bitartean, ganga azpibeltz baten burua txikitzen ari zen. Gero, esnetan bustiriko ogi-zatitxoak atera zituen Daria Petrovnak katilu batetik, ohol baten gainean okela-orez nahasi, hori guztia esnegainez estali, gatza eman, eta kroketak modelatu zituen oholean. Sutegia zartaka ari zen, sute batean bezala, eta zartagina, berriz, txirtxirka, pilpilka eta ziliportaka. Labearen ahoa trumoi-hotsez ireki zen, eta agerian utzi zuen barruko infernu ikaragarria, sugar zirtakari eta distiratsuz betea.

Ilunabarrean harrizko ahoa itzaltzen zen, errezel labur zurien gainetik Pretxistenkako gau ilun eta handientsua ikusten zen sukaldeko leihoan, izar-bakar. Sukaldeko zorua heze zegoen, eltzeek argi motel eta misterioitsu batez distirutzen zuten, suhiltzaile-txano bat zegoen mahai gainean. Sharik sutegi beroaren gainean etzanik zegoen, lehoia garaipen-arkuaren gailur-rean nola, eta, entzun-minez belarri bat jasorik, begiratzen zuen nola larruzko gerriko zabaleko gizon bibote-beltz barnebero batek Daria Petrovna besarkatzen zuen Zina eta Daria Petrovnaren gelako ate erdi irekiaz bestaldean. Daria Petrovnaren aurpegia jasan-beharrez eta irrika biziz erretzen zegoen, goitik beheraino, gorpu-antzeko sudur irinezatua izan ezik. Argi-zerrendatxo batek bibote beltzeko gizonaren potreta biltzen zuen, eta pazko-arrosa bat ikusten zen potretetan esekirik.

— Deabru bat bezala itsasten zara —murduskatu zuen Daria Petrovnak erditzalean utzi bakean! Zina oraintxe etorriko da. Zer gertatzen zaizu?, zu ere gaztetu zaituzte, ala?

— Nik ez dut horren beharrik —erantzun zuen bibote-beltzak, ahots erlatsez eta bere burua nekez menderaturik Hain zara zu beroa!

Gauean Pretxistenkako izarra errezel lodien atzean gordetzen zen, eta, Bolshoi antzokian *Aida* joketzen ez bazuten eta Errusia osoko kirurgia elkargoaren bilkurarik ez bazegoen, jainkoa langelan gelditzen zen besaulki sakonean eseririk. Sabaiko argia itzalirik zegoen. Mahai gaineko lanpara berdeak soilik argizatzen zuen gela. Sharik tapizean etzanik zegoen, ilunpean, eta, begirada baztertu gabe, hango lan ikaragarri begiratzen zien. Isurkari uher nazkagarri batez beteriko beirazko ontzi batzuen barruan giza burmuinak zeuden. Jainkoaren besoek, ukondoraino biluzik, gomazko eskularru gorrixkak zeuzkaten jantzirik, eta hatz labur labainak batera eta bestera mugitzen ziren burmuineko goraguneetan. Batzuetan, jainkoak aizto txiki distiratsu bat hartu eta astiro-astiro ebakitzen zituen garun hori malguak.

— Nilo sakratuaren ertzean —abesten zuen jainkoak ahots apalez, ezpainak hozkatuz eta Bolshoi antzokiko barrualde urrekara gogoan.

Ordu horietan, hodiak inoiz baino gehiago berotzen ziren. Beroa hodiedatik sabairaino igo eta gela osora hedatzen zen handik. Txakurraren larruan berpiztu egin zen azken arkakusoa, Filip Filipovitxek orraziaz oraindik kendu gabea baina jadanik kondenatua. Tapizek etxebizitzako hotsak itotzen zituzten. Eta gero sarrerako atea entzun zen, urrun.

«Zinka zinematografora joan duk —pentsatu zuen txakurrak baina, inondik ere, itzultzen denean, afaldu egingo diagu. Lepoa egingo nitek gaur txahal txuletak ditugula!»

\* \* \*

Egun izugarri hartan, Sharikek susmo txarra hartu zuen goiz-goizetik. Horren ondorioz, goibeltzen hasi zen bat-batean eta batere goserik gabe jan zuen gosaria —katilu erdi olo-ahi eta bezperako arkume-hezurtxo bat. Gogoilun, nora gabe ibili zen puska batean harrera-gelan barrena, eta intziri leunak egin zizkion han bere irudiari. Baina, arratsaldean Zinak bulebarrera paseatzera eraman zuenez geroztik, ohi bezala



igaro zen eguna. Egun hartan ez zegoen kontsultarik, zeren eta, jakina denez, astearteetan ez da kontsultarik egoten, eta jainkoa langelan eseririk zegoen, irudi koloretsuekiko liburu astun batzuk mahai gainean zabalduak zeuzkala. Bazkariaren zain zeuden. Txakurrak sukaldean zehatz-mehatz jakin zuenez, indioiloa zeukaten jaki nagusi, eta ideia horrek apur bat suspertu zuen. Korridoretik igarotzean, txakurrak entzun zuen nola telefonoak zakar eta ustekabeen jo zuen Filip Filipovitxen langelan. Filip Filipovitx, mintzagailua hartu, arretaz entzun, eta kilikatu egin zen bat-batean.

— Ederto —entzun zen haren ahotsa ekar ezazu oraintxe bertan, oraintxe bertan!

Urduri mugitzen hasi, txirrina jo, eta bazkaria berehala zerbitzatzeko agindu zion Zinari.

— Bazkaria! Bazkaria! Bazkaria!

Hori esan bezain laster, plateren zarata entzun zen jangelan, Zina hara eta hona lasterka hasi zen, Daria Petrovnaren purrustadak iritsi ziren sukaldetik, indioiloa oraindik ez zegoela prest. Txakurrak egonezina sentitu zuen berriro ere.

«Ez ditiat gogoko iskanbilak etxean», esan zuen bere artean... Eta, hori pentsatu orduko, are gogaikarriagoa bilakatu zen iskanbila, batez ere Bormental doktore behinola hozkatua agertu zelako. Maleta kirasdun bat zekarren berekin, eta, berokia erantzi ere gabe, oldar bizian joan zen korridoretik zehar azterketa-gelara, maleta eta guzti. Filip Filipovitxek, sekula halakorik egiten ez bazuen ere, hustu gabe baztertu zuen kikara kafea, eta, sekula halakorik egiten ez zuen arren, lasterka jo zuen Bormentalengana.

— Noiz hil da? —egin zuen oihu.

— Duela hiru ordu —erantzun zuen Bormentalek, txano elurrez estalia erantzi gabe eta maleta zabalduz.

«Nor hil da? —pentsatu zuen txakurrak, kopetilun eta atsekabez, eta Filip Filipovitxen zangoen artean sartu zen ezin ditiat jasan urduri daudenean.»

— Hoa nire zangoen artetik! Azkar, azkar, azkar! —egin zuen oihu Filip Filipovitxek alde guztietara, eta, txakurrari iruditu zitzaionez, txirrin guztiak jotzen hasi zen. Zina lasterka iritsi zen Zina! Ardura dadila Daria Petrovna telefono-

az, idatz ditzala deitzen duten guztien izen-abi-zenak, baina ez dezala inor har! Zure laguntza behar dut. Bormental doktorea, azkar, azkar, azkar, mesedez!

«Ez zaidak gustatzen, ez zaidak gustatzen», txakurrak bekozko iluna jarri zuen, mindurik, eta etxebizitzan barrena batera eta bestera ibiltzen hasi zen, baina iskanbila guztia azterketa-gelan zen. Zina hil-oihalen antzeko mantal batez jantzirik agertu zen ustekabean, eta azterketa-gelatik sukaldera eta handik atzera berriz azterketa-gelara lasterka hasi zen.

«Mokadu bat jatera joango nauk. Doazela pikutara!», erabaki zuen txakurrak, eta ezuste handia hartu zuen bat-batean.

— Ez eman ezer Shariki —egin zuen burrunba aginduak azterketa-gelatik, trumoiaren antzera.

— Ez da erraza, gero, txakur hori zaintzea!

— Bada, jar ezazue giltzapean!

Losintxen bidez Sharik erakarri, eta bainugelan giltzapetu zuten.

«Hau lotsagarrikeria —pentsatu zuen Shari-  
kek, bainugelako erdilunpean eseririk ergelkeria  
galanta...»

Eta ordu laurden inguru eman zuen bainuge-  
lan oso aldarte bitxiko, noiz haserre, noiz halako  
gogo-abaildura astun batek jota. Dena zen goi-  
bela, lausoa.

«Ondo zegok, ikusiko dituk bihar hire eskala-  
poiak, Filip Filipovitx jaun txit agurgarri horrek —  
pentsatzen zuen dagoeneko bi pare erosi dituk,  
eta beste pare bat erosi beharko duk. Txakurrak  
giltzapean ixteagatik.»

Baina ziplo eten zitzaion amorruzko pentsa-  
mendu hura. Ezkutuko arrazoiren batengatik,  
bat-batean eta argi etorri zitzaion gogora bere  
gaztarorik samurrenaren zati bat: Preobrajenski  
atearen alboko patio eguzkitsu eta izugarri handi  
bat, eguzki-izpiak botiletan, adreilu hautsiak,  
kale-txakur askeak.

«Ez, hemendik ez diat inongo askatasunera  
ihes egingo. Zertarako engainatu neure burua?  
—zioen txakurrak bere artean, triste, sudurretik  
arnaska ohitu egin nauk. Txakur handikia nauk  
orain, izaki ikasia, bizimodurik onena dastatu

diat. Eta zer da askatasuna? Horixe, kea, irudikeria, fikzioa... Zorigaiztoko demokrata horien sukar-ametsa...»

Gero, bainugelako erdilunpea izugarria bilakatu zen, Sharik uluka hasi zen, ateari erasozion, atzaparka.

— Uuuuu, uuuuuuu! —haren uluak etxebizitzara osora hedatu ziren, upel batetik irtengo balira bezala.

«Berrero txikituko diat hontza», pentsatu zuen txakurrak, amorruez baina indarrik gabe. Gero, makaldu egin zen, etzanik egon zen apurbatean, eta, altxatu zenean, ilea lastu zitzaion bat-batean, zeren eta, batek daki zergatik, otso baten begi beldurgarriak ikusi uste izan baitzuten bainugelan.

Eta, estiraren gorenean, atea ireki zen. Txakurra, kanpora irten, gorputza inarrosi, eta goibel abiatu zen sukaldara, baina Zinak lepokotik heldu zion eta, ahalegin handia eginez, arrastaka eraman zuen azterketa-gelara. Txakurrari hotzikara bat sartu zitzaion bihotzeraino.

«Zertarako behar naute? —pentsatu zuen, goganbehartsu orbaindu zaidak saihetsa, ez diat ezer ulertzen.»

Eta parket labainkorrean hankak irristatuz eramane zuten azterketa-gelaraino. Sartu bezain laster, txunditurik utzi zuen hango argitasunaren handiak. Sabaiko globo zuriak min ematen zien begiei, hain zen bizia haren argia. Argitasun zuri haren erdian zutik sakrifizioen apaizburua zegoen, ezpain artean Nilo sakratuaren ertzari abesten. Zerion usain zehazgabetik soilik igar zitezkeen hango hura Filip Filipovitx zela. Eliz-nagusien buru-estalkia gogorarazten zuen txano zuri baten azpian ezkutaturik zeuden haren ile urdin laburrak; jainkoa zuriz jantzirik zegoen burutik oinetaraino, eta estola zirudien gomazko mantal estu bat zeukan soineko zuriaren gainean. Eskuak eskularru beltzez jantzirik zeuzkan.

Hozkatuak ere eliznagusien buru-estalkiaren tankerako txanoa zeukan jantzirik. Mahai luzea zabaldurik zegoen, eta hanka bakar distiratsuko mahaitxo karratu bat jarria zuten haren aldamean.

Une hartan, txakurrak beste inori baino gorroto handiagoa hartu zion hozkatuari, batez ere egun horretan zituen begiengatik. Eskuarki ausart eta tolesgabeak baziren ere, alde guztietara baztertzen ziren orain, txakurraren begiei ihesi. Erne zituen, itxurati, eta haien sakonean asmo gaizto, zitalen bat ezkututzen zen, edo, beharbada, krimen huts baten burubidea. Txakurrak zorrotz eta kopetilun begiratu zion eta zoko batera joan zen.

— Lepokoa, Zina —esan zuen Filip Filipovitzek, ahots mehez baina kontuz, asaldatu gabe.

Zinaren begiak hozkatuarenak bezain doilorrak bilakatu ziren bat-batean. Txakurrarengana hurbildu, eta itxurakeria nabarmenez laztandu zuen. Txakurrak tristeziatz eta destainaz begiratu zion.

«Zer egin dezaket?... hiru zarete. Nahi baduzue, harrapatu egingo nauzue. Baina lotsa eman beharko lizueke... Zer egingo didazuen jakingo banu sikiera...»

Zinak lepokoa askatu zion, txakurrak buruari eragin zion, ufa egin zuen. Hozkatua aurrean

jarri zitzaion, halako kirats zorabiagarri bat zerio-  
la.

«Hau nazka... Zergatik nago hain zorabiaturik eta izuturik?...», pentsatu zuen txakurrak, eta atzeraka urrundu zen hozkatuarengandik.

— Azkar, doktorea —esan zuen Filip Filipovitchek, berantetsirik.

Usain sakorra eta gozoegia zegoen airean. Hozkatuak, bere begi erne gaiztoak txakurrarengandik aldendu gabe, eskuineko eskua bizkar atzetik atera, eta, bizkor-bizkor, kotoi-puska heze bat jarri zion txakurrari sudurrean. Sharik harriturik gelditu zen, zorabio arin bat sumatu zuen buruan, baina atzera egiteko denbora izan zuen oraindik. Hozkatua jauzi batez oldartu zitzaion eta, bat-batean, mutur osoa estali zion kotoiaz. Arnasa eten zitzaion txakurrari, baina ihes egitea lortu zuen berriro. «Gizatxarra hala-koa», pentsatu zuen une batez. «Zergatik?», eta berriro estali zioten muturra. Orduan, ustekabean, aintzira bat agertu zen azterketa-gelaren erdian, eta aintziran, txalupetan, hilobiaz haraindiko txakur alegiazko batzuk, arrosakoloreak eta



oso alaiak. Hankak bigun tolestu zitzaizkion, hezurrik ez balute bezala.

— Mahaira! —entzun ziren nonbait, ahots alaiz, Filip Filipovitxen hitzak, eta zurrunbilo laranjetan barreiatu ziren. Joan zen izua, alaitasunak ordezturik. Bi segundoz, arian-arian iraungiz zihoalarik, txakurrak hozkatua maite izan zuen. Gero, mundua azpikoz gora itzuli zen, eta txakurrak esku hotz baina atsegin bat sumatu zuen sabelaren azpian. Gero, ezer ez.

## IV

Ebakuntza-mahai estuaren gainean, luze-luze etzanik zegoen Sharik txakurra, eta haren burua indarrrik gabe pilpiraka ari zen hulezko bururdiaren kontra. Sabela larru huts zeukan ordurako, eta orain, arnasa estu eta presaka, Bormental doktoreak haren burua soiltzen ziharduen, ilea mozteko makinatxoaz tximen azpian sartuz. Filip Filipovitx, esku-azpiak mahaiaren muturrean bermaturik, begiak betaurrekoen urrezko uztaiak bezain distiratsu, jarduera horri adi zegoen eta gogo beroz mintzo zen.

— Ivan Arnoldovitx, aulki turkiarrera iristen naizen bezain laster, hipofisia eman eta josten hasi berehala, mesedez. Hori izango da ebakuntzaren une erabakigarria. Orduan odoljariorik bada, denbora eta txakurra, biak galduko ditugu. Dena dela, bestela ere ez du inolako aukerarik — lipar batez isildu, begiak ñarrotu, txakurraren begi maltzurki-antzean erdi irekiei begiratu bat eman, eta gaineratu zuen Badakizu?, erruki dut. Izan ere, lege handia hartu diot.

Hori esateaz batera, gorantz jaso zituen besoak, Sharik txakur dohakabea bere balentria gaitzagatik bedeinkatzen ari balitz bezala. Goma beltzean hauts-izpirik txikiena ere jar ez zekion ahalegintzen ari zen.

Txakurraren azal zurixka dirdirka hasi zen ile moztuaren azpian. Bormentalek, makinatxo utzi, eta bizar-aitzurra hartu zuen. Txakurraren burutxo indargabea xaboitu zuen eta ile-hondarrak mozten hasi zen. Karranka-hots ozena entzuten zen bizar-xlaflaren azpian, odola agertu zen hor-hemen. Burua soildutakoan, bentzinaz bustiriko kotoi-puska batez igurtzi zuen hozkatuak; gero, txakurraren sabel biluzia tenkatu, eta arnaska esan zuen: «Prest dago».

Zinak konketaren gaineko txorrotaren giltza ireki zuen, eta Bormental bizkor joan zen eskuak garbitzera. Zinak flasko bateko alkoholaz busti zizkion.

— Joan naiteke, Filip Filipovitx? —galdetu zuen Zinak, begi-ertzetik txakurraren buru ile-moztuari beldurrez begiratzen ziola.

— Bai, joan zaitezke.

Desagertu zen Zina. Bormentalek lanean jarraitu zuen. Gazazko oihal-zerrendatxo mehe batzuk ipini zituen Shariken buruaren inguran, eta, orduan, inork inoiz ikusi ez bezalako txakur-burezur soil bat eta mutur bizardun bitxi bat azaldu ziren bururdiaren gainean.

Une horretan, doi bat mugitu zen sakrifizio-burua. Gorputza tentetu, txakurraren buruari begiratu, eta esan zuen:

— Orain, Jainkoak bedeinka nazala. Xixta.

Bormentalek labanatxo sabel-handi bat hartu zuen mahaitxoaren gaineko tresna-pila distiratsutik eta sakrifizioburuari eman zion. Gero, sakrifizioburuarenak bezalako eskularru beltzak jantzi zituen.

— Lo dago? —galdetu zuen Filip Filipovitxek.

— Lo dago.

Filip Filipovitxek hortzak estutu zituen, haren begitxoek halako zorrotasun ziztagarri batez distiratu zuten, eta, labanatxoari airean eraginik, ebaki luze eta zuzen-zuzena egin zuen Shariken sabelean. Azala bertantxe zabaldu zen, eta odola indarrez zipriltinka isuri zen hainbat lekutatik. Bormental harrapari baten gisan inguratu

zen eta gazazko bolatxoak jartzen hasi zen Shariken zaurian; gero, azukre-koskorrak hartzeko erabiltzen direnen moduko pintza txiki batzuk erabiliz, estu bildu zituen zauriaren ertzak, eta odoljariora eten zen. Bormentalen bekokia izerdiantaz bete zen. Filip Filipovitxek beste ebaki bat egin zuen, eta Shariken gorputza urratzen hasi ziren biak, kakoekin, artaziekin, kizki moduko tresna batekin. Agerian geratu ziren berehala ehun arrosakara eta horixkak, odol-ura zeriela. Filip Filipovitxek batera eta bestera zerabilen xixta gorputzaren barruan, eta halako batean oihu egin zuen: «Artaziak!».

Tresna, une labur batez hozkatuaren eskuetan agertu, eta ziplo desagertu zen, hozkatua eskujokaria balitz bezala. Filip Filipovitxek barru-barruraino sartu zituen artaziak, eta, apur batean biraka erabili eta gero, hazi-guruinak atera zituen Shariken gorputzetik, haragi-puska batzuk itsatsirik zeuzkatela. Bormentalek, izerdiantan blai ahaleginaren eta urduritasunaren eraginez, beirazko flasko batera jo zuen lasterka eta beste hazi-guruin batzuk atera zituen handik, bustiak eta eroriak. Profesorearen eta laguntzai-

learen eskuetan jauzika eta bihurka hasi ziren hari labur eta heze batzuk. Orratz okerrekin kirrinka-hots etena egin zuten pintzen kontra, eta hazi-guruin berriak josi zituzten Sharikenen tokian. Sakrifizioburuak, zauritik aldendu, barruan gazazko bolatxo bat sartu, eta agindu zuen:

— Josi azala, doktorea. Laster!

Gero, hormako erloju biribil zurira eraman zituen begiak.

— 14 minutuan egin dugu —esan zuen Bormentalek, hortzak estaturik, eta azal bigunean iltzatu zuen orratz okerra. Gero, urduri jartzen hasi ziren biak, hiltzaile presatu bi balira bezala.

— Xixta! —egin zuen oihu Filip Filipovitxek.

Xixtak, bere kasa mugituko balitz bezala, haren eskuetara jauzi egin zuen, eta Filip Filipovitxen aurpegiak aire izugarria hartu zuen. Porzelanazko eta urrezko hortz-buruak estutu, eta, xixta-ukaldi bakar batez, marra gorri bat ebaki zuen Shariken bekokian, alderik alde. Azal ilemoztua haragitik bereizi zen, indioek garaikurtzat hartzen duten buru-larrua balitz bezala.

Agerian utzi zuten burezurra. Filip Filipovitxek oihu egin zuen:

— Trepanoa!

Bormentalek zulagailu distiratsu bat eman zion. Ezpainak hozkaturik, Filip Filipovitx berehala hasi zen zulagailua sartzen eta Shariken burezuraren inguru guztian zulotxoak egiten, batetik bestera zentimetro baten tarteak utziz. Bost segundo baino gutxiago behar izan zituen zulotxo bakoitza egiteko. Gero, forma bitxiko zerra baten muturra sartu zuen lehen zulotxoan, eta zerratzen hasi zen, dama baten jostotzara leuntzen ari balitz bezala. Zerra krisk eta krask ari zen isiltasunean. Hiru minutu geroago, burmuinaren estalkia kendu zioten Shariki.

Orduan, agerian geratu zen Shariken burmuinaren gainaldea, gris, zain urdinxkekin eta orban gorrixkekin. Filip Filipovitxek mintzen artean sartu zituen artaziak eta ebakitzen hasi zen. Bat-batean, odol-zurrustada bat sortu zen, eta gutxi egin zuen profesorearen begietan erori ez zenean eta txanoa busti ez zionean. Bormental, pintza hemostatikoak eskuan, tigre baten abailan inguratu zen eta odoljariora gerarazteari ekin

zion, eta gerarazi zuen. Bormental izerdi-patsetan zegoen, eta haren aurpegi handituak kolore guztiak hartzen zituen. Begiak jauzika zebilzkion profesorearen eskuetatik tresnen mahai gaineko platerera joan-etorrian. Filip Filipovitxek itxura zinez izugarria zuen ordurako. Txistuka irteten zitzaion arnasa sudurretik, hobietaraino ikusten zitzaizkion hortzak. Mintzak urraturik, sakonago sartu zen eta bere barrunbe irekitik atera zuen garuneko hemisferioa. Une horretan, Bormental zurbiltzen hasi zen, eskua Shariken bularrean jarri, eta ahots erlatsez esan zuen:

— Pultsua azkar ahultzen ari zaio...

Filip Filipovitxek basapiztia baten gisan begiratu zion, zer edo zer murduskatu zuen eta are barrurago sartu zen. Bormentalek beirazko anpulu bat kraskatu zuen, xiringa batez barruko isurkaria hartu, eta zitalki ziztatu zuen Sharik bihotzetik hurbil.

— Iritsi naiz aulki turkiarrera —egin zuen oihu Filip Filipovitxek, eta eskularru labain odolduekin Shariken burmuin gris-horixka atera zuen burutik. Une horretantxe, Shariken muturrerantz okertu zituen begiak, eta Bormentalek beste



anpulu bat hautsi zuen eta xiringa luze batera atera zuen barruko isurkari horixka.

— Bihotzean? —galdetu zuen, herabeki.

— Galdetzea ere! —egin zuen orro profesoreak, amorru biziz Dena dela, gutxienez 5 aldiz hil zaizu dagoeneko. Zizta ezazu behingoz! Egundo horrelakorik! —eta, hori zioen bitartean, gaizkile odolgose baten airea hartu zuen.

Doktoreak indarrez eta erraz iltzatu zuen orratza txakurraren bihotzean.

— Bizirik dago, baina ozta-ozta —murmurikatu zuen, herabeki.

— Orain ez dugu astirik bizirik dagoen ala ez eztabaidatzeko —esan zuen, ahots erlatsez, Filip Filipovitx izugarriak aulkian nago. Nolanahi ere, hil egingo da... A, hi, deab... Nilo sakratuaren ertzean... Ekarri hipofisia.

Bormentalek flasko bat eman zion, zeinaren barruko isurkarian halako bolatxo zuri bat baitzegoen hari batetik zintzilik. Esku batez —«Europa osoan ez dik parekorik... ez horixe!», pentsatu zuen Bormentalek lausoki—, Filip Filipovitxek flaskotik atera zuen bolatxo zintzilika-ria, eta besteaz haren berdin bat moztu zuen

artaziekin Shariken sakonean, garuneko hemisferio irekien artean; platerera bota zuen eta berria jarri zuen burmuinean, hari eta guzti. Bere hatz laburrak mirariz bezala mehe eta zalu, hari anbankolorea bolatxoaren inguruan biribilkatzea lortu zuen. Gero, tenkagailuak eta pintzak atera zituen txakurraren burutik, ondo finkatu zuen burmuina bere hezur-barrunbean, tente jarri zen eta, lasaiago, galdetu zuen:

— Hil da noski...

— Pultsu harikara —erantzun zuen Bormentalek.

— Adrenalina gehiago.

Profesoreak mintzez estali zuen burmuina, hezur-estalkia bere tokian zehazki kokatu, buru-larrua gainean jarri, eta orro egin zuen:

— Josi!

Bormentalek bost minutuan josi zuen burua, hiru orratz apurturik.

Eta, orduan, Shariken mutur hits bizigabea agertu zen odolez tindaturiko bururdiaren gainean, buruaren inguru guztian zauria zuela. Une horretan, Filip Filipovitxek atzera egin zuen erabat, banpiro asean balitz bezala. Indarrez erantzi

zuen eskularru bat, izerdiz bustiriko talko-hauts mordo bat airean barreiatuz, zarrastatu zuen beste eskularrua, lurrera jaurti zuen beregandik urrun eta txirrina jo zuen, hormako botoia saka-tuz. Zina alartzean agertu zen, bizkarra emanik Sharik odoldua ez ikusteko. Sakrifizioburuak, eskuak talko-hautsez zuri-zuri, txano odolez zipriztindua erantzi eta oihuka esan zuen:

— Zigarreta bat, Zina, azkar! Azpiko arropa garbia eta bainua.

Kokotsa mahaiaren muturrean bermatu, bi hatzekin txakurraren eskuineko betazala ireki, begi nabariki hil-hurrenari begiratu bat eman, eta esan zuen:

— Mila deabru! Ez da hil. Baina hil egingo da edonola ere. Ai, Bormental doktorea, erruki dut txakurra, maltzurra zen, baina maitekorra.

## V

### BORMENTAL DOKTOREAREN EGUNKARITIK

Koaderno mehea, idazteko orri arrunten tamainakoa. Bormentalen letraz bete-betea. Lehen bi orrialdeetako txukuna, argia eta sarria; gainerakoetako trakets samarra eta urduria, tinta-orbanez josia.

1924ko abenduaren 22a. Astelehena.

Txosten kliniko

Laborategiko txakurra, 2 urte ingurukoa. Arra. Arraza: nahasia. Izena: Sharik. Ilajea bakana, tximatsua, soilguneekin eta izpil gorrixkekin. Buztana esne labearen egosiaren kolorekoa. Guztiz orbainduriko erredura baten arrastoak eskuinteko saihetsean. Elikadura profesoreak jaso zuen arte, txarra; aste beteko egonaldiaren buruan, lodi-lodi. Pisua: 8 kg. **(Harridura-ikurra.)** Bihotza, birrikak, urdaila, temperatura...

Abenduaren 23a. Arratsaldeko 8:30ean Preobrajenski profesorearen metodoaren arabera

ebakuntza egin dugu, horrelako lehenen European: kloroformoz anesthesiatu, barrabilak erazi dizkiogu Shariki, eta ebakuntza egin baino 4 ordu eta 4 minutu lehenago hil den 28 urteko gizonetako bati kendu eta Preobrajenski profesorearen metodoaren arabera isurkari fisiologiko esterilizatua gorderik eduki ditugun barrabilak jarri dizkiogu haien ordean, beren luzakin eta hodi seminiferoekin.

Gero, etenik gabe, garunaren hezur-estalkia trepanatu dugu, burmuinaren luzakina (hipofisia) erazi dugu eta giza hipofisi bat jarri dugu haren lekuan, goian aipaturiko gizonetako horrena.

8 zentimetro kubiko kloroformo erabili ditugu, 1 xiringa alkanfor, eta 2 xiringa adrenalina bihotzean.

Ebakuntzaren helburua: hipofisia eta barrabilak batera transplantatzea, esperimentu gisa. Preobrajenski profesoreak bi auzi argitu nahi zituen esperimentu horren bidez: hipofisiak zenbaterainoko gaitasuna duen organismo berri batera egokitzeko eta luzarora nolako eragina izan dezakeen giza organismoaren gaztetzean.

F. F. Preobrajenski profesoreak egin du ebakuntza.

I. A. Bormental doktorea izan du laguntzaile.

Ebakuntzaren ondoko gauean: pultsuaren ahultze kezkarriak behin eta berriz. Hiltzeko arrisku larria. Alkanfor-dosi izugarri handiak Preobrajenskiren metodoaren arabera.

Abenduaren 24a. Goizean, hobekuntza. Arnasa bi aldiz azkarragoa, tenperatura 42. Alkanforra eta kafeina azal azpian.

Abenduaren 25a. Okerrera berriro. Pultsua ozta-ozta atzematen zaio, hankak hotz, beginiek ez dute erreakzionatzen. Adrenalina bihotzean, alkanforra Preobrajenskiren metodoaren arabera, isurkari fisiologikoa zainetan.

Abenduaren 26a. Nolabaiteko hobekuntza. Pultsua 180, arnasa 92, tenperatura 41. Alkanforra, enemak.

Abenduaren 27a. Pultsua 152, arnasa 50, tenperatura 39,8, beginiek erreakzionatu egiten dute. Alkanforra azal azpian.

Abenduaren 28a. Hobekuntza nabaria. Eguerdian izerdia bat-batean, tenperatura 37,0.

Ebakuntzako zauriak lehen bezalaxe. Lotailu berriak. Jateko gogo. Elikatze likidoa.

Abenduaren 29a. Bekokiko eta enborrharen alboetako ilea erortzen hasi zaio bat-batean. Aholku eskatu diegu Vasili Vasilievitx Bundarev larruazalaren eritasunen katedrako profesoreari eta Moskuko Albaitaritza Institutuaren zuzendariari. Esan dutenez, medikuntza-liburuetan ez dago horrelako beste ezein kasuren aipamenik. Ez da diagnostikorik egin. Temperatura, normala.

### **(Arkatzez idatzia.)**

Arratsaldean lehen zaunka egin du (8 h 15 min). Aipatzekoak dira tinbrearen bat-bateko aldaketa eta tonuaren apaltzea. «Au, au» egin beharrean, «a-o» hotsak ebaki ditu, eta doinuak intziriaren nolabaiteko antza eman dio zaunkari.

Abenduaren 30a. Ile-erortzea alopezia orokor bilakatu da. Pisatzearen emaitza ustekabekoa izan da: 30 kg, hezurak hazi (luzatu) izanaren ondorioz. Txakurra ohean etzanik dago, lehen bezala.

Abenduaren 31. Jateko gogo izugarria.

**(Tinta-orbana koadernoan. Tinta-orbanaren ondoan letra presatua.)**

Eguerdiko 12:12an txakurrak «A-b-i-r» zaunkatu du argi eta garbi.

**(Tarte zuria koadernoan, eta gero, inondik ere zirrararen ondorioz, akats bat):**

Abenduaren 1a. **(Marraturik, zuzendurik)** 1925eko urtarrilaren 1a. Goizean argazkiak egin dizkiogu. Argi eta garbi zaunkatzen du «Abir», hitz hori ozen eta alai-antzean errepikatuz. Arratsaldeko 3etan **(letra handiz)** barre egin du, eta zorabioa eragin dio Zina neskameari. Arratsaldean 8 aldiz jarraian esan ditu «Abir-valg» eta «Abir» hitzak.

**(Arkatzez, letra etzanaz):** profesoreak «Abir-valg» hitza deszifratu du, «Glavriba» esan nahi du... Ikaratzekoa...

Urtarrilaren 2a. Argazkiak egin dizkiogu magnesio-argiaren aurrean irribarre egiten zuen bitartean. Ohetik altxatu da eta ordu erdiz irmo eutsi dio gorputzari atzeko hanken gainean. Nire garaiera berekoa da gutxi gorabehera.

**(Koadernoari erantsitako orri batean.)**



Errusiako zientzia galera handia izateko zorian egon da.

F. F. Preobrajenski profesorearen txosten kliniko.

1:13an Preobrajenski profesoreak zorabio larria izan du. Lurrera erotzean aulki baten hanka jo du buruarekin. Belar bedeinkatuzko tintura.

Zina eta biok bertan ginela, txakurrak (txakurra deitzerik badago, jakina) Preobrajenski profesorearen ama iraindu du.

\* \* \*

### **(Oharren etena.)**

Urtarrilaren 6a. **(Hitz batzuk arkatzez, beste batzuk tinta morez.)**

Gaur buztana erori zaio, eta gero «garagar-dotegia» esan du, ezin argiago. Fonografoa lanean ari da. Hau bai harrigarria.

\* \* \*

Ez dut ezer ulertzen.

\* \* \*

Profesoreak ez du pazienterik hartzen. Arratsaldeko 5az geroztik birao gordinak eta «atera beste bi» hitzak entzuten dira azterketa-gelan, izakia batera eta bestera baitabil hor.

Urtarrilaren 7a. Hitz asko esaten ditu: «Kotxezaina», «Ez dago lekurik», «Arratsaldeko egunkaria», «Haurrentzako oparirik onena» eta errusierak dituen irain-hitz guztiak.

Itxura bitxia du. Buru gainean, kokotsean eta bularrean soilik geratu zaio ilea. Gorputzaren gainerakoa soila du, azal bigunez estalia. Sexu-organoen aldean gizonezko baten forma hartzen ari da. Burezurra izugarri hazi zaio. Bekokia irte-na eta zapala du.

\* \* \*

Jainko maitea!, zoratu egingo naiz.

\* \* \*

Filip Filipovitx ondoezik dago oraindik. Nik egiten dut behaketa-lan gehiena. **(Fonografoa, argazkiak.)**

\* \* \*

Albistea ahoz aho dabil hirian.

\* \* \*

Ondorioak ezin neurtuzkoak dira. Gaur arratsaldean alferrontziz eta atso zaharrez beterik egon da kalezulo osoa. Orain ere begiluze batzuk daude leihoen azpian. Goizeko egunkarietan ohar harrigarri hau azaldu da: «Obukhov kalezulo martetarrari buruzko zurrumurruek ez dute inolako funtsik. Sukhariovka plazako merkatariek zabaldu dituzte, eta zigor latza jasoko dute horregatik». Deabrua, zein martetarrez ari dira, gero? Hau amesgaizto hutsa da.

\* \* \*

*Vetxernaia* egunkarikoak are hobea izan da: biolina jotzen duen umetxo bat jaio dela idatzi dute. Eta irudi bat erantsi diote albisteari: biolin bat eta nire argazki txiki bat, eta argazkiaren azpian hitz hauek: «Preobrajenski profesorea, amari zesarea egin dion medikua». Ezin sinetsizkoa da hau guztia... Beste hitz bat esaten du: «Polizia».

\* \* \*

Nonbait, Daria Petrovna nitaz maitemindurik egon zen garai batean, eta nire argazkia hartu zuen Filip Filipovitxen albumetik. Gero, kazetariak etxetik bidali ditugunean, haietako bat sukaldean sartu da eta abar.

\* \* \*

Kontsulta-orduak zoratzekoak dira! Gaur 82 dei izan ditugu. Deskonektatu egin dugu telefonoa. Dama antzuak zoratu egin dira eta saldoka etortzen zaizkigu...

\* \* \*

Etxeko batzorde osoa etorri da, Shvonder buru. Zertara? Haiek ere ez zekiten.

Urtarrilaren 8a. Arrats beranduan diagnostikoa erabaki dugu. Filip Filipovitxek, behar bezalako zientzialaria denez, bere hutsegitea ezagutu du: hipofisia aldatzeak ez du gaztetzen, baizik eta erabateko gizaki bihurtzen (**hiru aldiz azpimarraturik**). Dena dela, horrek ez dio balio-izpirik ere kentzen haren aurkikuntza miragarri eta txundigarriari.

Gaur, lehen aldiz ibili da etxebizitzan barrena. Barre egin du korridorean, lanpara elektrikoari begira. Gero, Filip Filipovitx eta biok lagun gintuela, langelara joan da. Finko eusten dio gorputzari atzeko hanken gainean (**marraturik**) ... giza zangoen gainean, eta gizonezko txiki eta ixuragabe baten antza du.

Barre egin du langelan. Haren barrea gozaitza da eta artifiziala ematen du. Gero, hatz egin du garondoan, ingurura begiratu du, eta ezin argiago ahoskatu duen beste hitz bat idatzi dut: «Burgesak». Birao egin du. Biraoak sistematikokoak dira, etengabeak, eta, itxuraz, zeharo

zentsugabeak. Nolabaiteko izaera fonografikoa dute: dirudienez, izakiak non edo non entzun ditu lehenago birao-hitzok, automatikoki gorde ditu burmuinean, ohartu gabe, eta orain denak batera esaten ditu noizean behin. Hala ere, ni ez naiz psikiatra, mila deabru!

Ez dakit zergatik, baina birao horiek harrigarriro nahigabetzen dute Filip Filipovitx. Batzuetan, bertan behera uzten du fenomeno berrien behaketa neurritsu eta hotza, eta egonarria galzten duela ematen du. Halatan, biraoa entzun bezain laster, urduri oihukatu du:

— Aski da!

Horrek ez du inolako ondoriorik ekarri.

Langelako osteratxoa amaiturik, bion artean azterketa-gelan sartu dugu berriro Sharik.

Gero, bilera izan dugu Filip Filipovitxek eta biok. Aitortu behar dut lehen aldiz ikusi dudala burunahasirik gizon ziur eta harrigarriro buruaragi hori. Ohi bezala ezpain artean abestuz, galde-tu du: «Zer egingo dugu orain?». Eta berak erantzun du, honela hitzez hitz: «Moskvoshveia, bai... Sevillatik Granadara. Moskvoshveia, doktore maitea...». Ez dut ezer ulertu. Argitu egin dit:

«Ivan Arnoldovitx, mesedez, erosi berarentzako aldagarriak, galtzak eta jaka».

Urtarrilaren 9a. Bost minutuz behin (batez beste) lexikoa hitz berri batez aberasten da, eta gaurko goizaz geroztik esaldiz ere bai. Badirudi buruan izozturik zeuzkala eta orain urtu eta kanpora irteten direla. Behin hitz bat aterata, erabiltzen jarraitzen du. Atzoko arratsaldeaz geroztik, fonografoak hauek jaso ditu: «Ez bultzatu», «Gizatxarra», «Jaitsi hadi pikabuztanetik», «Larrutik ordainduko duk», «Amerikak aintzat hartu gaitu», «Petrolio-labetxo».

Urtarrilaren 10a. Janzteari ekin diogu. Gogo onez utzi digu barruko elastikoa janzten, barre eta guzti egin du, alai. Galtzazpiei uko egin die, oihu erlatsez protesta eginez: «Banan-banan, sasikumeok, banan-banan!». Jantzi dugu azkeanean. Galtzerdiak handiegi dauzka.

**(Marrazki eskematikoak koadernoan. Itxura guztien arabera, txakur-hankak giza zango nola bilakatzen diren irudikatzen dute.)**

Oin-zolako hezurduraren atzeko erdia luzatzen ari da. Behatzen hazkundera. Azazkalak.

Komuna erabiltzen irakasteko saio sistemati-ko eta etengabeak. Neskamea zeharo lur jota dago.

Nolanahi ere, aipatzekoa da izakiaren adi-men argia. Gauzak ezin hobeto doaz.

Urtarrilaren 11. Erabat ohitu da galtzetara. Esaldi luze eta barregarri bat esan du: «Zigarrotxo bat eman, zuloak dituk galtzetan».

Buruko zurdak leunak ditu, zeta-antzekoak. Erraza da iletzat hartzea. Dena dela, parietalean orban gorrixkak geratu zaizkio. Gaur belarrieta-ko azken ile-izpiak erori zaizkio. Jangura izugarria. Gogo biziz jaten ditu sardinzar ketuak.

Arratsaldeko 5etan gertaera gogoangarri bat jazo da: lehen aldiz, izakiaren hitzak ez dira izan inguruko gorabeherekiko loturarik gabeak, haien ondorioa baizik. Hain zuzen ere, profesoreak oihuka esan dio: «Ez bota janari-hondarrik lurre-ra», eta berak hitzetik hortzera erantzun du: «Utzi bakean, zorri horrek!».

Filip Filipovitx harri eta zur eginik gelditu da; gero, bere onera etorri da eta esan du:

— Inoiz berriro doktorea edo ni iraintzen bagaituk, astinaldi ederra emango diat.



Une horretan argazki bat egiten ari nintzaion Shariki. Zin egiten dut ulertu dituela profesorearen hitzak. Itzal goibel batek aurpegia ilundu dio. Haserre samar begiratu dio, begi-ertzetik, baina isildu egin da.

Ufa!, ulertu egiten du!

Urtarrilaren 12a. Eskuak galtzetako sakeletan sartzen ditu. Biraoak botatzeko ohitura kentzeko ahaleginak egiten ari gara. *Oi, sagartxo* abestia txistukatu du. Elkarrizketari lotzeko gai da.

Ezin dut etsi hipotesi batzuk azaldu gabe. Oraingoan, doala deabruetara gaztetzearen kontua. Bestea askoz ere garrantzitsuagoa da: Preobrajenski profesorearen esperimentu miragarriak giza burmuinaren misterioetako bat argitu du. Orain badakigu zein den hipofisiaren (burmuinaren luzakinaren) funtzio enigmatikoa. Giza gorpuzkera taxutzen du. Haren hormonak organismoko garrantzitsuenak direla esan dezakegu: gorpuzkeraren hormonak dira. Arlo berri bat zabaldu da zientziaren eremuan: homunkulu bat sortzea lortu da Faustoren inolako erretortarik gabe. Kirurgialariaren eskalpeloak gizaki berri

bat ekarri du bizitzara. Preobrajenski profesorea, kreatzaile zara. **(Tinta-orbana.)**

Baina gaiaz beste egin dut... Lehen esan bezala, elkarrizketari lotzeko gai da. Nire hipotesiaren arabera, hau gertatu da: behin organismo berrira egokiturik, hipofisiak mintzamenaren zentroa ireki du txakurraren burmuinean, eta hitzak parrastaka irteten hasi dira. Nire ustez, garatzen ari den burmuin berpiztu bat dugu aurrean, eta ez berriro sorturiko burmuin bat. Oi, bilakaeraren teoriaren berreste miragarria! Oi, txakurrarengandik Mendeleiev kimikariarengainoko katearen luzea! Beste hipotesi bat ere badut: bere bizitzako txakurraldian Shariken burmuinak ezin konta ahal nozio metatu zituen. Aurrena erabili dituen hitz guztiak kaleko hitzak dira; burmuinean gordetzen zituen entzun ahala. Orain, kalean nabilenean, ezkutuko izuz begiratzeko diet bidean topatzen ditudan txakurrei. Batek daki zer daukaten gorderik burmuinean.

Sharikek irakurri egiten zuen. Irakurri **(3 harridura-ikur)**. Igarri egin diot. Glavriba hitzari esker. Hain zuzen ere, atzekoz aurrera irakur-

tzen zuen. Eta badakit zein den enigma horren azalpena: txakurraren nerbio optikoen etena.

\* \* \*

Moskun gertatzen ari dena giza adimenak ezin ulertuzkoa da. Sukhariovka plazako zazpi merkataria espetxean daude jadanik, boltxevik-keek munduaren azkena ekarri diguten zurrumurrua zabaltzeagatik. Daria Petrovnak kontatu digu hori, eta egun zehatza ere esan digu: 1925eko azaroaren 28an, San Stefan martiriaren egunean, Lurrak zeruaren ardatzaren kontra joko du... Iruzurti batzuk hitzaldiak ematen hasi dira. Hain da handia hipofisiarekin sortu dugun iskanbila, ezen etxetik lasterka alde egiteko gogoia ematen baitu. Berak hala eskaturik, Preobrajenskiren etxebizitzara aldatu naiz, eta harrera-gelan igarotzen dut gaua, Sharikekin batera. Azterketa-gela harrera-gela bihurtu da. Azkenean, zuzen zegoen Shvonder. Etxeko batzordea pozez zorutzen dago gure ezbeharrak direla eta. Armairuetan ez da beira bat bera ere geratzen,

Shariken jauzien ondorioz. Nekez lortu dugu ohi-tura hori kentzea.

\* \* \*

Filipi zerbait arraroa gertatzen zaio. Nire hipotesiez eta Sharikengan oso nortasun psikiko handia garatzeko itxaropenaz hitz egin diodanean, purrustada egin eta honela erantzun dit: «Hala uste duzu?». Haren tonua goibela zen. Oker ote nabil? Zaharrak zerbait darabil buruan. Nik txosten kliniko idazten dudan bitartean, berak buru-belarri aztertzen du hipofisia kendu diogun gizonari buruzko txostena.

\* \* \*

### **(Koadernoari erantsitako orri batean.)**

Klim Grigorievitx Txugunkin, 25 urte, ezkon-gabea. Alderdirik gabea, jarraitzalea. 3 aldiz epaitua eta absolbitua: lehen aldian, froga nahikorik ez zegoelako; bigarrenean, bere jatorriak salbatuzuen; hirugarrenean, 15 urteko espetxe-

zigorra eta baldintzapeko askatasuna. Lapurretak. Lanbidea: balalaika jotzen du tabernetan.

Txikia, itxuragabea. Gibela handitua (alkohola). Heriotzaren zergatia: labankada bat bihoztzean garagardotegi batean («Stop-Signal», Preobrajenski atetik hurbil).

\* \* \*

Zaharrak Klimen txosten klinikoa aztertzen du begiak behin ere jaso jabe. Ez dut ulertzen zer gertatzen den. Zer edo zer murduskatu du, anatomia patologiko sailean Txugunkinen gorpua osorik aztertzea bururatu ez zitzaiola edo horrelako zerbait esanez. Ez dut ulertzen zer gertatzen den. Ez al da berdin hipofisia norenaren?

Urtarrilaren 17a. Zenbait egunez ez dut ezer idatzi: gripea izan dut. Denbora horretan, giza gorpuzkera guztiz eratu da:

- a) goitik beherako gizona gorputzaren egitura;
- b) gutxi gorabeherako pisua: 3 pud;
- c) garaiera txikia;

- d) buru txikia;
- e) erretzen hasi da;
- f) giza janaria jaten du;
- g) laguntzarik gabe janzten da;
- h) aise hitz egiten du.

\* \* \*

Zorioneko hipofisia (**tinta-orbana**).

\* \* \*

Amaiera ematen diot txosten kliniko honi. Organismo berri bat dugu aurrean; hasiera-hasieratik ikertu behar dugu.

Eranskina: ohar estenografikoak, fonografoaren grabazioak, argazkiak.

Sinadura: F. F. Preobrajenski profesorearen laguntzailea

Bormental doktorea.

## VI

Neguko arratsalde bat zen. Urtarrilaren amaiera. Bazkalordua baino lehen, kontsulten ordua baino lehen. Harrera-gelako atearen goiko habean paper-orri zuri bat zegoen esekirik, eta hau zeukan idatzirik, Filip Filipovitxen eskuaz:

«Debekaturik dago etxean ekilore-haziak jatea. F. Preobrajenski.»

Eta, arkatz urdinez, talo-itxurako letra lodietan, Bormentalen eskuaz:

«Debekaturik dago arratsaldeko 5etatik goizeko 7ak arte musika-tresnak jotzea.»

Gero, Zinaren eskuaz:

«Itzultzen zarenean, esan Filip Filipovitxi ez dakidala nora joan den. Fiodorrek esan du Shvonderrekin dagoela.»

Preobrajenskiren eskuaz:

«Ehun urte egon beharko dut beiragilearen zain?»

Daria Petrovnaren eskuaz **(moldiztegiko letretan):**

«Zina dendara joan da, ekarriko duela esan du.»

Jangelan arratsaldeko iluntasuna zen nagusi, lanpararen zetazko pantailaren kariatz. Arasako argia bitan banaturik hedatzen zen, beirak alde-rik alde zeharka gurutzaturiko paper-zerrendez finkaturik baitzeuden. Filip Filipovitx, mahai gainera makurturik, egunkariaren irakurketan murgildu zen, orri erraldoietako bat aurrean zabaldu-rik zeukala. Haserrearen suak aurpegia itxuraga- betzen zion, eta loturarik gabeko hitz osagabeak murduskatzen zituen hortz artean. Albiste bat irakurtzen ari zen:

«Inolako zalantzarik gabe, bere seme sasikoa du (gizarte burges ustelduan esaten zuten bezala). Horra nola jostatzen den gure burgesia sasi- jakintsua! Haietako bakoitzak zazpi gela erabili ahal izan ditu, harik eta, tximista gorri baten antzera, justiziaren ezpata argitsuak haien gainean distiratu duen arte.

Shb....p»

Bi horma harago balalaika jotzen ari zen nor- bait, ekin eta ekin, trebetasun adoretsez, eta



*Ilargiaren distira* doinuaren bariazio sotilaren hotsak albisteko hitzekin nahasten ziren Filip Filipovitxen buruan, halako ahi nardagarri bat eratuz. Irakurtzen amaitu zuenean, listurik bota gabe sorbalda gainetik tu egin eta, ohartzeko, ezpain artean abesten hasi zen:

— Ilargi-i-iazen distira... ilargi-i-iazen distira...  
ilargi-i-iazen distira... Puf!, buruan sartu zait doinu madarikatu hori!

Txirrina jo zuen. Zinaren aurpegia agertu zen oihalezko errezel lodien artean.

— Esaiozu 5ak direla, jotzeari uzteko eta hona etortzeko, mesedez.

Filip Filipovitx mahaiaren alboko besaulkian eseririk zegoen. Zigarro-punta gaztaintara bati eusten zion ezker eskuko hatzen artean. Ateko errezel lodien aldamenean zutik, ate-uztarrian bermaturik eta zangoak gurutze, gizon txiki eta itxura gozakaitzeko bat zegoen. Buruko ileak tente hazten zitzaizkion, landa jorratu bateko zuhaixkak balira bezala, eta bilo moztu gabez estalirik zeukan aurpegia. Harrigarria gertatzen zen bekokiaren zapala. Bekain beltz ile-nahasiak pintzel bi gogorarazten zituzten, eta buruko

adats sarri latza ia tarterik gabe hasten zen haien gainean bertan.

Haren jaka tarrataturik zegoen ezkerreko galtzarbean eta lasto-izpiak zituen nonahi, galtza marradunek urratu bat zuten ezkerreko belau-nean eta zikingune lilakolare bat eskuinekoan. Gizakumearen lepo inguruan zeru-kolore urdin mineko gorbata bat zegoen loturik, eta gorbatako orratzak errubi faltsu bat zeukan apaingarri. Gorbataren kolorea hain zen bizia, ezen, noizean behin, Filip Filipovitxek, begi nekatuak itxi, eta zuzi gartsu bat ikusten baitzuen iluntasun beltzean, noiz sabaian, noiz horman, argi-koroa urdin batez inguraturik. Begiak ireki orduko, berriro itsutzen zen, zeren lurretik, kolore-sorta zabalduz, azpantar zuriek eta larru bernizduneko zapatek ikusmenari eraso egiten baitzioten.

«Bazirudik eskalapoiak dauzkala oinetan», pentsatu zuen Filip Filipovitxek, sentipen gozakaitez batez; arnasa sakon hartu, sudurretik putz egin, eta atxiki bat eman zion zigarro itzaliari. Ateko gizakumeak begi ilun samarrez begiratzen zion profesoreari eta zigarreta bat erretzen

zuen, errautsa alkandoraren paparrera erortzen zitzaiola.

Hormako erlojuak bostak jo zituen zurezko ganga azpibeltzaren alboan. Erlojuaren barruan zer edo zer intzirika ari zen oraindik Filip Filipovitxek elkarrizketari ekin zionean.

— Oker ez banago, gutxienez bi aldiz esan dizut ez lo egiteko sukaldeko etzalekuan, are gutxiago egunez.

Gizakumeak eztul egin zuen, indarrez, ezta-rrian hezurtxo bat trabatu balitzaio bezala, eta erantzun zuen:

— Sukaldeko airea atseginagoa da.

Haren ahotsa berezia zen, sorra eta ozena aldi berean, upel txiki batetik irtengo balitz bezala.

Filip Filipovitxek, buruari ezker-eskuin eragin, eta galdetu zuen:

— Nondik atera duzu itsuskeria hori? Gorbatz ari naiz.

Gizontxoak, begiradarekin hatzari jarraituz, begiak bere ezpain irtenaren gainetik okertu eta maitasunez begiratu zion gorbatari.

— Zergatik «itsuskeria»? —ekin zion Gorbata dotorea da, Daria Petrovnaren opari.

— Bada, Daria Petrovnaren opari hori itsusi-itsusia da, zapatak bezalaxe. Zer da gero purtzil-keria distiratsu hori? Nondik atera dituzu? Zer esan nizun? Zapata e-go-ki-ak erosteko; eta zer da hori, ordea? Ez didazu esango Bormental dok-toreak zapata horiek aukeratu dizkizula!

— Ez, nik agindu nion txarolezkoak erosteko. Zer dugu, baina?, ni jendea baino txarragoa naiz, ala? Zoaz Kuznetski kalera, han denek eramaten dituzte txarolezkoak.

Filip Filipovitxek, buruari eragin, eta larderiaz esan zuen:

— Ez duzu gehiago lo egingo sukaldeko etza-lekuan. Ulertzen? Zer lotsagabekeria da hori? Enbarazu egiten duzu. Emakumeak egoten dira hor.

Gizakumeak, bekozko iluna jarri, eta ezpai-nak luzatu zituen.

— Hor emakumeak egoten dira, bai. Eta? Hori dama pare! Neskame arrunt-arruntak dira, baina komisario bi baino harroputzagoak. Eta Zinka hori salatari hutsa da.

Filip Filipovitxek zorrotz begiratu zion:

— Etzaiozula Zinari Zinka deitu! Ulertu duzu? Isiltasuna.

— Galdetu dizut ea ulertu duzun!

— Ulertu dut.

— Ken ezazu zabor hori lepotik. Begiratu zeure... heure... zeure buruari ispiluan, begiratu nolako itxura duzun. Bufoia ematen duzu. Ez bota zigarreta-puntarik lurrera, ehungarren aldia da hori eskatzen dizudala. Ez dut entzun nahi irain-hitz gehiagorik etxe honetan! Ez tu egin! Hor daukazu listu-ontzia. Behar bezala erabili txizatokia. Eta solasaldi gehiagorik ez Zinarekin. Kexu da ilunpetan zelatatzen duzulako. Kontuz ibili, gero! Lehengo egunean nork erantzun zion paziente bati «Jainko txakurrak daki»? Tabernan zaudela uste duzu, ala?

— Uste dut gogorregi hartzen nauzula, aita-txo —esan zuen bat-batean gizakumeak, negar-antzean.

Filip Filipovitx gorri jarri zen, betaurrekoek ñir-ñir egin zioten.

— Nor da hemen zure aitatxo? Zer da familiartasun hori? Ez dut hitz hori berriro entzun nahi! Izenaz eta patronimikoaz dei iezadazu!

Ozartasuna piztu zen gizakumearen begitar-tean.

— Ez tu egin. Ez erre. Ez joan horra... Horrela ari zara denbora guztian. Zer da hau, gero! Tran-bian gaudela ematen du. Zergatik ez didazu bizi-tzen uzten? Eta «aitatxo» deitzeari dagokionez, alferrik ari zara. Nik eskatu nizun ebakuntza egi-teko, ala? —gizakumea haserre biziz zaunkaka ari zen Hau da hau! Animalia bat harrapatu, labanarekin burua ireki, eta orain arbuiatu egi-ten dute. Nik ez nizun baimenik eman ebakuntza egiteko. Ezta... —gizakumeak sabaira begiratu zuen, adierazpideren bat gogoratu nahi balu bezala ... nire senideek ere. Zu auzitara erama-teko eskubidea dut.

Filip Filipivotxen begiak biribil-biribil zabaldu ziren, zigarroa eskutik erori zitzaion. «Hau tipoa!», pentsatu zuen une labur batez.

— Gizaki bihurtu zaitugu, eta hala ere ez zaude pozik? —galdetu zion, begiak ñarroiturik Beharbada, aukeran nahiago duzu berriz ere

zabortegiz zabortegi ibil? Atari-azpietan izoztu? Ondo da, jakin izan banu...

— Zabortegiak, zabortegiak... Zergatik leporatzen didazu hori behin eta berriro? Eguneroko ogi-puska lortzen nuen horrela. Eta ebakuntzan hil banintz? Zer erantzuten diozu horri, tobaritxa?

— Filip Filipovitx! —lehertu zen, garrasika, Filip Filipovitx Ni ez naiz zure tobaritxa! Mustrakeria handiagorik!

«Hau amesgaiztoa duk, amesgaiztoa», egin zuen bere artean.

— Ez, jakina, horrelakorik bururatzea ere... — esan zuen gizakumeak, ironiaz, eta zangoak zabaldu zituen garailearen harrotasunaz ulertzen dugu. Nolatan izango gara gu zure tobaritxak? Nondik nora? Guk ez dugu unibertsitatean ikasi, gu sekula ez gara bizi izan 15 gela eta komunak dituzten etxebizitzetan. Baina, orain, amaitu da hori guztia. Gaur egun nork bere esku-bideak ditu...

Filip Filipovitxek zurbil entzuten zuen gizakumearen arrazoibidea. Hark solasa eten zuen, eta, arranditsu, hautsontzira hurbildu zen, ziga-

rreta hozkatua eskuan. Baldarra zen ibileran. Luzaz egon zen zigarretaren punta hautsontzian zapaltzen, begitarteak honakoa argi adierazten zuela: «Har ezak hori!». Zigarreta itzalitakoan, hortzak klaskatu zituen eta galtzarbean sartu zuen sudurra.

— Arkakusoak hatzekin harrapatzen dira! Hatzekin! —egin zuen oihu Filip Filipovitxek, amorru biziz Ez dut ulertzen nondik ateratzen dituzun!

— Zer uste duzu?, hazi egiten ditudala? —mindu zitzaion gizakumea Inondik ere, gogoko naute arkakusoek —hori esanik, mahukaren barruko forradura haztatu, eta kotoi-puska gorrixka arin bat atera zuen.

Filip Filipovitxek sabaiko girlandetara jaso zituen begiak eta hatzekin mahaia atabalatzen hasi zen. Gizakumea, arkakusoa hildakoan, urrundu eta aulki batean eseri zen, besoak behe-  
ra eroririk eta eskuak jakaren papar-hegalei erantsirik. Parketean josi zituen begiak. Bere zapatei begira zegoen, eta horrek atsegin handia ematen zion. Filip Filipovitxek zapaten punta



kamutsek biziki distirutzen zuten aldera begiratu zuen; begiak ñarroto eta esan zuen:

— Zein da jakinarazi nahi zenidan beste kontua?

— Beste kontua? Kontu erraza da. Nortasun-agiria behar dut, Filip Filipovitx.

Dardara arin batek hartu zuen Filip Filipovitx.

— Jum... Deabrua! Nortasun-agiria! Egia da... Mmm... tira, beharbada, nola edo hala konpon daiteke hori... —haren ahotsak doinu zalantzati eta goibela zuen.

— Mesedez —erantzun zuen gizakumeak, ziurtasunez nolatan ibiliko naiz nortasun-agiririk gabe? Barkatu, baina lehenbailehen behar dut. Zuk zeuk ondo dakizunez, nortasun-agiririk ez duenak zorrotz debekaturik dauka izatea bera. Hasteko, etxeko batzordea...

— Zer ikusteko du honetan etxeko batzordeak?

— Zer ikusteko duen? Nirekin topo egiten duten bakoitzean, zera galdetzen didate, noiz erroldatuko zara, jaun agurgarri hori?

— Jainko maitea! —egin zuen oihu Filip Filipovitxek, goibel Zurekin topo egiten dute, galde-

tzen dizute... Susmatzen dut zer esaten diezun. Gainera, debekatu egin dizut eskaileretan usnaka aritzea.

— Zer, preso naukazu, ala? —harritu zen gizakumea, eta zuzen zegoelako segurantzaz piztu zitzaion are errubian bertan ere Eta zergatik esan duzu «usnaka aritzea»?! Zure hitzak iraingarri samarrak dira niretzat. Ni ibili egiten naiz, jende guztia bezala.

Hori esateaz batera, parketa jo zuen larru bernizduneko zapatekin.

Filip Filipovitx isilik geratu zen eta bazterrera jiratu zituen begiak. «Nolanahi ere, neure buruaren jabe izan behar diat», pentsatu zuen. Arasaino joan, eta edalontzi bete ur edan zuen arnasa batean.

— Ondo da —esan zuen, lasaiago hitzak ez dira kontua. Orduan, zer dio zure batzorde kuttun horrek?

— Zer esango du ba! Eta bidegabeki iraintzen duzu kuttuna deituz. Batzordeak interesak babesten ditu.

— Noren interesak? Esadazu, mesedez.

— Gauza jakina da: langileriarenak.

Filip Filipovitxek zabal-zabal ireki zituen begiak.

— Eta zu langilea zara, ez da?

— Jakina, ez naiz merkataria.

— Tira, ondo da. Beraz, zer behar du batzordeak zure interes iraultzaileak babesteko?

— Argi dago zer behar duen: ni erroldatzea. Zera esaten didate, ea Moskun noiz ikusi den erroldatu gabe bizi den gizakumerik. Hori, haste-ko. Eta garrantzitsuena: soldadutzarako txartela. Ez dut desertorea izan nahi. Eta, gainera, sindikatua, estatuaren lan-bulegoa...

— Baina, azal iezadazu, mesedez, non erroldatuko zaitut? Zamau honetan ala nire pasapor-tean? Zeren, nolana ere, kontuan hartu behar dugu zure egoera! Ez ahaztu zu... zera... mmm... zu, nola esango nuke?, ustekabean agerturiko izaki bat zarela, laborategikoa. —Filip Filipovitxek gero eta ziurtasun ahulagoz hitz egiten zuen.

Gizakumea isil-isilik zegoen, garaile-antzean.

— Ondo da. Labur esanik, zer egin behar dugu zu erroldatzeko eta dena zure batzorde

horren egitasmoen arabera antolatzeko? Kontua da ez duzula ez izenik ez abizenik.

— Ez da bidezkoa hori esatea. Izena nik neuk aukera dezaket lasai asko. Egunkarian argitaratu, eta kito.

— Eta nola deitu nahi diozu zeure buruari?

Gizakumeak, gorbata zuzen jarri, eta erantzun zuen:

— Poligraf Poligrafovix.

— Ez izan ergela —erantzun zion Filip Filipovixek, bekozko ilunez serio ari naiz zurekin hizketan.

Irribarre maltzur batek gizakumearen bibotea okertu zuen.

— Bada gauza bat ulertzen ez dudana —esan zuen, alai eta zentzudun Ezin dut zure ama aipatu. Ezin dut tu egin. Baina zuri gauza bakarra entzuten dizut: «Ergela, ergela». Antza denez, Resefeseren profesoreek bakarrik dute zilegi iraintzea.

Filip Filipovix gorri-gorri jarri zen, eta edalontzia hautsi zitzaion, une horretan betetzen ari baitzen. Beste batetik edan eta gero, pentsatu zuen: «Hemendik gutxira, irakaspenak ematen

hasiko zaidak, eta arrazoi osoa izango dik. Ez nauk gai neure burua menderatzeko».

Aulkian jiratu, neurritz gaineko jendetasunez makurtu, eta gogortasun latzez esan zuen:

— Bar-katu. Dantzari dauzkat nerbioak. Bitxia iruditu zait zure izena. Gustatuko litzaidake jakitea nondik atera duzun.

— Etxeko batzordeak proposatu dit. Egutegia arakutzen ari ginen, eta esan didate: zein nahi duzu? Eta aukeratu dut.

— Ezinezkoa da inongo egutegitan horrelako izenik agertzea.

— Harrigarri samarra da hori —gizakumeak irribarre txikia egin zuen izan ere, azterketa-gelan daukazu esekirik.

Filip Filipovitxek, altxatu gabe, atzerantz bermaturik, hormako paperean zegoen botoia saka-tu zuen, eta, txirrin-hotsa entzunik, Zina agertu zen.

— Azterketa-gelako egutegia.

Etenaldia egin zuten. Zina egutegiarekin itzuli zenean, Filip Filipovitxek galdetu zuen:

— Non?

— Martxoaren 4an ospatzen da.

— Erakutsi... Jum... Deabrua... Bota hau sutara, Zina, oraintxe bertan.

Zina, izuaren izuz zabal-zabalik begiak, egutegiarekin joan zen, eta gizakumeak ezkereskuin eragin zion buruari, gaitzespenez.

— Eta jakin dezaket zein abizen aukeratu duzun?

— Ados nago oinordetzaz dagokidana hartzearekin.

— Nola? Oinordetzaz? Zein?

— Sharikov.

\* \* \*

Etxeko batzordeko lehendakaria, Shvonder, zutik zegoen langelako mahaiaren aurrean, larruzko jaka batez jantzirik. Bormental doktorea besaulkian eseririk zegoen, Filip Filipovitxengandik hurbil. Hotzak gorriturik zeuzkan masailak (itzuli berria zen), eta haren aurpegiak Filip Filipovitxenak bezain harridura handia agertzen zuen.

— Zer idatzi behar dut? —galdetu zuen Filip Filipovitxek, luzetsirik.

— Zer? —hasi zen Shvonder Ez da batere zaila. Ziurtagiri bat idatzi behar duzu, herritar profesorea. Hau dela eta bestea dela, agiri hau aldean daramana Sharikov Poligraf Poligrafovix dela benetan eta... zera... zure etxean jaio dela.

Bormental urduri mugitu zen besaulkian, txunditurik. Filip Filipovitxek biboteari tira egin zion.

— Jum... Deabrua! Ezin dut ergelkeria handia-gorik irudikatu. Bera ez da jaio, inola ere ez, besterik gabe... zera... hitz batean...

— Jaio den ala ez, zure arazoa da —esan zuen Shvonderrek, poz gaizto lasai batez Azken batean, zeuk egin duzu esperimientua, profesorea! Zeuk sortu duzu Sharikov herritarra.

— Oso erraz gainera —egin zuen zaunka Sharikovek liburuen armairutik. Gorbatariki tinko begira zegoen, ispiluko sakontasun hondogabea islatzen baitzen.

— Biziki eskertuko nizuke —zapuztu zitzaion Filip Filipovitx elkarrizketan ez sartzea. Arrazoirik gabe esan duzu «oso erraz gainera», ez da batere erraza izan.

— Zergatik ezin naiz sartu elkarrizketan? —  
murduskatu zuen Sharikovek, mindurik.

Shvonderrek haren alde egin zuen berehala.

— Barkatu, profesorea, Sharikov herritarrak  
arrazoi osoa du. Eskubidea du bere zoriari buruz-  
ko eztabaidan parte hartzeko, batez ere kontuan  
izanik nortasun-agiriaz ari garela. Nortasun-agi-  
ria munduko gauzarik garrantzitsuena da.

Une horretan, edonor gortzeko moduko zara-  
ta hurbil batek elkarrizketa eten zuen. Filip Fili-  
povitxek, telefonoaren mintzagailua hartu, eta  
esan zuen: «Bai»... Gorritu, eta garrasika hasi  
zen:

— Mesedez eskatzen dizut huskeriekin ez  
eragozteko. Zuri zer axola dizu horrek?

Eta indarrez eseki zuen mintzagailua bere  
kakoan.

Alaitasun zerutiar bat jabetu zen Shvonde-  
rren aurpegiaz.

Filip Filipovitxek, gorri-gorri, oihu egin zuen:

— Buka dezagun behingoz!

Koaderno batetik orri bat kendu, presaka hitz  
batzuk idatzi, eta, amorru biziz, ozenki irakurri  
zuen:



— «Behean sinatzen duenak ziurtatzen du»... Arraioa... Jum... «Paper hau aldean daramana burmuinean ebakuntza eginik laborategiko esperimentu baten bidez lorturiko gizakia dela eta, beraz, ez duela nortasun-agiririk»... Mila deabru! Ni honelako agiri ergelen kontra nago erabat. Sinatzailea: «Preobrajenski profesorea».

— Bitxi samarra da gero, profesorea —mindu zitaion Shvonder Nolatan esan dezakezu honelako agiriak ergelak direla? Nik ezin dut onartu nortasun-agiririk gabeko bizilagunik etxean, eta hemengo hau, gainera, poliziak ez dauka errejistraturik soldadutzarako zerrendan. Eta bat-batean gerra hasiko balitz harrapari inperialisten kontra?

— Ni ez naiz joango inongo gerratan borrokatzera! —egin zuen oihu bat-batean Sharikovek, bekozko ilunez, liburuen armairuaren aldamenetik.

Shvonder harri eta belarri eginik geratu zen, baina laster seneratu zen eta adeitasunez ohar-tarazi zion Sharikovi:

— Sharikov herritarra, arduragabetasun izugarri handiz hitz egiten ari zara. Ezinbestekoa da soldadutzarako zerrendan errejistraturik egotea.

— Errejistratuko naiz, baina gerrara joan, ezta pentsatu ere —zakartu zen Sharikov, gorbataren korapiloa antolatzen zuen bitartean.

Orduan, Shvonderri egokitu zitzaion harritze-ko txanda. Preobrajenskik gaiztotasunez eta goibel begiratu zion Bormentali: «To morala! Hori nahi zenuen, ez da?». Bormentalek baiezkoa egin zuen buruaz, oso modu adierazkorrean.

— Zauri larriak ditut ebakuntzaren ondorioz —egin zuen intziri Sharikovek, bekozko iluna jarririk begira, begira nola utzi nauten —eta burua seinalatu zuen. Ebakuntzako orbain berri-berriak alderik alde zeharkatzen zion bekokia.

— Zu anarkista indibidualista zara? —galdetu zuen Shvonderrek, bekainak gora jasorik.

— Nik soldadutzatik salbuetsirik geratzeko eskubidea dut —erantzun zion Sharikovek.

— Tira, ondo da, oraingoz horrek ez du garrantzirik —erantzun zuen Shvonder harrituak Professorearen ziurtagiria poliziari bidaliko diogu eta nortasun-agiria egingo dizute.

— Zera... —moztu zion ustekabeen Filip Filipovitxek, ideiaren batek nabarmenki estaturik baduzu gelarik libre etxean? Erosi egingo nizuke.

Txinpart horixkak agertu ziren Shvonderren begi gaztainkaretan.

— Ez, profesorea, tamal handiz. Eta gerora ere ez dut izango.

Filip Filipovitxek ezpainak estutu zituen eta ez zuen ezer esan. Telefonoak ero legez jo zuen berriro. Filip Filipovitxek, ezer galdetu gabe, isilik hartu zuen mintzagailua bere kakotik, hain bortizki, ezen apur batean jirabiraka aritu eta bere hari urdinetik zintzilik geratu baitzen. Zirgit egin zuten denek. «Zainak airean zegok zaharra», pentsatu zuen Bormentalek, eta Shvonder, begiak bi txinpart eginik, buru-makurtua egin eta han joan zen.

Sharikov haren atzetik abiatu zen, oinetakok kurrinka egiten ziotela.

Profesorea bakarrik gelditu zen Bormentalekin. Isilune labur baten ondotik, Filip Filipovitxek astiro eragin zion buruari eta esan zuen:

— Hau amesgaiztoa da, benetan. Ikusi duzu? Zin egiten dizut, doktore maitea, bi aste hauetan

azken 14 urteotan baino gehiago nekatu naizela!  
Nolako tipoa! Jakinarazi behar dizut ezen...

Beira bat zarata sorra eginez hautsi zen gelatik urrun; gero, emakume baten garrasi itoa entzun zen une batez, eta bertantxe itzali zen. Halako indar eragabe batek korridorearen bi aldeak jo zituen, azterketa-gelako bidean, han zalaparta izugarria sortu, eta atzera itzuli zen berehala. Ateak danbadaka hasi ziren, eta sukaldetan Daria Petrovnaren oihu apala entzun zen. Gero, uluka hasi zen Sharikov.

— Jainkoarren, zer dugu orain? —oihukatu zuen Filip Filipovitxek, oldar bizian aterantz zihola.

— Katua —egin zuen kontu Bormentalek, eta lasterka joan zen haren atzetik. Zangoen egina hal guztian joan ziren harrera-gelara korridorean barrena, oldarrean sartu ziren biak han, handik korridorera jo zuten eta komunera eta bainuge-lara abiatu ziren. Zinak, sukaldetik lasterka irten, eta tupust egin zuen Filip Filipovitxen kontra.

— Zenbat aldiz esan dizuet ez dudala katurik nahi etxean? —egin zuen oihu Filip Filipovitxek, amorru bizian Non dago? Ivan Arnoldovitx, Jain-

koaren izenean, zoaz harrera-gelara pazienteak lasaitzera!

— Bainugelan, bainugelan dago deabru madarikatu hori —egin zuen garrasi Zinak, arnasestuka.

Filip Filipovitxek indarrez bultzatu zuen bainugelako atea, baina ez zen ireki.

— Ireki ezazu oraintxe bertan!

Erantzun gisa, zer edo zer jauzika hasi zen bainugela itxiko hormetan, garbiontziak zarataz erori ziren lurrera, Sharikoven ahots basatiak orro sorra egin zuen atiaz bestaldean:

— Berton hilko haut...

Urak zarata egin zuen hodiedetan eta isurtzen hasi zen. Filip Filipovitx indarrez bermatu zen atean eta bere erroetatik ateratzen saiatu zen. Daria Petrovna sukaldeko atean azaldu zen, izerditan blai eta aurpegia antzaldaturik. Gero, bainugelako sabaiaren azpian bertan sukaldera ematen zuen beira handia alderik alde pitzatu zen, bi beira-puska erori ziren lurrera, eta haien ondotik katu erraldoi batek jauzi egin zuen kanpora. Marra tigrekarak zituen, eta udaltzain-itxura ematen zion begizta urdin argi bat lepo ingu-

ruan. Mahaian zegoen azpil luze baten gainera erori zen zuzen-zuzenean, bi zatitan puskatu zuen, azpiletik lurrera jaitsi zen, gero hiru hanken gainean atzera jiratu zen eta airean eragin zion eskuinekoari, dantzan ari balitz bezala, eta zerbitzarien eskailerara ematen zuen zirritu estutik sartu zen berehala. Zirritua handitu egin zen, eta adineko emakume buruzapidun baten aurpegiak ordeztu zuen katua. Emakume adintsuaren gona orban zuriz betea sukaldean sartu zen. Emakume adintsuak, hatz erakuslearekin eta lodiarekin bere aho horzgabea xukatu, bere begi handitu eta zorrotzekin sukaldea arakatu, eta jakin-minez esan zuen:

— Oi, ene Jesus!

Filip Filipovitxek, zurbil, sukaldea zeharkatu zuen eta larderiatsu galdetu zion emakume adintsuari:

— Zer nahi duzu?

— Begiratu bat eman nahi nioke txakurtxo hiztunari —erantzun zuen, ahots-doinu gozoz, emakume adintsuak, eta gurutzearen seinalea egin zuen.

Filip Filipovitx are zurbilago jarri zen, ondo-ondoraino hurbildu zitzaion emakumeari eta ahots itoz xuxurlatu zion belarrira:

— Ospa sukaldetik, segituan!

Emakume adintsua atzeraka joan zen ateraino, eta mindurik esan zuen:

— Zure jokabidea oso lotsagabea da, profesore jauna.

— Ospa esan dizut! —errepikatu zuen Filip Filipovitxek, eta hontzarenak bezain biribil jarri zitzaizkion begiak. Danbada batez itxi zuen zerbitzarien atea emakume adintsuaren atzean Daria Petrovna, lehenago ere esana dizut!

— Filip Filipovitx —erantzun zuen Daria Petrovnak, etsia harturik eta ukabilekin beso biluziak estutuz Zer egin ahal dut nik? Jendea samaldaka etortzen da egunero, etxera indarrez sartu nahirik. Dena bertan behera uzteko gogoia ematen dit!

Urak sor eta larderiatsu egiten zuen burrunba bainugelak, baina ez zen ahotsik berriro entzun. Bormental doktorea sartu zen.

— Ivan Arnoldovitx, arren eskatzen dizut... jum... zenbat paziente daude?

— Hamaika —erantzun zuen Bormentalek.

— Bidali denak etxera, gaur ez dut inor hartuko.

Filip Filipovitxek, hatz-koskorrez atea jo, eta oihu egin zuen:

— Irten zaitez oraintxe bertan! Zergatik itxi zara?

— Au-au! —erantzun zuen Sharikoven aho-tsak, erostari eta ahul.

— Mila deabru!... Ez dut ezer entzuten, itxi ura.

— Guau! Guau!...

— Itxi ezazu ura, bada! Zer egin ote du? Ez dut tutik ulertzen... —egin zuen oihu Filip Filipovitxek, sutan.

Zina eta Daria Petrovna sukaldetik begira zeuden, atea irekirik. Filip Filipovitxek berriro jo zuen atea, ukabilaz.

— Hemen dago! —egin zuen garrasi Daria Petrovnak sukaldetik.

Filip Filipovitxek heriosuhar jo zuen hara. Sabai azpiko leiho hautsian Poligraf Poligrafovitxen aurpegia agertu zen, sukaldera begira. Kizkurturik zegoen, begiak negartsu, eta odol isuri



berriak su-kolorez gorrituriko atzaparkada luzea zeukan sudurrean.

— Zoratu egin zara? —galdetu zion Filip Filipovitzek Zergatik ez zara irteten?

Sharikovek, gogoilun eta beldurrez atzera begiratu, eta erantzun zuen:

— Itxirik geratu naiz.

— Eragin kisketari. Inoiz ez duzu kisketarik ikusi, ala?

— Ez da mugitzen, madarikatua! —erantzun zuen Poligrafek, izaturik.

— Ene Jainkoa! Segurtagailuaz itxi du! —egin zuen oihu Zinak, eta espantuz jaso zituen besoak.

— Hor bada botoi txiki bat! —egin zuen garra-si Filip Filipovitzek, uraren zarata baino ozenago hitz egiten saiatuz saka ezazu beherantz... Beherantz sakatu! Beherantz!

Desagertu zen Sharikov, eta minutu bat geroago berriro azaldu zen leihoan.

— Ez dut ezer ikusten —egin zuen zaunka leihoan, ikaraturik.

— Bada, piztu lanpara! Amorruek hartu du!

— Katutzar horrek txiki-txiki egin du lanpara madarikatua —erantzun zuen Sharikovek eta, gainera, piztia zital horri hanketatik heltzen saiatu naizenean, bere lekutik atera dut uraren giltza, eta orain ezin dut inon aurkitu.

Hirurek espantuz jaso zituzten besoak eta horrelaxe gelditu ziren.

Bost minutu geroago, Bormental, Zina eta Daria Petrovna elkarren aldamenean eseririk zeuden tapiz bustiaren gainean, atearen oinean biribilkatua baitzuten, eta ate azpiko zirrituaren kontra estutzen zuten ipurmamiekin, eta Fiodor atezaina, berriz, sabaileihoraino igotzen ari zen zurezko eskailera batetik, eskuan Daria Petrovna-ren eztei-kandela zeukala, pizturik. Haren atzealde lauki gris zabalez jantzia une batez azaldu zen airean eta irekigunean desagertu zen berehala.

— Au... au, au! —Sharikov zer edo zer oihukatzen ari zen uraren burrunbaren erdian.

Fiodorren ahotsa entzun zen:

— Filip Filipovitx, edonola ere, ireki egin behar dugu atea. Irten dadila ura, sukaldetik xurgatuko dugu gero.

— Ireki ezazu! —egin zuen oihu Filip Filipovitchek, haserre.

Tapizetik altxatu ziren hirurak, bainugelako atea bultzatu zuten, eta ura bertantxe isuri zen korridorera, parrastan eta indarrez. Korridorean, hiru uholdetan banatu zen: bata zuzen-zuzen komunerantz, aurrez aurre baitzegoen, bestea eskuinetara sukalderantz, eta hirugarrena ezkerretara harrera-gelarantz. Plisti-plasta eta jauzika, Zinak danbadaz itxi zuen atea. Ura orkatiletaraino zeukala irten zen Fiodor, arrazoiren batengatik irribarrez. Blai-blai eginik zegoen burutik oinetaraino.

— Ondo kostata eten dut isuria, urak presio handia zekarren —azaldu zuen.

— Non da bera? —galdetu zuen Filip Filipovitchek, eta, madarikazioka, zango bat altxatu zuen.

— Ez da ausartzen irteten —jakinarazi zion Fiodorrek, irribarre zozoa eginez.

— Jo egingo nauzu, aitatxo? —iritsi zen bainugelatik Sharikoven ahotsa, negar-antzean.

— Babo arraioa! —erantzun zuen Filip Filipovitchek, labur.

Zinak eta Daria Petrovna, oinetakorik gabe eta gonak belaunetaraino bildurik, eta Sharikovek eta atezainak, oinutsik eta galtzak gora jasorik, trapu bustiak jaurtitzen zituzten sukaldeko zorura, eta zakarrontzian eta harraskan urgabetzen zituzten gero. Sutegia marruka ari zen, inork kontu egiten ez ziola. Ura eskailera zarata-tsura irteten zen ate azpitik, zurubi-zulora zuzen, eta handik satora erortzen zen.

Bormentalek, harrera-gelako putzu sakonean oin-puntetan tente, jendearekin negoziatzen zuen ate doi bat irekitik zehar, katetxoaz itxirik baitzeukan.

— Gaur ez dago kontsultarik, profesorea ondoezik dago. Urrundu atetik, mesedez, ur-hodi bat lehertu zaigu...

— Eta noiz hartuko nau? —ekin zion ahots batek atiaz bestaldean minutu bat baino ez dut behar...

— Ezin dut —Bormental orpoetan bermatu zen, oin-puntak altxaturik profesorea ohean dago, eta ur-hodia lehertu egin zaigu. Itzuli bihar, mesedez. Zina! Laztana! Xukatu inguru

hau, bestela ura eskailera nagusira helduko da eta.

— Trapuek ezin dute ur gehiago hartu.

— Pitxerrekin bilduko dugu, berehala —erantzun zuen Fiodorrek berehala.

Txirrinak behin eta berriro jotzen zuen, eta ordurako Bormental oin-zolen gainean zegoen uretan.

— Noiz izango da ebakuntza? —tematzen zen ahots bat, norbaitek ate-zirritutik sartzeko ahaleginak egiten zituen bitartean.

— Ur-hodi bat lehertu da...

— Eskalapoiak jantziko ditut...

Silueta urdinkarak agertzen ziren atiaz bestaldean.

— Ezinezkoa da, etorri bihar, mesedez.

— Baina gaurko daukat ordua.

— Bihar. Hondamendia gertatu zaigu ur-hodiekin.

Fiodor eginahalean ari zen doktoarearen oinen inguruan, aintziraren erdian, pitxer batekin urari ekin eta ekin, eta Sharikov atzaparkadaz josiak bide berri bat asmatua zuen. Trapu izugarri handi bat biribilean bildu, sabelaz behera uretan

etzanik jarri, eta ura harrera-gelatik komunera-  
rantz bultzatzen hasi zen.

— Zertan habil, deabru hori? Etxebizitza osoan barreiatzen ari haiz ura! —haserretu zitzaion Daria Petrovna Harraskara bota.

— Zergatik harraskaraino eraman? —erantzun zuen Sharikovek, ur uherra eskuetan hartuz eskailera nagusira helduko da laster.

Korridoretik aulkitxo bat irten zen kirrinka eginez, eta Filip Filipovitx tente jarri zen haren gainean, aldaroka oreka gordez, galtzerdi marra-  
dun urdinak jantzirik.

— Ivan Arnoldovitx, utzizu erantzuteari eta zoaz logelara, oinetakoak emango dizkizut.

— Eskerrik asko, Filip Filipovitx, ez kezkatu nitaz.

— Gutxienez, jantzi eskalapoiak.

— Ez du merezi, dagoeneko busti-bustirik dauzkat oinak.

— Ai, ene Jainkoa! —muzindu zen Filip Filipovitx.

— Bai animalia kaltegarria! —egin zuen bat-batean Sharikovek, eskuan zopa-ontzi bat zekarrela kukubilko itzuli berria baitzen.

Bormentalek danbadaz itxi zuen atea, eta, barregurari ezin eutsirik, irri-karkaraka hasi zen. Filip Filipovitxi sudur-zuloak puztu zitzaizkion, eta betaurrekoek ñir-ñir egin zioten.

— Nortaz ari zara? —galdetu zion Sharikov aulkitxoaren gainetik Horixe jakin nahi nuke.

— Katuaz ari naiz. Bilaua alaena! —erantzun zuen Sharikovek, begiak baztertuz.

— Sharikov —erantzun zuen Filip Filipovitxek, arnasa hartuz sekula ez dut zu baino izaki lotsagabeagorik ikusi, benetan.

Bormentalek irribarre txikia egin zuen, isilgordeka.

— Lotsagaldu hutsa zara —jarraitu zuen Filip Filipovitxek Nola ausartzen zara hori esaten? Zure erruz gertatu da hau guztia, eta, hala ere, ausartu egiten zara... Hau jasanezina da! Bai horixe!

— Sharikov, esadazu, mesedez —ekin zion Bormentalek noiz arte ibiliko zara katu-harrapaketan? Lotsa eman beharko lizuke! Sumingarria da! Basati hutsa zara!

— Basatia ni? Zer dela eta? —erantzun zuen Sharikovek, bekokia zimurturik Ni ez naiz basa-

tia. Ez dago jasaterik katu hori etxean. Ahal duen guztia lapurtzea beste asmorik ez du. Okela xehatua jan dio Dariari. Eskarmentu on bat eman nahi nion.

— Zuk behar duzu eskarmentu on bat! — erantzun zuen Filip Filipovitxek begira iezaiozu zeure aurpegiari ispiluan.

— Begia atera ez didanean! —erantzun zuen Sharikovek, goibel, begia esku busti zikinarekin ukituz.

Parket hezetasunak belztua apur bat lehortu zenean, ispilu guztiak ur-lurrunez gandutu ziren, bainuetxeetakoak bezala, eta txirrin-hotsak eten egin ziren. Filip Filipovitx zutik zegoen harrera-gelan, eskuan ahuntz-larruzko txapin gorri bi zeuzkala.

— Hartu, Fiodor, zuretzat.

— Mila esker.

— Aldatu jantziak oraintxe bertan. Eta joan Daria Petrovnarengana edalontzi bete vodka edatera.

— Mila esker. —Fiodorrek zango batetik bestera aldatu zuen gorputzaren zama, urduri, eta gero esan zuen Bada beste kontu bat, Filip Filipino-



vitx. Barkamena eskatzen dizut, lotsa handia ematen dit esateak, baina... zera... 7. etxebizitzako leihoa da arazoa... Sharikov herritarra harriak botatzen ibili da...

— Katu bati? —galdetu zuen Filip Filipovitxek, begitarte ilundurik, hodei batek itzal egin balio bezala.

— Bai zera, etxeko nagusiari berari. Salatu egingo duela esan dio.

— Deabrua!

— Sharikovek haien sukaldaria besarkatu du, eta etxeko nagusia kanpora bidaltzen saiatu da. Hitz batean, liskarraldia izan dute.

— Jainkoaren izenean, gertatu bezain laster jakinaraziezazkidazu beti horrelako gauzak! Zenbat zor dizut?

— Errublo bat eta erdi.

Filip Filipovitxek, berrogeita hamar kopekeko hiru txanpon distiratsu atera, eta Fiodorri eman zizkion.

— Horrelako gizatxar baten erruz errublo bat eta erdi ordaintzea ere! —entzun zen ahots sorbat atean bera izan da...

Filip Filipovitx atzera jiratu zen; ezpainak hozkatu, ezer esan gabe Sharikov harrera-gelaraino bultzaka eraman, eta giltzaz itxi zuen han. Sharikov bertantxe hasi zen ukabilekin atea barrutik jotzen.

— Aski da! —egin zuen garrasi Filip Filipovitxek, ahotsa nabarmenki gaitziturik.

— Egia esan —ohartarazi zuen Fiodorrek, oso modu adierazkorrean neure bizitza osoan ez dut lotsagabe handiagorik ikusi.

Bormental agertu zen orduan, lur azpitik irten balitz bezala.

— Filip Filipovitx, ez aztoratu, mesedez.

Eskulapio bihoztunak harrera-gelako atea ireki zuen, eta haren ahotsa iritsi zen handik:

— Zer da hau, gero! Tabernan zaudela uste duzu, ala?

— Hori da eta! —gaineratu zuen hitzetik hortzera Fiodorrek Hori da... Belarrondoko on bat merezi du...

— Ez horrelakorik esan —murduskatu zuen Filip Filipovitxek, goibel.

— Barkatu, Filip Filipovitx, pena ematen didazu.

## VII

— Ez, ez eta ez! —esan zuen Bormentalek, temati Jantzi egin behar duzu.

— Zergatik, baina? Hau da hau! —egin zuen marmar Sharikovek, muturturik.

— Eskerrik asko, doktorea —esan zuen Filip Filipovitxek, adiskidetsu dagoeneko gogaiturik nago beti kargu hartzen aritzeaz.

— Egin nahi duzuna, baina jantzen ez baduzu, ez dizut jaten utziko. Zina, kendu maionesa Sharikovi.

— «Kendu»? Zergatik «kendu»? —nahigabetu zen Sharikov Segituan jantziko dut.

Ezkerreko eskuaz Zinarengandik babestu zuen platera; eskuinaz, berriz, alkandora-lepoaren azpian sartu zuen ezpain-zapia eta ile-apaindegiko bezero baten itxura hartu zuen horrela.

— Eta erabili sardexka, mesedez —gaineratu zuen Bormentalek.

Sharikovek hasperen luzea egin zuen eta platereko saltsa lodian gaizkata-zatitxoak harrapatzen hasi zen.

— Vodka apur bat gehiago edango dut? —  
ohartarazi zuen, galderati.

— Oraindik ez duzu nahikoa edan? —jakin  
nahi izan zuen Bormentalek Azken bolada hone-  
tan vodkara emanegi zaude.

— Pena ematen dizu zure vodkak? —jakin  
nahi izan zuen Sharikovek, eta begi-ertzetik  
begiratu zion.

— Zozokeriak esaten ari zara... —sartu zen  
tartean Filip Filipovitx, zorrotz, baina Bormenta-  
lek moztu egin zion.

— Lasai, Filip Filipovitx, utzi nire esku. Zuk,  
Sharikov, ergelkeriak esaten dituzu beti, eta  
amorragarriena da biribilki eta erabateko ziurta-  
sunez esaten dituzula. Vodkak ez dit inolako  
penarik ematen, are gutxiago kontuan izanik ez  
dela nirea, Filip Filipovitxena baizik. Kaltegarria  
da, besterik ez. Hori alde batetik, eta beste alde  
batetik, berriz, vodkarik gabe ere lotsagabeki  
jokatzen duzu.

Bormentalek arasako beira paper-zerrendaz  
finkatuak seinalatu zituen.

— Zinushka, emadazu arrain gehiago, mese-  
dez —esan zuen profesoreak.

Bitartean, Sharikovek botilarantz luzatu zuen besoa, eta, Bormentali zeharka begiratzen ziola, bere kopatxoa bete zuen.

— Besteiei ere eskaini behar zaie —esan zuen Bormentalek eta hurrenkera honetan: lehen Filip Filipovitxi, gero niri, eta azkenean zeure buruari.

Sharikovek, ozta-ozta atzemateko moduko irribarretxo batez ahoa okertu, eta kopa guztietara isuri zuen vodka.

— Gala handiko festa batean bezala jokatzeko duzue beti etxe honetan —esan zuen ezpain-zapia hor, gorbata hemen, eta «barkatu», eta «mesedez, merci», baina ezertxo ere ez duzue behar bezala egiten. Zeuen burua oinazetzen duzue tsarren garaian bezala.

— Eta zuretzat zer da gauzak «behar bezala» egitea? Esadazu, mesedez.

Sharikovek ez zion ezer erantzun Filip Filipovitxen galdera horri, eta, kopa altxaturik, esan zuen:

— Guztioi opa dizuet...

— Baita guk zuri ere —erantzun zion Bormentalek, nolabaiteko ironiaz.

Sharikovek, arnasa batean bere koparen edukia eztarrian hustu, bekokia zimurto, ogizatitxo bat sudurrera hurbildu, usaindu, eta irentsi egin zuen, begiak malkoz beterik.

— Ohitura —esan zuen ustekabean Filip Filipovitxek, labor eta berebaitaratu-antzean.

Bormentalek begi-ertzetik begiratu zion, harriturik.

— Barkatu...

— Ohitura! —errepikatu zuen Filip Filipovitxek, eta ezker-eskuin eragin zion buruari, saminez ezin dugu ezer egin. Klim.

Bormentalek zorrotz begiratu zion Filip Filipovitxi begietara, interes biziz:

— Hala uste duzu, Filip Filipovitx?

— Ez dut uste, ziur nago hala dela.

— Litekeena da... —hasi zen Bormental, baina bertantxe isildu zen, begi-ertzetik Sharikovi begira.

Sharikovek bekozko iluna jarri zuen, gogan-behartsu.

— Später... —esan zuen Filip Filipovitxek, ahopean.

— Gut —erantzun zuen laguntzaileak.

Zinak indioiloa ekarri zuen. Bormentalek ardo beltza isuri zuen Filip Filipovitxen kopara eta Sharikovi eskaini zion.

— Ez dut nahi. Aukeran, vodka edaten jarraituko dut.

Dirdirka zeukan aurpegia, izerdia agertu zitzaion bekokira, aldarte oneko jarri zen. Filip Filipovitx apur bat bihozberatu zen ardoa edan eta gero. Begiak argitsu, samurrago begiratzen zion Sharikovi, zeinaren buru beltza ezpainzapiaren gainean nabarmentzen baitzen eulia esne-krema garratzean bezala.

Bormentalek, bera ere jan-edanak bizkorturik, ekinerako gogoia erakutsi zuen.

— Zer egingo dugu gaur arratsaldean? —galdetu zion Sharikovi.

Hark, begiak kliskatu, eta erantzun zuen:

— Zirkura joango gara, hori da onena.

— Egunero zirkura —esan zuen Filip Filipovitxek, bihotz onez Aspergarri samarra, nire ustez. Ni, zu banintz, behin gutxienez antzerkira joango nintzateke.

— Ni ez naiz antzerkera joango —erantzun zuen Sharikovek, etsaitasunez, eta aitaren egin zuen ahoan.

— Mahaian zotin egiteak jateko gogoak kentzen die besteei —ohartarazi zion Filip Filipovitxek hitzetik hortzera Barkadazu... Zergatik ez duzu gogoko antzerkia?

Sharikovek bere kopa hutsetik zehar begiratu zuen, urrun-ikusgailua balitz bezala; gogoeta egin eta ezpainak luzatu zituen.

— Txatxukeria galanta delako... Hitz egin eta hitz egin, besterik ez dute egiten... Kontrairaultza hutsa.

Filip Filipovitxek aulkiaren bizkarralde gotikotan atsedendu zuen gorputza, eta barre-algaraka hasi zen, halako moldez, ezen urrezko hortz-buruen ilarak dir-dir egin baitzion ahoan. Bormentalek burua mugitu baino ez zuen egin.

— On egingo lizuke noizean behin zer edo zer irakurtzeak —proposatu zion profesoreak bestela, badakizu...

— Irakurtzen dut, irakurtzen dut... —erantzun zuen Sharikovek, eta, bat-batean, harrapari



baten antzera, mugimendu bizkor batez vodkari heldu eta erdiraino bete zuen kopa.

— Zina! —egin zuen deiadar Filip Filipovitxek, asaldaturik eraman ezazu vodka, bihotza. Ez dugu gehiagorik behar. Eta zer irakurtzen duzu?

Bat-batean, irudi bat agertu zitzaion lipar batez buruan: uharte inorgabe bat, palmondo bat, animalia larruz jantziriko gizon txanodun bat: «Robinson, horra zer behar duen...».

— Zera... Nola du izenburua?... Engelsek eta beste horrek elkarri idatziriko gutunak... Deabrua, nola du izena besteak?... bai... Kautsky.

Bormentalek erdibidean gelditu zuen sardexka, okela zuri puska bat iltzaturik zeukala, eta Filip Filipovitxek mahaira isuri zuen ardoa. Sharikov egokiera horretaz baliatu zen eta zurrutada bat vodka edan zuen bizkor.

Filip Filipovitxek, ukondoak mahaian bermatu, Sharikovi begiratu, eta galdetu zion:

— Eta zer esan dezakezu irakurri duzunari buruz?

Sharikovek sorbaldak jaso zituen.

— Bada, ez nagoela ados.

— Norekin? Engelsekin ala Kautskyrekin?

— Ez batarekin, ez bestearekin —erantzun zuen Sharikovek.

— Alajainkoa!, hori bai miragarria! Edonork esango luke beste bat zarela... Eta zein da zure iritzia?

— Zertarako behar duzu nire iritzia?... Haiek idatzi eta idatzi egiten dute... ez dakit nongo biltzarra, halako alemaniar batzuk... Burua leher-tzeko modukoa. Dena hartu eta banatu, horixe egin behar da...

— Banengoen ba ni! —egin zuen oihu Filip Filipovitxek, esku-ahurraz zamaua joz banengoen, ba!

— Eta badakizu nola egin hori? —galdetu zuen Bormentalek, interes handiz.

— Nola? —esan zuen Sharikovek, vodkaren eraginez berritsu ez da batere zaila. Hara zer gertatzen den bestela: bat zazpi gelaren jabe da eta 40 galtza pare ditu, eta beste bat kale gorrian bizi da eta zakarrontzietan bilatzen du janaria.

— Jakina, zazpi gelen kontu hori esan duzue, nitaz ari zinen, ez da? —galdetu zuen Filip Filipovitxek, eta begiak ñarroto zituen, harro.

Sharikov, uzkurtu, eta isilik geratu zen.

— Oso ondo deritzot, ni ez nago banatzearen kontra. Doktoorea, atzo zenbat bezero bidali zenuen etxera?

— 39 —erantzun zuen Bormentalek, bizkor.

— Mmm... 390 errublo. Ondo da, hiru gizonetzoon artean banatuko dugu errua. Damak, hau da, Zina eta Daria Petrovna, ez ditugu kontuan hartuko. Zuk, Sharikov, 130 errublo zor dituzu. Ordaindu, mesedez.

— Ederra kontua! —erantzun zuen Sharikovek, ikaraturik Zergatik?

— Uraren giltzagatik eta katuagatik —oihukatu zuen Filip Filipovitxek bat-batean, bere lasaitasun ironikoa bertan behera utzirik.

— Filip Filipovitx —egin zuen oihu Bormentalek, urduri.

— Egon apur batean. Atzo sortu zenuen istiluagatik, haren ondorioz ezin izan baikenuen pazienterik hartu. Onartezina da. Gizon bat, basati baten antzera, etxe osoan barrena jauzika eta uraren giltzak apurtzen. Eta nork hil zuen madame Polasukherren katua? Nork...

— Zuk, Sharikov, herenegun dama bati hozka egin zenion eskaileran —esan zuen Bormentalek.

— Zu... —egin zuen orro Filip Filipovitxek.

— Baina berak muturrekoa eman zidan —esan zuen Sharikovek, ahots zoliz eta nire muturra ez da publikoa!

— Zuk bularrean atximur egin zeniolako —oihukatu zuen Bormentalek, kopa bat iraultzeaz batera Zu...

— Zu bilakaeraren mailarik behekoenean zaude —oihukatu zuen Filip Filipovitxek, Bormentalek baino ozenago eratzten hasi berria zara oraindik, izaki ahula zara adimenari dagokionez, zure ekintza guztiak zeharo basatiak dira, eta, hala ere, lotsagabekeria ezinago jasangaitzez, unibertsitate-ikasketak dituzten bi gizonen aurrean tamaina kosmikoko eta ergeltasun orobat kosmikoko aholkuak emateko ausarkeria duzu, dena nola banatu behar den azalduz... eta, aldi berean, hortzetako pasta jaten duzu...

— Herenegun —berretsi zuen Bormentalek.

— Bada —esan zuen Filip Filipovitxek, trumoi-ahotsez ondo gogoan gorde hau..., bide batez,

zergatik kendu duzu zink-ukendua sudurretik?...  
ondo gogoan gorde hau: isilik egon eta esaten  
dizutenari jaramon egin behar diozu. Neurri apal  
batean bada ere, gizarte sozialistako kide onar-  
garria izaten ikasi eta ahalegindu behar duzu.  
Eta, bide batez, zein gizatxarrek eman dizu libu-  
ruxka hori?

— Zuretzat denak dira gizatxarrak —eran-  
tzun zuen Sharikovek, izuz, bi aldetako erasoak  
durduzaturik.

— Susmatzen dut nor izan den —egin zuen  
oihu Filip Filipovitxek, amorrus gorriturik.

— Tira, ondo da. Shvonderrek eman dit. Eta  
ez da gizatxarra... Nire adimena garatu nahi du...

— Ikusten dut Kautskyk nola garatzen duen  
zure adimena —egin zuen garrasi Filip Filipovi-  
txek, ahots zoliz eta aurpegia horiturik. Hori  
esandakoan, bortizki sakatu zuen hormako  
botoia Gaurko gertaerak ezin argiago erakusten  
du. Zina!

— Zina! —oihukatu zuen Bormentalek.

— Zina! —egin zuen deiadar Sharikov izu-  
tuak.

Lasterka iritsi zen Zina, zurbil.

— Zina, harrera-gelan... Harrera-gelan dago?

— Bai, harrera-gelan —erantzun zuen Sharikovek, otzan berdea da, menaslorea bezala.

— Liburuxka berde bat...

— Eta orain erre egingo du —oihukatu zuen Sharikovek, etsia harturik estatuarena da, liburutegikoa!

— Zein da liburuaren izenburua? Gutunak dira... zera... Engelsek eta deabru horrek elkarri idatzirikoak... Bota sutara!

Zinak ziztu bizian alde egin zuen.

— Adar batetik esekiko nuke Shvonder, benebenetan diotsut —oihukatu zuen Filip Filipovitxek, eta amorrus erantsi zizkion hortzak indioiloaren hego bati zorne-zorro bat bezala daukagu etxean gizon zital harrigarri hori. Eta, gainera, zentzurik gabeko artikulua iraingarriak idazten ditu egunkarietan...

Sharikovek gorrotoz eta ironiaz begiratu zion profesoreari begi-ertzetik. Filip Filipovitxek, berriz, etsaitasunezko begirada bat egotzi zion eta isildu egin zen.

«Oi, uste diat honek ez diola onik ekarriko gure etxebizitzari», pentsatu zuen Bormentalek bat-batean, profetikoki.

Zinak eskuinaldea gorrixka eta ezkerraldea gorrimina zituen budin bat eta kafeontzia ekarri zituen erretilu biribil batean.

— Nik ez dut hori jango —jakinarazi zuen Sharikovek berehala, mehatxuz eta etsaitasunez.

— Inork ez dizu eskaini. Behar bezala joka ezazu. Doktorea, mesedez.

Isiltasunean amaitu zen bazkaria.

Sharikovek zigarreta zimurtu bat atera zuen sakelatik eta kea botatzen hasi zen. Kafea edandakoan, Filip Filipovitxek, erlojuari begiratu, eta malgukia sakatu zuen, eta erlojuak zortziak eta laurden jo zituen, doinu gozoz. Filip Filipovitxek, ohi zuenez, gorputza aulkiaren bizkarralde gotikoan atsedendu, eta besoa luzatu zuen egunkaria mahaitxotik hartzeko.

— Doktorea, mesedez, zoaz berarekin zirkurara. Baina, Jainkoarren, egitarauan katurik ez dagoela egiaztatu.

— Nolatan onartuko dute zirkuan horrelako jendailarik? —ohartarazi zuen Sharikovek, bekozko ilunez eta buruari ezker-eskuin eraginez.

— Batek daki nor onartzen duten hor —erantzun zuen Filip Filipovitxek, esanahi lausoz Zer dute?

— Solomoskirenean —hasi zen irakurtzen Bormental Jussems izeneko lau eta heriotzari erronka jotzen dion gizona.

— Zer dira Jussems horiek? —jakin nahi izan zuen Filip Filipovitxek, irudikor.

— Batek daki. Hitz hori topatzen dudan lehen aldia da.

— Orduan, hobe begiratzen baduzu zer dagoen Nikitindarreanean. Ezinbestekoa da dena argi eta garbi egotea.

— Nikitindarreanean... Nikitindarreanean... mmm... elefanteak eta giza trebetasunaren mukurua.

— Ondo dago hori. Zer deritzezu elefanteei, Sharikov maitea? —galdetu zion Filip Filipovitxek Sharikovi, mesfidantzaz.

Sharikov mindu egin zen.



— Ez dakit zergatik galdetzen didazun hori! Katuena beste kontu bat da. Elefanteak animalia baliagarriak dira —erantzun zuen Sharikovek.

— Ederto. Baliagarriak direnez, zoaz eta begira iezaezu. Bete itzazu Ivan Arnoldovitxen esanak. Eta besteren elkarrizketetan ez sartu tabernan! Ivan Arnoldovitx, arren eskatzen dizut Sharikovi garagardorik ez emateko.

10 minutu geroago, Ivan Arnoldovitx eta Sharikov zirkura abiatu ziren. Sharikovek ahate-mokodun kapela bat zeraman buruan, eta oiha-lezko beroki bat soinean, lepoa jasorik. Baretasuna nagusitu zen etxean. Filip Filipovitx bere langelan sartu zen. Lanpara piztu zuen pantaila berde astunaren azpian, eta langela eskerga oso leku atsegina bilakatu zen horren eraginez. Hori egindakoan, gela urratsekin neurtzen hasi zen. Zigarroaren muturrak luzaz eta biziki distiratu zuen su berde motel batez. Profesoreak galtzeta-ko sakeletan sartu zituen eskuak, pentsamendu larri batek jakintsu-bekoki soilguneduna oinazetzen ziola. Mihiaz klask egin eta hortz artean abesten zuen «Nilo sakratuaren ertzean...», eta zer edo zer murduskatzen zuen. Azkenean, ziga-

rroa hautsontzian utzi, goitik beheraino beirazkoa zen armairu batera hurbildu, eta sabaiko hiru lanpara ahaltsuek langela osoa argiztatu zuten. Filip Filipovitxek flasko estu bat hartu zuen armairutik, beirazko hirugarren apaletik, eta, bekokia zimurturik, arreta handiz aztertu zuen lanpararen argitan. Flaskoko isurkari garden eta lodian, hondora erori gabe, igeri zegoen bolatxo zurixka txiki bat, Sharikoven burmuinaren barru-barrutik erauzia. Sorbaldak apur bat jasoz, ezpainak okertuz eta hortz artean marmarka, Filip Filipovitxek tinko begiratzen zion, Pretxistenka kaleko etxeko bizitza azpikoz gora irauli zuen gertaera harrigarriaren arrazoia hondoratu gabe igeri zegoen bolatxo zuri horretan igarri nahi balu bezala.

Inondik ere, igarri zuen, oso gizon jakintsua baitzen. Behinik behin, nekatu arte burmuinaren luzakinari begira egon eta gero, flaskoa armairuan sartu, atea giltzaz itxi, giltza koratiloko sakelan gorde, eta, burua sorbalden artean hondoraturik eta eskuak jakako sakeletan barru-barruraino sarturik, dibaneko larruaren gainera abaildu zen. Luzaz jardun zuen bigarren zigarro

bat erretzen, zeharo hozkatu zion muturra, eta, azkenean, bakar-bakarrik, distira berde batez inguraturik, Fausto ileurdin baten antzera, oihu egin zuen:

— Uste dut erabaki egingo naizela, bai horixe.

Inork ez zion erantzun horri. Itzali egin ziren etxebizitzako hots guztiak. Jakina denez, Obukhov kalezuloan mugimendua baretu egiten da 11etan. Noizetik noizera, oso gutxitan, oinezko beranduturen baten pauso urrunak entzuten ziren, non edo non zarata egiten zuten errezelez bestaldean, eta berehala itzaltzen ziren. Lange-lan, erlojuaren malgukiak leunki hots egiten zuen sakelatxoan Filip Filipovitxen hatzen azpian... Profesorea berantetsirik zegoen, Bormental eta Sharikov zirkutik noiz itzuliko.

## VIII

Batek daki zertara erabaki zen Filip Filipovitx. Hurrengo aste osoan ez zuen ezer berezirik egin, eta, haren jarduerarik ezaren ondorioz behar bada, etxeko bizitza gertakariz bete zen.

Uraren eta katuaren istilua gertatu eta 6 egun geroago, etxeko batzordeko kide batek, azkenean bere burua emakumezkotzat aurkeztu zuen gazteak hain zuzen ere, Sharikovengana jo zuen eta agiri batzuk eman zizkion. Sharikovek bertantxe gorde zituen agiriok sakelan, eta, hori egin bezain laster, Bormental doktoreari deitu zion.

— Bormental!

— Ez, niri izenaz eta patronimikoaz dei ieza-dazu, mesedez! —erantzun zuen Bormentalek, begitartea aldatuz.

Ohartarazi beharra dago ezen, 6 egun horietan, kirurgialaria zortzi aldiz liskartu zela bere ikaslearekin. Eta Obukhov kaleluzoko geletan ez zen giro.

— Bada, zuk ere izenaz eta patronimikoaz deitu niri! —erantzun zuen Sharikovek, erabateko irmotasunez.

— Ez! —egin zuen orro Filip Filipovitxek atetik Nire etxean inork ez dizu deituko zure izen eta patronimiko horretaz, ez dut onartuko. Konplimendurik gabe «Sharikov» deitzeari uztea nahi baduzu, Bormental doktoreak eta biok «Sharikov jauna» deituko dizugu hemendik aurrera.

— Ni ez naiz jauna, jaun guztiak Parisen daude! —egin zuen zaunka Sharikovek.

— Horra Shvonderren lanaren emaitza! —egin zuen oihu Filip Filipovitxek Ondo da, kontuak garbituko ditut gizatxar horrekin. Ni hemen nagoen bitartean, jaunak besterik ez da izango etxebizitza honetan! Bestela, biotako batek, edo zuk edo nik, hemendik alde egingo du, eta, zehatzago esanik, zuk. Gaur iragarki bat jarriko dut egunkarietan, eta, sinetsidazu, gela bat aurkituko dizut.

— Hemendik alde egiteko bezain ergela naitzela uste duzu? —erantzun zuen Sharikovek, argi eta garbi.

— Zer? —galdetu zuen Filip Filipovitxek, eta hainbestearino mudatu zitzaion aurpegiera, ezen Bormentalek, behingoan hurbildu, eta mahukatik heldu baitzion, samurtasunez eta kezkatu.

— Ez izan lotsagabea, monsieur Sharikov! —esan zuen Bormentalek, oso ozen.

Sharikovek atzera egin zuen, 3 paper atera zituen sakelatik —berdea, horia eta zuria— eta, paperok hatz-puntekin joz, ekin zion:

— Hona hemen. Etxebizitza-kooperatibako kidea naiz, eta 16 arshin karratuko azalera dago-  
kit 5. etxebizitzan, Preobrajenski maizter ardura-  
dunarenean alegia.

Apur batean pentsatu, eta ohartu gabe ere Bormentalek esalmode berri gisa buruan gorde zituen hitz batzuk gehitu zituen Sharikovek: plazer baduzu.

Filip Filipovitxek, ezpainak hozkatu, eta bate-re zuhertasunik gabe murduskatu zuen:

— Zin egiten dizut azkenean tiro batez hilko dudala Shvonder hori.

Sharikovek, haren begiek salatzen zuten, arrearik handienaz eta belarriak ondo zorrotzurik hartu zituen hitz horiek.

— Filip Filipovitx, vorsichtig... —gaztigatu zion Bormentalek.

— Bai, baina... Hain da zitala haren jokabidea! —egin zuen garrasi Filip Filipovitxek, errusieraz Kontuan izan hau, Sharikov... jauna, lotsagabekeria gehiagorik egiten baduzu, behin bakarrik bada ere, nire etxean ez duzu ez bazkaririk ez inolako janaririk izango. 16 arshin, ederto, baina paper igelkolore horrek ez nau behartzen zuri jaten ematera!

Hori entzundakoan, Sharikov izutu egin zen eta erdi ireki zuen ahoa.

— Ezin naiz jatekorik gabe geratu —murduskatu zuen non aseko dut gosea?

— Orduan, behar bezala porta zaitez! —esan zuten bi eskulapioek batera.

Sharikov zeharo baretu zen eta egun horretan ez zion inolako kalterik egin inori, bere buruari izan ezik: Bormentalen kanpoaldi labur baten egokieraz baliaturik, haren bizar-labana hartu, eta hain ebaki sakona egin zuen masai-

lean, ezen Filip Filipovitxek eta Bormental dokto-reak zauria josi behar izan baitzioten, eta Shari-kov luzaz aritu zen intzirika horren eraginez, malkoak mara-mara zerizkiola.

Biharamun gauean, bi gizon eseririk zeuden profesorearen langelako erdilunpe berdean: Filip Filipovitx bera eta haren laguntzaile zintzo eta leial Bormental. Ordurako, lotan zeuden denak etxean. Filip Filipovitxek bere mantal urdinxka eta txapin gorriak zeuzkan jantzirik, eta Bormen-talek, berriz, alkandora eta galtza-uhal urdinak zituen soinean. Koñak-botila bat, limoiz beteriko platertxo bat eta zigarro-kutxa bat zeuden bi sendagileen arteko mahai biribilaren gainean, album lodi baten alboan. Bi zientzialariak, gela osoa kez beterik zeukatela, sutsuki hitz egiten ari ziren azken gertaerez: arratsalde horretan, Sharikovek paper-pisuaren azpian zeuden 10 errubloko billete bi hartu zituen Filip Filipovitxen langelatik, etxetik alde egin zuen eta berandu eta mozkor-mozkor eginik itzuli zen. Eta ez hori bakarrik. 2 ezezagun azaldu ziren berarekin batera, zalaparta handia atera zuten eskailera nagusian eta gaua Sharikovenean igarotzeko



nahia agertu zuten. Fiodorrek, azpiko arroparen gainean udazkeneko berokia jantzirik iskanbilaren lekuko izan baitzen, telefonoz deitu zion poli-ziaren berrogeita bosgarren sailari, eta orduan soilik alde egin zuten bi ezezagunek. Ziztu bizian joan ziren Fiodorrek mintzagailua eseki bezain laster. Inork ez zuen jakin bi ezezagunek alde egindakoan nora desagertu ote ziren harrera-gelako horma-ispiluaren azpiko mahaitxoan zegoen malakitazko hautsontzia, Filip Filipovitxen kastore-laruzko txanoa eta haren makila bat, zeinean idazkun hau baitzegoen urrezko letra dotoreetan irarririk: «Ospitaleko medikuek Filip Filipovitx agurgarri eta maiteari, esker onez, ..... egunean», eta gero XXV zifra erromatarra.

— Nor dira sasikume horiek? —galdetu zion Filip Filipovitxek Sharikovi, ukabilak estutuz.

Sharikovek, balantzaka eta laruzko berokiei helduz, hortz artean murduskatu zuen gizon haiek ez zituela inondik ere ezagutzen eta ez zirela sasikumeak, jende jatorra baizik.

— Harrigarriena da mozkorturik zeudela bi-biak... Nola moldatu dira horretarako? —esan zuen Filip Filipovitxek, txunditurik, ordu arte

urtemugaren oroigarria egon zen euskarriari begira.

— Mozkor profesionalak dira —argitu zuen Fiodorrek, eta lotara joan zen, sakelan errublo bat zeukala.

Hamar errubloko bi billeteei zegokienez, Sharikovek biribilki ukatu zuen berak hartu zituenik, eta, gainera, modu ilun samar batez adierazi zuen bera ez zela etxe horretako bizilagun bakarra.

— Beharbada Bormental doktorea jabetu da diru horretaz? —galdetu zuen Filip Filipovitxek, ahots apalez baina doinu beldurgarriz.

Sharikovek, zabu egin, bere begi guztiz lausotuak zabal-zabal ireki, eta iradoki zuen:

— Edo, beharbada, Zinkak hartu ditu...

— Zer esan duzu? —egin zuen garrasi Zinak, mamu bat bezala atean agerturik eta bularra esku-ahurraz estaltzen zuela, askaturik baitzeuzkan atorraren botoiak nolatan ausartzen da...?

Filip Filipovitxi gorri-gorri jarri zitzaion lepoa.

— Lasai, Zinushka —esan zuen, besoa haren ganantz luzatuz ez asaldatu, argituko dugu hau guztia.

Zina negar-zotinka hasi zen bat-batean, ezpainak ireki zituen eta esku-ahurra dardaraka hasi zitzaion lepauztaian.

— Zina, nolatan ez dizu lotsarik ematen? Nork usteko zuen halakorik? Hau lotsa! —esan zuen Bormentalek, aztoraturik.

— Zina, barkatu, baina tuntuna zara —ekin zion Filip Filipovitxek.

Nolanahi ere, une horretantxe berez eten zen Zinkaren negarra, eta isilik geratu ziren denak. Sharikov ondoezik jarri zen. Buruaz horma jo, eta ez «i» ez «ie» ez zen hots bat egin zuen, «eee!» antzeko bat alegia. Aurpegia zurbildu eta masai-lezurra dardar bortitzez mugitzen hasi zitzaion.

— Perrail bat doilor honentzat!, azterketa-gelatik!

Eta Sharikov alditxartuari laguntzera lehiatu ziren denak. Lotara zeramatelarik, Sharikovek, Bormentalen besoen artean aldaroka, birao izugarriak bota zituen oso ahots samur eta melodiatzuz, hitzak nekez ebakiz.

Hori guztia ordu bata aldera gertatu zen, eta orain gaueko 3ak ziren, baina bi sendagileak esna zeuden langelan, limoi-uraz nahasiriko

koñakak kitzikaturik. Hainbeste erre zuten, ezen kea laino lodi geldoetan higitzen baitzen airean, gorabeherarik txikiena ere egin gabe.

Bormental doktoreak, zurbil, erabakitasun irmoa begietan, gerria sorgin-orratzaren gorputza bezain mehea zuen kopa bat altxatu zuen.

— Filip Filipovitx —esan zuen, hunkiturik sekula ez dut ahaztuko nola, artean ikasle gosetua nintzela, zuregana agertu nintzen eta zuk zure katedraren babespean hartu ninduzun. Sinetsidazu, Filip Filipovitx, zu profesorea baino askoz gehiago zara niretzat, irakaslea baino askoz gehiago... Begirune neurrigabea dizut... Uztazu musu ematen, Filip Filipovitx maitea!

— Bai, ene bihotzekoa... —murmurikatu zuen Filip Filipovitxek, gogonahasirik, eta, aulkitik altxaturik, Bormentalenaga hurbildu zen. Bormentalek, besarkatu, eta musu eman zion bibote leun, tabakoaren ke-usain bizikoan.

— Zin egiten dizut, Filip Fili...

— Bete-bete hunkitu didazu bihotza, bete-bete... Eskerrik asko —esan zuen Filip Filipovitxek lagun maitea, batzuetan agiraka egiten dizut ebakuntzetan. Barkatuko ahal duzu agure

zahar honen suminkortasuna! Izan ere, hain nago bakarrik bizitzan... Sevillatik Granadara...

— Filip Filipovitx, ez dizu lotsarik ematen? — esan zuen Bormentalek, kartsuki eta zinezkotasunez mindu nahi ez banauzu, ez esan horrelakorik...

— Ondo da, eskerrik asko... Nilo sakratuaren ertzean... Eskerrik asko... Gainera, nik estimu handia hartu nizun berehala, sendagilea izateko dohain paregabeak erakusten zenituen eta.

— Filip Filipovitx, lehen ere esan dizut... — egin zuen Bormentalek, sutsuki; bere lekutik aldendu, korridorera ematen zuen atea ondo itxi, eta, atzera itzulirik, ahapeka jarraitu zuen hori da irtenbide bakarra. Ni, jakina, ez naiz nor zuri aholkuak emateko, baina, Filip Filipovitx, begira iezaiozu zeure buruari, zeharo ahiturik zaude, horrela ezin duzu inolako lanik egin!

— Guztiz ezinezkoa zait —berretsi zuen Filip Filipovitxek, hasperen eginez.

— Halaxe da, zeharo ezinezkoa —xuxurlatu zuen Bormentalek lehengo egunean esan zenuen nitaz kezkatuak zeundela, eta jakingo bazenu, profesore maitea, nola hunkitu ninduten

hitz horiek! Baina ni ez naiz umea, eta badakit zeinen ondorio ikaragarria ekar dezakeen ekin-tza horrek. Dena dela, etsi-etsirik nago ez dago-ela beste irtenbiderik.

Filip Filipovitxek, zutik jarri, eta, besoei haren aldera eraginez, esan zuen:

— Ez saiatu ni gogutzen, ez esan ezer —profesorea batetik bestera ibiltzen hasi zen gelan barrena, ke-uhinak higiaraziz entzun ere ez dizut egingo. Pentsa ezazu zer gertatuko den harrapatzen bazaituzte. Gure lehen epaiketa izanik ere, «gizarte-jatorria kontuan izanik» delako horrek ez gaitu zigorretik libratuko. Izan ere, oker ez banago, zure gizarte-jatorria ez da oso egokia, nire lagun maitea.

— Mila deabru, ez! Nire aita instrukzioko epailea zen Vilnon —erantzun zuen Bormentalek atsekabez, bere kopa koñaka husteaz batera.

— Horra zer dugun! Ondare txarra da hori. Ezin dut jatorri erdeinagarriagorik imajinatu. Ez, barkatu, nirea are txarragoa da. Nire aita katedraleko artzapeza zen. Merci. Sevillatik Granadara... Gau iluneko isiltasunean... deabruak dar-mala!

— Filip Filipovitx, zu zientzialari ospetsua zara mundu osoan, eta, barkatu honelakoak esatea, sasikume batengatik... ez zaituzte estu hartuko, ez horixe!

— Arrazoi handiagoa hori ez egiteko —esan zuen Filip Filipovitxek pentsakor, gelditurik eta beirazko armairuari begira.

— Zergatik?

— Zu ez zarelako zientzialari ospetsua mundu osoan.

— Baina...

— Halaxe da. Eta, barkatu, baina hondamenaren estualdian lankidea bazterrera utzi eta nik neure ospe handiari esker onik irten, ez, inola ere ez... Nik Moskuko unibertsitatean ikasi dut, ez naiz Sharikov bat.

Filip Filipovitxek, sorbaldak harro-harro altxatu, eta Frantziako antzinako errege baten airea hartu zuen.

— Ai, Filip Filipovitx... —egin zuen Bormentalek, atsekabez eta zer egingo dugu orduan? Zain geldituko zara barrabas hori gizon bihurtzea lortu arte?

Filip Filipovitxek, esku-keinu batez isilarazi, bere kopa koñakez bete, zurrutada bat edan, limoi bat hurrupatu, eta esan zuen:

— Ivan Arnoldovitx, zure iritziz, nik zer edo zer dakit zera, nolabait deitzearren, giza burmuinaren aparatuaren anatomiaz eta fisiologiaz? Zer uste duzu?

— Filip Filipovitx, galdetzea ere! —erantzun zuen Bormentalek, grina biziz, eta besoak zabaldu zituen.

— Oso ondo. Itxurazko apaltasunik gabe. Nik neuk uste dut arlo horretan ez naizela Moskuko azkena.

— Eta nik uste dut lehena zarela, Moskun ez ezik, baita Londresen eta Oxforden ere! —eten zion jarduna Bormentalek, sutsuki.

— Tira, ondo da, demagun hala dela. Baina, hala izanik ere, etorkizuneko Bormental profesore hori, inork ez du arrakastarik izango zeregin horretan. Aski da. Ez egin galderarik. Balia zaitez nire izenaz, esan Preobrajenskik esan duela. Finita. Klim! —egin zuen oihu Filip Filipovitxek bat-batean, hotsandiro, eta armairuak tintin-hotsa ateraz erantzun zion Klim —errepikatu zuen Zu



nire eskolako ikaslerik onena zara eta, horrez gain, nire adiskidea, gaur egiaztatu dudanez. Bada, adiskide zaitudanez, sekretu bat jakinara-ziko dizut, ziur bainago ez nauzula lotsaraziko: Preobrajenski astakilo zahar honek hirugarren mailako ikasle baten antzera huts egin du eba-kuntza horretan. Bai, egia da, aurkikuntza bat egin dut, zuk badakizu nolakoa —eta, hori esan-dakoan, Filip Filipovitxek, atsekabez, leihoko errezelen aldera luzatu zituen bi besoak, inondik ere Mosku seinalatuz baina, hala ere, Ivan Arnol-dovitx, kontuan izan zein izango den aurkikuntza horren ondorio bakarra: aurrerantzean, Shariko-ven zama jasan beharko dugu guztiok, hemen, hementxe —Preobrajenskik eskuaz jo zuen bere garondo zurrun, perlesiak jo hurrena ez izan zalantzarik! Baten batek —jarraitu zuen Filip Fili-povitxek, gozamenek berton luze-luze etzanara-zi eta jipoi ederra emango balit, nik, zin egiten dizut, berrogeita hamar errublo ordainduko niz-kioke! Sevillatik Granadara... Deabruak narama-la!... Izan ere, bost urte eman ditut burmuinen barrunbeak arakatzen eta hipofisiak erauzten... Zuk badakizu zer-nolako lana egin dudan; egun-

dokoa! Eta orain galdetzen diot neure buruari: zertarako? Egun batean txakur eder bat ileak lazteko moduko zaborreria bihurtzeko.

— Egintza paregabea!

— Guztiz ados nago zurekin. Doktorea, horra zer gertatzen den ikertzaileak, naturarekiko paralelo eta hari atxikirik ibili ordez, arazoak argitara atera eta ezkutukoaren oihala altxatzen duenean: Sharikov bat aurkitzen duzu, eta hor konpon!

— Filip Filipovitx, eta Spinozaren burmuina jarri bagenio?

— Bai! —egin zuen garrasi Filip Filipovitxek Bai! Baina zitekeena zen zorigaitzoko txakur hori ebakuntza-mahaian hiltzea, zuk badakizu nolako den ebakuntza hori. Hitz batean, nik, Filip Filipovitxek, nire bizitza osoan ez dut ezer zailagorik egin. Spinozaren edo horrelako beste edozein jeinuren hipofisia jarri ahal zaio, eta txakur batetik adimen ezinago argiko izaki bat lortu. Baina zer arraiotarako? Hor dago koxka. Azaliezadazu, mesedez, zergatik egin behar dugun guk modu artifizialean Spinoza bat, edozein emakumek gogoak hala ematen dionean sortu

ahal badu. Madame Lomonosova, esaterako, bere seme ospetsuaz erdi zen Kholmogori herrixkan! Gizadia bera arduratzen da horretaz, bere kabuz, eta, bilakaeraren katean, urtez urte, temati, masatik zabor oro bereizirik, lurbira edertzen duten hamaika jeinu paregabe sortzen ditu. Doktoarea, orain badakizu zergatik gaitzetsi dudan Sharikoven txosten klinikotik atera duzun ondorioa. Nire aurkikuntzak, zuk itsutuki miresten duzun aurkikuntza horrek, ez du piperrik balio, deabruak irents dezala! Bai, halaxe da, Ivan Arnoldovitx, ez eztabaidatu, ulertu dut azkenean. Nik inoiz ez dut alferrik hitz egiten, zuk oso ondo dakizu hori. Teoriaren ikuspegitik kontu interesgarria da. Tira, ondo da! Fisiologoak pozez zorutzen egongo dira. Mosku, deabruzko amorru bizi batek harturik... Baina, praktikari dagokionez, zer? Zer daukagu orain aurrean? — Preobrajenskik azterketa-gelako bazter bat seinalatu zuen hatzarekin, Sharikov lo baitzegoen han.

— Berdinik gabeko doilor izugarri bat.

— Baina nor da? Klim, Klim —egin zuen oihu profesoreak Klim Txugukov —Bormentalek ahoa

ireki zuen hau da, bi kondena, alkoholismoa, «dena banatu», txano bat eta hamar errubloko billete bi desagerturik —une horretan, Filip Filipovitxi urtemugako makila etorri zitzaion gogorra, eta gorri-gorri jarri zen bilaua halakoa, urde zikina!... Aurkitu egingo dut makila hori. Hitz batean, hipofisi bakoitza gizabanako jakin baten nortasuna eratzen duen gela itxi bat da. Gizabanako jakin batena! Sevillatik Granadara... —egin zuen oihu Filip Filipovitxek, begiak basaki dantzatzuz ez gizadi osoarena! Burmuina bera da, miniaturan. Eta nik ez dut haren beharrik, aldean daramatela deabru guztiek! Lehen, oso bestelako kontuez arduratzen nintzen, eugenesia, giza espeziearen hobekuntzaz. Eta orain gaztetzearen kontu horretan nahasi naiz. Zer uste duzu, diruagatik egiten dudala hori? Ez, nolana ere, ni zientzialaria naiz.

— Zientzialari bikaina, alajaina! —esan zuen Bormentalek, koñaka irentsiz. Odolez bete zitzaizkon begiak.

— Orain dela 2 urte, lehen aldiz lortu nuen hipofisitik sexu-hormonaren eruzkin bat ateratzea, eta orain esperimentu txiki bat egin nahi

nuen. Eta zer lortu dut horren orde? Jainkoaren izenean! Hipofisiko hormona hauek, ene Jainkoa... Doktoarea, etsipenik beltzenak jota nago, zinez diotsut, zeharo nahasirik daukat burua.

Bormentalek, bat-batean, mahukak gora bildu, begiak sudur aldera okertu, eta esan zuen:

— Gauzak horrela, irakasle maitea, zuk egin nahi ez baduzu, neure gain hartuko dut artsenikoa ematearen erantzukizuna. Eta, zer arraiio!, bost axola dit aita instrukzioko epailea bazen ere. Azken batean, izaki hori zurea da, zure esperimentu baten emaitza.

Filip Filipovitxek, iraungi, ahuldu, besaulkiaren gainera abaildu, eta esan zuen:

— Ez, ez dizut utziko hori egiten, nire lagun gazte maitea. Nik 60 urte ditut, aholkuak eman ahal dizkizut. Ez egin inoiz inoren kontrako krimenik, ez hartu bide hori. Eskuak garbi iritsi zahartzarora.

— Barkatu, Filip Filipovitx, baina Shvonder horrek Sharikov hezten jarraitzen badu, zer bihurtuko da? Jainko maitea, orain hasi naiz ulertzen zer izatera irits daitekeen Sharikov!

— Hara! Orain ulertu duzu? Nik, ordea, eba-kuntza egin eta 10 egun geroago ulertu nuen. Dena dela, Shvonder ezin ergelagoa da. Ez da ohartzen Sharikov askoz ere arrisku larriagoa dela berarentzat niretzat baino. Orain bide guztietatik saiatzen da Sharikov nire kontra xaxatzen, eta ez da konturatzen ezen, egunen batean beste norbaitek Sharikov beraren kontra xaxatzen badu, txiki-txiki egingo duela, hondarrik ere utzi gabe.

— Arrazoi duzu! Katuei egiten diena ikusi besterik ez dago! Gizona da, baina txakur-bihotza du.

— Ez, ez, ez —erantzun zuen Filip Filipovitzek, ezetza luzatuz doktorea, uste ezin okerragoa duzu hori; Jainkoaren izenean, ez iraindu txakurrak. Katuena aldi baterakoa da... Diziplina arazoa, bizpahiru asteko kontua. Ziur egon horretaz. Hilabete barru edo, bertan behera utziko du katu-harrapaketa.

— Eta zergatik ez orain?

— Ivan Arnoldovitx, hori nabari-nabaria da... Galdetzea ere! Hipofisia ez dago airean zintzilik. Txakurraren burmuinaren barruan sarturik dago

orain, emaiizu denbora egokitzeko. Sharikovek txakur-izaeraren hondarrak besterik ez du agertzen oraindik, eta, ez badakizu ere, katuen atzetik lasterka ibiltzea da egiten duen gauzarik onena. Baina, hori da benetan izutzekoa, orain ez du txakur-bihotzik, baizik eta, hain zuzen ere, giza bihotza. Eta naturan diren guztietan zitalena.

Asalduaren goren mailara iritsirik, Bormentalek, bere esku argal indartsuak bildu, ukabilak estutu, sorbaldak goratu, eta irmo esan zuen:

— Halaxe da. Hilko dut.

— Debekatu egiten dizut hori egitea! —erantzun zuen Filip Filipovitxek, berean tinko.

— Baina...

Bat-batean, Filip Filipovitx erne jarri zen, hatz bat jasorik.

— Egon apur batean... Oin-hotsak entzun uste ditut.

Belarriak zorroztu zituzten biek, baina korridorean isiltasuna zen nagusi.

— Nire irudipena izan da nonbait —esan zuen Filip Filipovitxek, eta alemanez mintzatzen hasi

zen, sutsuki. Haren solasean zenbait aldiz entzun zen «lege-hauste» hitza, errusieraz.

— Zaude pixka batean —esan zuen Bormentalek tupustean, erne jarririk, eta urrats bat egin zuen aterantz. Argi entzuten ziren pausoak, langelatik gero eta hurbilago. Gainera, ahots bat purrustadaka ari zen. Bormentalek, atea alderik alde ireki, eta atzera egin zuen berehala, txunditurik. Filip Filipovitx harri eta zur eginik gelditu zen besaulkian, zeharo lur jota.

Korridorearen lauki argiztatuan Daria Petrovna ageri zen, gau-atorra hutsean, aurpegia gudutsu eta amorruz gorriturik. Sendagilea eta profesorea liluraturik geratu ziren haren gorputz mardul eta, izuaren eraginez iruditu zitzaenez, guztiz biluziaren joritasuna ikustean. Daria Petrovnaren beso indartsuek zerbait zekarten arrastaka, eta «zerbait» hori ipurtaldea lurrean bermaturik zetorren, eta haren zango labur bilo beltzez estaliak sigi-saga mugitzen ziren parketaren gainean. «Zerbait» hori, jakina, Sharikov zen, arrunt burtzoraturik, oraindik mozkorturik, txima-jario eta alkandora hutsean.



Daria Petrovna, handientsu eta larrugorri, zakarki utzi zuen Sharikov lurrean, patata-zakua balitz bezala, eta hitz hauek esan zituen:

— Begira, profesore maitea, hona hemen gure bisitari Telegraf Telegrafovitx. Ni ezkondu-rik egon naiz, eta Zina neska garbia da. Eskerrak esnatu naizen.

Bere hizketaldia amaiturik, Daria Petrovna lotsa handia sentitu zuen; garrasi egin, bularra eskuetan estali, eta arrapaladan joan zen.

— Daria Petrovna, barkatu, Jainkoaren ize-  
nean! —egin zuen oihu Filip Filipovitzek haren atzetik, bere onera etorririk eta gorri-gorri.

Bormentalek are gorago jaso zituen alkandoraren mahukak eta Sharikovenganantz abiatu zen. Filip Filipovitzek begietara so egin zion, izu-laborriak harturik.

— Zer egingo duzu, doktorea? Debekatzen dizut...

Bormentalek, eskuineko eskuaz Sharikovi papar-hegaletik oratu, eta hain bortizki astindu zuen, ezen alkandoraren ehuna aurreko aldetik urratu baitzen.

Filip Filipovitx hura geldiaraztera oldartu zen, eta Sharikov ahuldua kirurgilariaren esku itxieta-tik askatzeari ekin zion.

— Ez duzu ni jotzeko eskubiderik! —egin zuen oihu Sharikovek, erdi itorik, lurrean eseriz eta mozkorra menderatzen hasirik.

— Doktorea! —egin zuen deiadar Filip Filipovitxek.

Bormental apur bat lasaitu zen eta eskueta-tik jaregin zuen Sharikov, zeina hortxe hasi baitzen negar-intzirika.

— Tira, ondo da —murmurikatu zuen Bormentalek goiza arte itxarongo dugu. Ustekabe polita emango diot mozkorra joaten zaionean.

Hori esandakoan, Sharikovi galtzarbeetatik heldu eta herrestan eraman zuen harrera-gelara, lotara.

Bitartean, Sharikov ostikoak ematen saiatu zen, baina zangoek ez zioten men egiten.

Filip Filipovitxek zangoak zabaldu zituen, eta mantal-barren urdinxkak banandu egin zitzaizkion horren eraginez. Begiak eta besoak korridoreko sabaiko lanpararantz jaso, eta esan zuen:

— Ene! Ene!...

Dena dela, Bormental doktoreak agindu zue-  
naz bestera, Sharikoventzako ustekaberik ez zen  
izan biharamun goizean, zeren eta Poligraf Poli-  
grafovitx etxetik desagertu baitzen. Bormental  
amorruzko etsipenean erori zen, astakirtena  
deitu zion bere buruari ate nagusiko giltza ezku-  
tatu ez zuelako, hori ezin barkatuzkoa zela oihu-  
katu zuen, eta, amaitzeko, autobus batek Shari-  
kov harrapa zezan desiratu zuen ozenki. Filip Fili-  
povitx langelan eseririk zegoen, hatzak ileen  
artean sarturik, eta honela mintzo zen:

— Imajinatzen dut zer gertatuko den  
kalean... Ima-ji-na-tzen dut. Sevillatik Granada-  
ra, ene Jainkoa!

— Beharbada etxeko batzordean dago —sutu  
zen Bormental, eta lasterka alde egin zuen.

Etxeko batzordean hain kalapita gogorra izan  
zuen Shvonder lehendakariarekin, ezen hura  
Khamovnitxi eskualdeko herri-epaitegiarentzako  
salaketa bat idaztera eseri baitzen, eta, hori egi-  
ten zuen bitartean, oihuka zioen bera ez zela  
Preobrajenski profesorearen ikaslearen zainda-  
ria, are gutxiago kontuan izanik Poligraf izeneko  
ikasle hark zital jokatu zuela aurreko egunean

bertan, etxeko batzordearen 7 errublo hartu baitzituen, kooperatiban testu-liburuak erosteko behar zituela esanik.

Fiodorrek, lan hori egiteagatik hiru errublo irabazirik, goitik behera miatu zuen etxe osoa. Inon ez zegoen Sharikoven arrastorik.

Gauza bat bakarrik argitu zen: Sharikovek egunsentian alde egin zuen, kapela, lepo-berogaria eta berokia jantzirik, arasatik harturiko gurbe-pattar botila bat, Bormental doktorearen eskularruak eta bere agiri guztiak aldean eramalik. Daria Petrovna eta Zinak, batere disimulurik gabe, beren poz neurrigabea adierazi eta Sharikov inoiz gehiago itzuliko ez zen itzaropena agertu zuten. Bezperan, Sharikovek hiru errublo eta hamabost kopek hartu zituen Daria Petrovna-naren gelatik.

— Ondo merezia duzu! —egin zuen orro Filip Filipovitxek, ukabilei eraginez. Telefonoa jo eta jo aritu zen egun osoan, baita biharamunean ere. Bi sendagileek inoiz baino paziente gehiago hartzen zituzten, baina hirugarren egunean ohartu ziren ezin atzeratuzko zeregin bat zutela: gertaturikoaren berri eman behar zioten polizia-

ri, berak bilatu behar baitzuen Sharikov Moskuko zurrunbilan.

Eta, «polizia» hitza esan bezain laster, kamioi baten burrunbak Obukhov kalezuloko isiltasun jainkotiarra urratu zuen, eta etxeko leihoek dardard egin zuten. Gero, hots irmoz jo zuen txirrinak, eta Poligraf Poligrafovitx berebiziko duintasunez sartu zen etxera; isil-isilik kapela erantzi, berokia kakotik eseki, eta itxuraberriturik azaldu zen. Besteren larruzko jaka bat, larruzko galtza higatuak eta belaunetarainoko lokarriekiko bota ingeles garaiak zeuzkan jantzirik. Katu-usain ikaragarri batek harrera-gela osoa bete zuen berehala. Preobrajenskik eta Bormentalek, biek batera, bularrean gurutzatu zituzen besoak, eta, ate alboan jarririk, Poligraf Poligrafovitxen lehen azalpenen zain geratu ziren. Hark, bere ile latzak leundu, eztul egin, eta halako eran begiratu zuen ingurura, ezen argi nabari baitzitzaion: Poligrafek lasai-itxura eginez ezkutatu nahi zuen bere nahasmendua.

— Filip Filipovitx —ekin zion azkenik kargu baterako izendatu naute.

Bi sendagileek eztarri-hots sor zehazgabe bana egin zuten eta urduri jarri ziren. Preobrajenski etorri zen lehena bere onera, besoa luzatu, eta esan zuen:

— Emadazu papera.

Hau zegoen peperean inprimaturik: «Paper hau aldean daramana, Poligraf Poligrafovitz Sharikov tobaritxa, MKKh-ko karguduna da, Mosku hirian alderrai ibiltzen diren animaliak (katuak etab.) desagerrarazteaz arduratzen den azpisailaren burua».

— Nork eman dizu kargua? —galdetu zuen Filip Filipovitzek, ahots larriz Ez esan ezer, susmatzen dut nor izan den.

— Bada, bai, Shvonder —erantzun zuen Sharikovek.

— Uztazu galdera bat egiten, mesedez. Zergatik duzu hain usain nazkagarria?

Sharikovek kezkatu egin zion jakari.

— Usain hau? Argi dago, nire lanbideagatik. Atzo katuak itotzen eman genuen egun osoa...

Filip Filipovitzek zirgiti egin zuen eta Bormentali begiratu zion. Bormentalen begiek, Sharikovi bekoz beko begira baitzeuden, bi fusil-aho beltz

gogorarazten zituzten. Inolako ingurumaririk gabe, Sharikovengana hurbildu zen eta lepotik heldu zion, zalu eta irmo.

— Lagundu! —saiatu zen Sharikov, gero eta zurbilago.

— Doktorea!

— Ez dut ezer txarrik egiteko asmorik, Filip Filipovitx, ez kezkatu —erantzun zuen Bormentalak burdinazko ahotsez, eta gero deiadar egin zuen Zina eta Daria Petrovna!

Harrera-gelara agertu ziren biak.

— Errepika ezazu hau —esan zuen Bormentalak, eta apur bat estutu zuen Sharikoven lepoa larruzko berokiaren kontra barkamena eskatzen dizuet...

— Bai, bai, oraintxe errepikatuko dut —erantzun zuen Sharikovek ahots erlatsez, harri eta zur eginik, baina, bat-batean, arnasa hartu, kuzkurtu, eta «lagundu» oihukatzen saiatu zen, baina oihua ez zen irten, eta haren burua erabat hondoratu zen berokian.

— Doktorea, arren eskatzen dizut.

Sharikovek gora eta behera eragin zion buruari, amore eman eta errepikatu egingo zuela adieraziz.

— ... Barkamena eskatzen dizuet begirune osoz, Daria Petrovna eta Zinaida... zer gehiago?

— Prokofievna —xuxurlatu zuen Zinak, izuak harturik.

— Uf, Prokofievna... —esan zuen Sharikovek, arnasestuka eta ahotsa lazturik barkamena eskatzen dizuet...

— Mozkor-mozkor eginik gauez egin nizuen makurkeria doilorratik.

— Mozkor-mozkor eginik...

— Ez dut berriro horrelakorik egingo...

— Ez dut be...

— Aska ezazu, aska ezazu, Ivan Arnoldovitx —esan zuten bi emakumeek batera itoko duzu bestela!

Bormetalek aske utzi zuen Sharikov, eta esan zuen:

— Kamioia zure zain dago?

— Ez —erantzun zuen Poligrafek, begirunez ekartzera baino ez da etorri.



— Zina, esan kamioiari alde egiteko. Eta, orain, ondo pentsatu eta erantzun galera honi: berriz itzuli zara Filip Filipovitxen etxera?

— Nora joango naiz bestela? —erantzun zuen Sharikovek, herabeki eta begirada lausoz.

— Ederto. Orduan, jostorratza baino zintzoa-goia izango zara aurrerantzean. Bestela, egiten duzun makurkeria bakoitzaren ordaina hartuko duzu niregandik. Argi dago?

— Argi dago —erantzun zuen Sharikovek.

Sharikoven kontrako indarkeriak iraun zuen bitarte guztian, Filip Filipovitx isil-isilik egon zen. Nolabaiteko errukiz, ate-uztarrian bermaturik zegoen, azazkal bat hozkatzen eta begirada paraketean josirik. Bat-batean, begiak Sharikovengantz jaso, eta hitzetik hortzera galdetu zion, ahots sorrez:

— Zer egiten duzue haiekin... zera, hiltzen dituzuen katuekin?

— Etekina aterako diete —erantzun zuen Sharikovek haiekin larru-finak egingo dituzte Langileen Kreditu Erakundearentzat.

Gero, isiltasuna nagusitu zen etxean, eta bi egun iraun zuen. Goizean, Poligraf Poligrafovitz

kamioian joaten zen, arratsaldean itzultzen zen eta isilik bazkaltzen zuen Filip Filipovitx eta Bormentalekin batera.

Bormentalek eta Sharikovek gela berean lo egiten zuten, harrera-gelan, baina ez zioten hitzik esaten elkarri, eta Bormental izan zen egoera horretaz aspertzen lehena.

Bi egun geroago, andereño argal bat azaldu zen etxera. Margoturik zeuzkan begiak eta galterdi kremakoloreak zeramatzan. Txunditurik geratu zen etxearen bikaina ikustean. Berokitxo maiztua erantzi gabe, Sharikoven atzetik joan zen, eta harrera-gelan Filip Filipovitxekin egin zuen topo.

Profesorea, harriturik, gelditu egin zen, eta, begiak ñarrotuz, galdetu zuen:

— Jakin nezake nor den emakume hau?

— Berarekin ezkonduko naiz, gure mekano-grafoa da, nirekin biziko da. Bormentalek harrera-gela utzi beharko du. Berak bere etxebizitza du —azaldu zuen Sharikovek, bekozko ilunez eta etsaitasun ezin handiagoz.

Filip Filipovitxek behin eta berriro kliskatu zituen begiak; andereño lotsagorrituari begira

une batez pentsakor egon, eta, adeitasun handiz, berekin joateko eskatu zion.

— Mesedez, etorri apur batean nire langelara.

— Ni ere joango naiz —esan zuen Sharikovek, bizkor eta fidakaitz.

Une horretantxe, han agertu zen Bormental ustekabean, lur azpitik irten balitz bezalaxe.

— Barkatu —esan zuen profesoreak damarekin hitz egingo du eta gu biok hemen geratuko gara.

— Ez dut nahi —erantzun zuen Sharikovek, gorrotoz, andereño lotsa-lotsa eginaren eta Filip Filipovitxen atzetik joaten ahaleginduz.

— Ez, barkatu —Bormentalek eskutik heldu zion Sharikovi eta azterketa-gelara joan ziren biak.

Bost minutuan langelatik ez zen inolako hotsik irten, eta gero, bat-batean, andereñoaren negar-zotin sorrak entzun ziren.

Filip Filipovitx zutik zegoen mahaiaren alboan, eta andereñoak malkoak isurtzen zituen farfailezko sudur-zapi zikin batera.

— Gerran zauritu zutela esan dit. Azpisuge zikina! —esan zuen andereñoak, negar-intzirika.

— Gezurra esan dizu —erantzun zuen Filip Filipovitxek, gupidagabe. Buruari ezker-eskuin eragin, eta hizketan jarraitu zuen Erruki zaitut, benetan, baina horrela ezin da, aurkitzen duzun lehenarekin, beraren karguagatik soilik... Hori eragabekeria handia da, ene laztantxoa!... Hartu... —Idazmahaiko tiradera bat ireki eta hogeita hamar errubloko hiru billete atera zituen.

— Neure burua pozoituko dut —esan zuen andereñoak, negarrez jantokian okela gazitua egunero... eta mehatxu egiten dit... Armada Gorriko komandantea dela esaten dit... nirekin luxu handiko etxe batean biziko zara, esaten dit... ananak egunero... bihotz oneko gizona naiz, esaten dit, katuak dira gorrotatzen dudan gauza bakarra. Beretzat hartu du nire eraztuna, oroigarri gisa...

— Hara, hara, hara, bihotz onekoa... Sevilla-tik Grandara —murduskatu zuen Filip Filipovitxek adorez eraman behar duzu hau... hain zara gaztea oraindik...

— Atari-azpi horretan? Benetan?

— Ea, hartu dirua eskaintzen dizutenean —  
egin zuen oihu Filip Filipovitxek.

Gero, hotsandiro ireki zen atea, eta, Filip Filipovitxek hala eskaturik, Bormentalek Sharikov sarrarazi zuen. Alde guztietara baztertzen zituen begiak, eta lazturik zeukan buruko ilea, eskuilaren irudiko.

— Gizatxar arraioa! —egin zuen andereñoak, begiak negarrez distiratsu eta sudur hautseztaua malkoen arrastoek marraturik.

— Zergatik duzu ebakiondo hori bekokian? Mesedez, azaldu hori dama honi —galdetu zuen Filip Filipovitxek, zirikatzaile.

Sharikovek galdu-irabazi jokatzearabaki zuen:

— Frontean zauritu ninduten, Koltxaken kontrako gerran —egin zuen zaunka.

Andereñoa, zutik jarri, eta han joan zen, negar samina zeriola.

— Zaude geldi! —egin zuen garrasi Filip Filipovitxek haren atzetik Egon apur batean. Emadazu eraztuna —esan zuen, Sharikovi zuzendurik.

Sharikovek, otzan-otzan, esmeralda faltsua zeukan eraztun txiki bat kendu zuen hatzetik.

— Tira, ondo da —esan zuen bat-batean, gorrotoz larrutik ordainduko didazu hau. Ikusiko duzu zer-nolako lanpostu-murrizketa antolatzen dizudan bihar.

— Ez izan haren beldur —egin zuen oihu Bormentalek andereñoaren atzetik ez diot ezer egiten utziko.

Jiratu, eta Sharikovi begiratu zion, halako eran, ezen hark atzera egin eta armairua jo baitzuen garondoaz.

— Nola du abizena? —galdetu zion Bormentalek Abizena! —egin zuen garrasi, eta itxura basati eta beldurgarria hartu zuen bat-batean.

— Vasnetsova —erantzun zuen Sharikovek, begiez ihesbide bila ari zela.

— Egunero —ekin zion Bormentalek, Sharikov jakaren papar-hegaletatik heldurik zeukala nik neuk galdetuko dut garbiketa-azpisailaren bulegoan ea Vasnetsova herritarra kaleratu duzun. Eta kaleratu duzula jakiten badut..., tiro batez hilko zaitut hantxe bertan, neure eskuekin.

Kontuz ibili, Sharikov, errusiera garbian esaten dizut!

Sharikovek Bormentalen sudurrean tinko josirik zeuzkan begiak.

— Guk ere errebolberrak dauzkagu... —murmurikatu zuen Poligrafek, kemen handirik gabe baina, eta, bat-batean, ate alderantz ihes egiteko modua aurkitu zuen.

— Kontuz, gero! —iritsi zitzaion atzetik Bormentalen oihua.

Gau horretan eta hurrengo egun erdian isiltasuna nagusitu zen etxean, ekaitza dakarren hodeiaren antzera. Isilik zeuden denak. Baina biharamunean, Poligraf Poligrafovitz, goizetik susmo txar baten ziztada sumatu baitzuen barnean, gogoilun joan zen kamioian lantokira, eta, hura joandakoan, Preobrajenski profesoreak, horretarako zeharo ohiz kanpokoak zuen ordu batean, bere lehengo pazienteetako bat hartu zuen, militar jantziriko gizon lodi eta garai bat. Temati, behin eta berriro eskatua zion hitzordua, eta lortu zuen azkenean. Langelara sartzean, adeitasun handiz takoiak joz egin zion diosal profesoreari.

— Min duzu berriro, nire lagun maitea? —galdetu zuen Filip Filipovitx argalduak Eseri, masedez.

— Merci. Ez, profesorea —erantzun zuen bisitariak, kaskoa mahai ertzean uzteaz batera Esker onik bihotzekoena zor dizut... Mmm... Beste arrazoi batengatik etorri naiz zuregana, Filip Filipovitx... begirune handia dizut... mmm... jakinaren ganean jarri behar zaitut. Zentzugabekeria hutsa da. Hori gizon zitala... —Pazienteak, agiri-zorroa arakatu, eta paper bat atera zuen Zorionez, zuzen-zuzenean jakinarazi didate...

Filip Filipovitxek kebedoak jarri zituen betaurrekoen ganean eta irakurtzen hasi zen. Luzaz aritu zen bere artean marmarka, txitean-pitean aurpegiera mudatzen zitzaiola. «... eta, gainera, mehatxuka esan du tiro batez hilko duela etxeko batzordeko lehendakaria, Shvonder tobaritxa, eta horrek argi frogatzen du su-arma bat daukala etxean gorderik. Hitzaldi kontrairaultzaileak egiten ditu, eta Engels sutara botatzeko agindu dio bere zerbitzari sozialari, Zinaida Prokofievna Buninari. Horrek guztiak salatzen duenez, mentxebike porrokatua da, Bormental Ivan Arnoldo-



vitx beraren laguntzailea bezalaxe, gizon hori ezkutuan bizi baita haren etxean, hor erroldaturik egon gabe. Sinaturik: P. P. Sharikov, garbiketazpisailaren zuzendaria. Fede ematen dut. Shvonder, etxeko batzordeko lehendakaria. Pestrukhin, idazkaria.»

— Utziko didazu hau niretzat gordetzen? — galdetu zuen Filip Filipovitxek, orbantxoaz beterik ala, beharbada, zuk behar duzu, auzia legeak agintzen duen eran bideratzeko?

— Barkatu, profesorea —esan zuen pazienteak, oso mindurik eta sudur-zuloak zabaldurik egia esan, oso iritzi txarra duzu gutaz. Ni... —eta puzten eta puzten hasi zen, indioilar baten antzera.

— Ea, barkatu, barkatu, nire lagun maitea! — murduskatu zuen Filip Filipovitxek Barkatu, ez zintudan mindu nahi, benetan. Ez haserretu, nire lagun maitea, ez dakizu zein neke handiak eman dizkidan...

— Sinesten dizut —pazientea zeharo lasaitu zen Inondik ere, gizatxar hutsa da! Gogo handiz emango nioke begiratu bat. Moskun istorio harri-garriak kontaktzen dituzte zuri buruz...

Filip Filipovitxek eskuari eragin zion, etsia harturik. Orduan, pazientea ohartu zen profesorea konkortu eta are nolabait ileurdindu ere egin zela azken bolada horretan.

\* \* \*

Krimena umotu eta jalki egin zen, harri bat bezala, hala gertatu ohi baita. Susmo txarrak bihotza sastatzen ziola itzuli zen Poligraf Poligrafovitx kamioian. Filip Filipovitxen ahotsak azterketa-gelara joateko eskatu zion. Sharikov, harriturik, hara joan zen, eta, izu lausoz, begiratu arin bat zuzendu zien Bormentalen aurpegiko fusil-ahoei, eta gero Filip Filipovitxi. Ke-laino batek inguratzen zuen laguntzailearen aurpegia, eta haren ezkerreko eskuak, zigarreta bati eusten ziola, dardara txikiak egiten zituen obstetrizia-aulkiaren beso distiratsuan.

Filip Filipovitxek oso zain gaiztoko lasaitasunez esan zuen:

— Hartu zure gauza guztiak, galtzak, berokia eta behar duzun guztia, eta ospa etxe honetatik!

— Zer esan duzu? —galdetu zuen Sharikovek, zinezko harriduraz.

— Ospa etxe honetatik, gaur bertan —errepikatu zuen, ahots beti-berdinez, Filip Filipovitxek, begiak erdi itxirik bere azazkalei so.

Halako deabru bat jabetu zen Poligraf Poligrafovitxek; nabari zenez, hurbil zeukan heriotza, eta zegokion patu gaiztoak laster hartuko zuen. Ezin saihestuzkoaren besoetara bota zuen bere burua, eta zaunka hasi zen, gorrotoz eta ahots etenez:

— Zer da hau, gero! Zer uste duzu?, ez dizudala gogor egingo? Niri 16 arshineko azalera dagokit hemen, eta hemen geldituko naiz.

— Alde egin etxe honetatik —murmurikatu zuen Filip Filipovitxek, arnasa etenik.

Sharikovek berak egin zion dei bere heriotzari. Ezkerreko eskua jaso eta, jasan ezinezko katurkiratsa zeriola, keinu zantarra egin zion Filip Filipovitxi, hatz lodi marraskatua erakuslearen eta luzearen artean sarturik. Gero, eskuineko eskuaz errebolber bat atera zuen sakelatik eta Bormental arriskutsuaren aldera zuzendu zuen. Bormentalen zigarreta lurrera erori zen izar iheskor

baten antzera, eta, segundo batzuk geroago, Filip Filipovitxek beira hautsien gainetik jauzi egin zuen eta, izaturik, lasterka joan zen armairutik dibanera. Han zegoen garbiketa-azpisailaren zuzendaria, luze-luze etzanik eta ahotsa erlasturik, eta Bormental kirurgialaria haren bularraren gainean jarririk zegoen, bururdi zuri txiki batez hura itotzen.

Minutu batzuk geroago, Bormental doktorea, begitarte bestelakoturik, sarrerako atera joan zen eta ohar bat itsatsi zuen txirrinaren botoiaren alboan:

«Gaur ez dago kontsultarik, profesorea ondo ezik dago eta. Mesedez, ez jo txirrina.»

Labanatxo distiratsu batez txirrinaren haria moztu, eta, ispiluaren aurrean jarririk, arretaz aztertu zituen bere aurpegi atzaparkada odoltsuz betea eta bere esku harramazkatu, dardaraldi arin batek astinduak. Gero, sukaldeko atean azaldu zen eta honela esan zien Zinari eta Daria Petrovnari, bi-biak erne zeudela:

— Profesoreak eskatzen dizue etxetik ez irte-teko ezertarako ere.

— Ondo da —erantzun zuten Zinak eta Daria Petrovna, herabetasunez.

— Axola ez badizue, zerbitzarien sarrerako atea itxi eta giltza gordeko dut —esan zuen Bormentalek, ate atzeko iluntasunean ezkutatuz eta aurpegia esku-ahurraz estaliz Behin-behineko kontua da. Uste osoa dut zuengan, baina, norbait badator, amore eman eta ireki egingo dizue, eta gaur ezin digu inork eragotzi. Oso lanpeturik gaude.

— Ondo da —erantzun zuten bi emakumeek, eta bertantxe zurbildu ziren. Bormentalek zerbitzarien sarrerako atea itxi zuen, sarrera nagusiko atea itxi zuen, harrera-gelaren eta korridorearen arteko atea itxi zuen, eta azterketa-gelan galdu ziren haren urratsak.

Isiltasunak mendean hartu zuen etxea, arrastaka zabaldu zen bazter guztietara. Iritsi zen ilunabarra, zital, zelatari..., hitz batean, ilunpea. Egia da egun batzuk geroago patioaren beste aldeko etxelagunek esan zutela ezen, gau hartan, Preobrajenskiren etxebizitzan, azterketa-gelako argi guztiak pizturik egon zirela patiora ematen zuten leihoetan, eta profesorearen

txano zuria ikusi zutela... Zaila da hori sinestea. Orobat egia da Zinak esan zuela ezen, dena amaitutakoan, Bormental eta profesorea azterketa-gelatik irten eta gero, Ivan Arnoldovitxek hiltzeko moduko izualdia eman ziola langelako tximiniaren alboan. Esan zuenez, kukubilko zegoen langelan, eta azal urdineko koaderno bat erretzen ari zen tximinian, profesorearen pazienteen txosten klinikoak idazteko erabiltzen zituzten koadernoetako bat hain zuzen! Esan zuen doktorearen aurpegia berde-berde zegoela, eta atzaparkadaz josirik goitik beheraino, bai, goitik beheraino... Eta gau hartan Filip Filipovitxek ez zuela betikoa ematen. Eta, gainera, esan zuen... baina, beharbada, gezurretan ari zen neska xaloa...

Gauza bat bakarrik jo daiteke ziurtzat: gau hartako isiltasuna ezinago betea eta izugarria zen.

*Eleberriaren amaiera*

# Epilogoa

Azterketa-gelako borroka gertatu eta hamargarren egunean, ez lehenago ez geroago, txirriak zoli-zoli jo zuen Preobrajenski profesorearen etxebizitzan, Obukhov kalezuloan.

— Polizia judiziala eta instrukzioko epailea. Ireki atea, mesedez.

Pauso lasterrak entzun ziren, behin eta berriro jo zuten atea, jendea sartzen hasi zen, eta, azkenean, talde handia bildu zen harrera-gela dir-dir argizatuan, armairu beira-berrituen artean: polizia-uniformez jantziriko gizaseme bi; beroki iluneko gizon bat, agiri-zorroa besapean; Shvonder batzordebua, zurbil eta irribarre zitaila ezpainetan; gazte emakumezkoa, Fiodor atezaina, Zina, Daria Petrovna eta, azkenik, Bormental, erdi jantzirik, lotsa onez gorbatarik gabeko lepoa estaltzen zuela.

Langelako atea igarotzen utzi zion Filip Filipovitxi. Bere ohiko mantal urdinxkaz jantzirik irten zen, eta, ikusi bezain laster, denak konturatu ziren Filip Filipovitx guztiz suspertu zela azken

aste horretan. Lehengo Filip Filipovitx larderiatsu eta adoretzu bera agertu zen gaueko bisitarien aurrera, duintasunez beterik, eta barkamena eskatu zien mantalez jantzirik azaltzeagatik.

— Ez kezkatu, profesorea —erantzun zion uniformerik gabeko gizonak, oso aztoraturik, eta, une batez zalantzan egon eta gero, hizketan jarraitu zuen Oso gogaikarria da hau. Zure etxebizitza arakatzeko agindu digute, eta —gizonak, begi-ertzetik Filip Filipovitxen biboteari begiratu, eta bere hizketaldia amaitu zuen zu atxilotzeko, araketaren emaitzak horretara behartuz gero.

Filip Filipovitxek, begiak ñarroto, eta galdetu zuen:

— Galdetzea atrebentzia ez bada, zein da akusazioa eta noren kontrakoa?

Gizona, masailean hatz egin, eta azalpenak ematen hasi zen, agiri-zorrotik atera zuen paper batean idatzirik zegoenaren arabera...

— Akusatuak Preobrajenski, Bormental, Zinaida Bunina eta Daria Petrovna dira, eta akusazioa, berriz, MKKh-ko garbiketa-azpisailaren zuzendari Poligraf Poligrafovitx Sharikov hiltzea.



Zinaren negar-zotinek haren azken hitzak estali zituzten. Urduri mugitu zen talde osoa.

— Ez dut ezer ulertzen —erantzun zuen Filip Filipovitxek, sorbaldak handikiro jasoz nor da Sharikov hori? A bai, barkatu, inondik ere nire txakurraz ari zara... ebakuntza egin nion nire txakur horretaz...

— Barkatu, profesorea, ez naiz txakurraz ari, txakur hori jadanik gizakia zen garaiaz baizik. Hori da kontua.

— Hau da, hitz egiten zuen garaiaz? —galde-tu zuen Filip Filipovitxek Horrek ez du esan nahi gizakia zenik, eta, gainera, ez du inolako garrantzirik. Sharik bizi-bizirik dago, eta inork ez du hiltzeko saiorik txikiena ere egin.

— Profesorea —esan zuen beltzez jantziriko gizonak, harri eta zur eginik eta bekainak jasorik hori hala bada, erakutsi egin behar diguzu. Badi-ra hamar egun desagertu dela, eta, barkatu esatea, baina hari buruz eman dizkiguten albisteak oso txarrak dira.

— Bormental doktorea, mesedez, erakutsi Sharik instrukzioko epaileari —agindu zuen Filip Filipovitxek, agindu-orria hartzeaz batera.

Gelatik irten zen Bormental doktorea, irribarre maltzurra aurpegian.

Harrera-gelara itzuli eta txistu egin zuenean, itxura bitxiko txakur bat azaldu zen haren atzean, langelako atetik lasterka irtenik. Gorputzaren alde batzuk ilegabeak zituen, eta beste batzuk, aldiz, iledunak. Atzeko hanken gainean zutiturik irten zen, zirkurako trebaturiko txakurrek ohi duten bezala; gero, lau hanken gainean jarri eta ingurura begiratu zuen. Hilobietakoaren moduko isiltasun bat gatzatu zen harrera-gelan, jelatina bezala. Bekokian orbain gorria zeukan txakur amesgaiztoko hura berriro altxatu zen atzeko hanken gainean, irribarre egin eta besaulkian eseri zen.

Bigarren poliziak aitaren egin zuen bat-batean, keinu zabal-zabalez, eta, atzera eginik, bi oinak zapaldu zizkion Zinari.

Beltzeko gizona, artean ere aho zabalik, honela mintzatu zen:

— Nolatan liteke, gero!... Garbiketa-azpisailan lan egiten zuen...

— Nik ez nuen bidali hara —erantzun zuen Filip Filipovitxek Shvonder jaunak gomendatu zuen kargu horretarako, oker ez banago.

— Ez dut ezer ulertzen —esan zuen beltzezkoak, burunahasirik, eta lehen poliziari galdetu zion Bera da?

— Bai —erantzun zuen poliziak, ahots sorrez Berbera.

— Bera da, bai —entzun zen Fiodorren ahotsa baina ilez estaltzen ari da berriro. Doilor arraioa!

— Baina lehen hitz egiten zuen...

— Eta orain ere hitz egiten du; gero eta gutxiago, ordea. Beraz, ez galdu aukera hau, luze gabe erabat isilduko da eta.

— Zergatik, baina? —galdetu zuen beltzezko gizonak, ahapeka.

Filip Filipovitxek sorbaldak jaso zituen.

— Zientziak oraindik ez du asmatu animaliak gizaki bihurtzeko modua. Nik saio bat egin dut, baina arrakastarik gabe, ikusten duzuenez. Denboraldi batez hitz egin du, eta gero bere jatorrizko egoerara itzultzen hasi da. Atabismoa.

— Debekaturik dago hitz gordinak esatea — egin zuen oihu bat-batean txakurrak besaulkian, eta zutik jarri zen gero.

Beltzezko gizona goitik beheraino zurbildu zen ustekabean; agiri-zorroa askatu, eta alde batera erortzen hasi zen. Polizia batek albo bate-tik heldu zion, eta Fiodorrek atzetik. Zalaparta handia sortu zen, eta haren erdian argi eta garbi entzun ziren hiru esaldi:

Filip Filipovitxena: — Belar bedeinkatua. Zorabioa da.

Bormental doktorearena: — Shvonder Preobrajenski profesorearen etxean berriro azaltzen bada, eskaileretan behera botako dut.

Eta Shvonderrena: — Jaso ditzatela hitz horiek txostenean.

\* \* \*

Bero zeuden hauspo-itxurako hodi grisak. Leihoetako errezelek Pretxistenka kaleko gau iluna eta izar bakarra ezkutatu zituzten. Izaki gorena, txakurren babesle handientsua, besaulkian eseririk zegoen, eta Sharik txakurra, berriz,

tapizaren gainean etzanik larruzko dibanaren alboan. Goizetan, txakurrak buruko min handiak pairatzen zituen martxoko lainoaren eraginez. Minok izugarri oinazetzen zioten eraztun baten antzera burua inguratzen zion jostura, baina arratsaldean, beroari esker, joan egiten zitzaizkion. Eta, hain zuzen ere, une horretan apurka-apurka arinduz zihoakion mina, eta pentsamenduak gozo eta epel isurtzen ziren txakurraren buruan.

«Bai zorte ona nirea, bai zorte ona —pentsatzen zuen, erdi lo ezin azaltzeko moduko zorte ona. Etxe honetan kokatu nauk. Zeharo sinetsirik nagok nire jatorria ez dela garbia. Ternuako txakurren bat zegok tartean. Nire amona emagaldua zuan; goian bego. Ez zekiat zergatik, baina triskantza ederra egin zidatek buruan. Nolanahi ere, ez nauk horregatik hilko. Ez duk kezkatzekoa.»

\* \* \*

Flaskoen tintin-hots sorra entzuten zen urrun. Hozkatuak azterketa-gelako armairuak antolatzen ziharduen.

Azti ileurdina eseririk zegoen, abesten:

— Nilo sakratuaren ertzean...

Txakurrak gauza ikaragarriak ikusten zituen. Gizon serio batek, eskularru labainak jantzirik, ontzi batean sartzen zituen eskuak eta burmuin bat ateratzen zuen handik; gizon setatsu, saiatu bat ahaleginean aritzen zen araketa-lanetan eta, ekinaren ekinez, bilatzen zuena aurkiturik, arre-taz aztertzen zuen, begiak ñarrotzen zituen, eta abesten zuen:

— Nilo sakratuaren ertzean...

1925eko urtarrila-martxo

Mosku